Oinarrizko gaitasunak

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaa

Matematikarako gaitasuna

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna

Lehen Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

OINARRIZKO GAITASUNAK LEHEN HEZKUNTZAN

AURKIBIDEA

1. OINARRIZKO GAITASUNEN EZAUGARRIAK

1.1. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA

a) Justifikazioa
b) Definizioa
c) Osagaiak
d) Gaitasunaren deskripzioa Lehen Hezkuntzako laugarren mailarako
e) Arloen ekarpenak Hizkuntza-Komunikaziorako Gaitasuna garatzeko

1.2. MATEMATIKARAKO GAITASUNA

a) Justifikazioa
b) Definizioa
c) Osagaiak
d) Gaitasunaren deskripzioa Lehen Hezkuntzako laugarren mailarako
e) Arloen ekarpenak Matematikarako Gaitasuna garatzeko

1.3. ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA- ETA OSASUN- KULTURARAKO GAITASUNA

a) Justifikazioa
b) Definizioa
c) Osagaiak
d) Gaitasunaren deskripzioa Lehen Hezkuntzako laugarren mailarako
e) Arloen ekarpenak Zientzia-, Teknologia- eta Osasun- Kulturarako Gaitasuna garatzeko

1.4. GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA

a) Justifikazioa
b) Definizioa
c) Osagaiak
d) Gaitasunaren deskripzioa Lehen Hezkuntzako laugarren mailarako
e) Arloen ekarpenak Gizarterako eta Herritartasunerako Gaitasuna garatzeko

1.5. GIZA ETA ARTE-KULTURARAKO GAITASUNA

a) Justifikazioa
b) Definizioa
c) Osagaiak
d) Gaitasunaren deskripzioa Lehen Hezkuntzako laugarren mailarako
e) Arloen ekarpenak Gizarterako eta Herritartasunerako Gaitasuna garatzeko

2. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENENERAKO

a) Orientabide orokorrak
b) Berariazko orientabideak, Lehen Hezkuntzan gaitasunak lantzeko

3. OINARRIZKO GAITASUNEN EBALUAZIORAKO ORIENTABIDEAK

a) Orientabide orokorrak
b) Ebaluazio-tresnen ereduak

4. MATERIAL DIDAKTIKOA

a) Sekuentzia didaktikoaren ezaugarriak
b) Sekuentzia didaktikoaren planifikazioa
c) Gaitasunen inguruan lan egiteko material egokiak

5. BIBLIOGRAFIA

1. OINARRIZKO GAITASUNEN EZAUGARRIAK

1.1. HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNAREN EZAUGARRIAK

a) Justifikazioa

Hizkuntza giza garapenerako funtsezko osagaia da bere bi alderdietan, indibiduala eta soziala. Indibiduala, gizabanako bakoitzari pentsatzea, bere ezagutza eraldatzea, bere jarduera antolatzea eta gauzak adieraztea ahalbidetzen diolako. Soziala, sozialki helarazi eta mantentzeaz gain, gizataldeak hizkuntza ardatz eta euskarri duen jarduera baten baitan eratzen eta garatzen direlako. Kultura sortzeko, sendotzeko eta helarazteko tresna da.

Pertsonen bizitza afektibo eta kognitiboari estuki lotua, hizkuntza sentimenduen erregulatzailea eta ikaskuntza ororen bitartekorik behinena da, bai bizitzan bai mundu akademikoan. Hizkuntza menderatzea norberaren baitara hobeto hurbiltzeko, modu autonomoan ikasteko, besteen aurrean norberaren burua kokatzeko, bizikidetza arautzeko eta besteekin elkarlanean aritzeko tresna egokiak edukitzea da.

Hizkuntzak, finean, norberaren irudia sortzen laguntzen du eta besteekiko nahiz ingurunearekiko harreman konstruktiboak faboratzen ditu. Komunikatzen ikastea beste pertsonekin harremanak ezartzea da, ezagutzen diren heinean aintzat hartuak diren kultura, errealitate eta mundu berrietara gerturatzea.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, hizkuntzaren erabilera-eremu desberdinetan modu eraginkorrean komunikatzeko ahalmen gisa ulertua, funtsezkoa da, gainerako oinarrizko gaitasunak bezala, norberaren errealizazioa sustatzeko, ikaskuntza modu etengabe eta autonomoan garatzeko, gizarteratzeko eta herritar aktiboa izateko.

b) Definizioa

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna hizkuntza erabiltzeko trebetasuna da, hau da, kontzeptuak, sentimenduak, gertakariak eta iritziak ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez adierazi eta interpretatzekoa eta gizarte- zein kultura-ingurune guztietan linguistikoki elkarreragitekoa.

Entzutea, mintzatzea eta solas egitea trebetasun linguistiko eta ez-linguistikoak beharrezkoak dituzten ekintzak dira besteekiko eta ingurunearekiko loturak ezartzeko. Horretarako, komunikazio-trukearen berezko arauak erabili behar dira testuinguru desberdinetan, eta ahozko mintzairaren berezko ezaugarriak identifikatu behar dira komunikazio-egoera bakoitzerako egokiak diren ahozko diskurtsoak interpretatu eta ekoizteko.

Irakurtzea eta idaztea informazioa bilatu, bildu, hautatu eta prozesatzeko trebetasunak beharrezkoak dituzten ekintzak dira, pertsona askotariko komunikazio-asmoak dituzten testu-mota desberdinak ulertu eta ekoizteko gaitzen dutenak.

Hizkuntza-komunikaziorako oinarrizko gaitasunak komunikazioaren egintzan elkarlotzen eta elkar elikatzen diren abilezien, ezagutzen eta jarreren multzoa barne hartzen du.

Abileziak edo prozedurak askotariko diskurtsoak entzun eta ulertzeko nahiz mintzairaren bidez norberaren ideiak adierazteko beharrezkoak diren trebetasunak dira. Komunikazio-trukea arautzeko beharrezkoak diren estrategiak barne hartzen dituzte, eta baita irakurketa-helburu desberdinak dituzten askotariko testuak irakurri eta ulertzeko trebetasunak nahiz asmo desberdinekin askotariko testuak, idazketa-prozesuaren fase guztiak kontrolatuz, idazteko trebetasunak ere.

Ezagutzak edo kontzeptuak beharrezkoak dira hizkuntzaren eta beraren erabilera-arauen inguruan gogoeta egiteko. Zehazki, alderdi linguistiko, soziolinguistiko eta pragmatikoei buruzko ezagutzak dira.

Jarrera egokiak dira entzutea, iritziak trukatzea eta besteen usteekiko errespetua nahiz kultura arteko komunikazioarekiko interesa sustatzen dituztenak. Gaitasun honen funtsezko osagai bat kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren balorazio positiboa da, beste kultura eta herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko bitarteko gisa. Era berean, irakurketa zein idazketarekiko jarrera positiboa bultzatu behar da, lehena gozamen- eta ikaskuntza-iturri moduan eta bigarrena gizarte-erregulaziorako eta ezagutza helarazteko tresna moduan.

Gaitasun honen garapenak hizkuntzak **erabileraren** bidez ikastea eskatzen du askotariko komunikazio-egoera eta -testuingurutan; izan ere, abileziak edo prozedurak, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean funtsezko eduki direnak, erabileraren poderioz –eta erabilera horren inguruan hausnartuta, hobetu ahal izateko– soilik garatzen dira. Ezinbestekoa da hizkuntza erabilera-egoeratan behatu eta aztertzea tresna hori hobeto menderatu ahal izateko, eta horrek hizkuntzaren erabileran esku hartzen duten osagai guztiei buruz gogoeta egitera garamatza.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna bi hizkuntza ofizialak –euskara eta gaztelania– modu egoki eta eraginkorrean erabiltzean zertzen da, testuinguru desberdinetako askotariko komunikazio-egoeratan eta gero eta maila formal eta konplexuagoz. Atzerriko hizkuntzen komunikazioan, gaitasun honen garapenaz aurrez aipatu hizkuntza-trebetasunei lotutako oinarrizko abileziak eskuratzea lortu behar da, komunikazio-egoera eguneroko eta mugatuagoetan.

c) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunaren dimentsioak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna bloke handi batzuetan egituratu da, **DIMENTSIO** deituak. Dimentsio horietako bakoitza **AZPIGAITASUN** batzuetan zertzen da, eta azpigaitasun bakoitzerako ikasleak **jakin** eta **egiten jakin** behar duena azaltzen duten **EBALUAZIO-ADIERAZLE** batzuk xedatu dira.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna **DIMENTSIO** hauetan egituratu da:

- **AHOZKOAREN ULERMENA**
- **IDATZIAREN ULERMENA**
- **MINTZAMENA**
- **IDAZMENA**
- **AHOZKO ELKARREKINTZA**

AHOZKOAREN ULERMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoen zentzua berreraikitzeko trebetasun, ezagutza eta jarreren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek batez ere hizkuntzaren erabileraren bi arlorekin du zerikusia: pertsonarteko harremanak eta komunikabideak.

IDATZIAREN ULERMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuen zentzua berreraikitzeko trebetasun, ezagutza eta jarreren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek ezagutzaren gizartean funtsezkoak diren informazioaren tratamendu eta hautaketarako oinarrizko trebetasunak biltzen ditu.

MINTZAMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoak, batik bat norberak kudeatuak, ekoizteko trebetasun, ezagutza eta jarreren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honen baitan, komunikazio-egoera desberdinetara egokitutako ahozko diskurtsoen ekoizpena gobernatzen duten berariazko trebetasunak menderatu behar dira; diskurtso horiek beren edukiaren antolaeran koherenteak eta bateratuak izan beharko dute.

IDAZMENA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuak ekoizteko trebetasun, ezagutza eta jarreren oinarrizko multzoa barne hartzen du. Testuok askotarikoak eta desberdinak izango dira, komunikazio-egoera anitzetara egokituak, edukiaren antolaeran koherenteak eta testualki bateratuak, eta alderdi formaletan zuzenak.

AHOZKO ELKARREKINTZA dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalari begira behar bezala garatu behar den pertsonarteko komunikazioa sustatzeko oinarrizko trebetasun, ezagutza eta jarreren multzoa barne hartzen du. Berariazko ezaugarriak dituen dimentsio bat da, batik bat esanahiaren negoziazio partekatuari eta arau soziokomunikatiboak errespetatzeari lotuak.

Aldi berean, dimentsio bakoitza **AZPIGAITASUN** batzuetan zertzen da:

DIMENTSIOA: AHOZKOAREN ULERMENA

1. Ahozko testuen zentzu orokorra identifikatzea
2. Ahozko testuen helburua antzematea
3. Ahozko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea
4. Ahozko testuen edukia kritikoki interpretatzea
5. Ahozko testu-mota desberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea

DIMENTSIOA: IDATZIAREN ULERMENA

5. Idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea
6. Idatzizko testuen helburua antzematea
7. Idatzizko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea
8. Idatzizko testuen edukia kritikoki interpretatzea
9. Idatzizko testu-mota desberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea

DIMENTSIOA: MINTZAMENA

10. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak aintzat hartzea
11. Ekoizpen-prozesua planifikatzea
12. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea
13. Kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea

DIMENTSIOA: IDAZMENA

14. Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea
15. Ekoizpen-prozesua planifikatzea
16. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea
17. Kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea

DIMENTSIOA: AHOZKO ELKARREKINTZA

18. Komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzea
19. Arau soziokomunikatiboak errespetatzea
20. Komunikazioari eusteko eta beraren eraginkortasuna areagotzeko estrategiak erabiltzea

Dimentsio eta azpigaitasunen zerrenda ikasle baten hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean esku hartzen duten hizkuntza guztiei aplikagarria da. Zerrenda, aurkezten den moduan, EAEko hizkuntza ofizialei begira egin da. Azpigaitasun hauek eta dagozkien adierazleak atzerriko lehen edo bigarren hizkuntza batean espero daitekeen menderatze-mailara egokitzeko, hainbat ñabardura egin beharko lirateke.

d) Gaitasunaren deskripzioa LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILARAKO

Eztabaidagai da Oinarrizko Gaitasunen osagaiak etapaka edo mailaka deskribatu behar diren ala ez. EUROPAKO MARKOAren proposamenak berak ohartarazten du, oinarrizko gaitasun gehienei dagokienez, oinarrizko garapen mailaren eta maila aurreratuaren arteko bereizketa egitea, agian, ez dela hain adierazgarria. **Gainera, arriskua dago deskribapen hori curriculum paralelotzat hartzeko.**

Baina Oinarrizko Hezkuntzako etapetan zehar garatu beharreko gaitasunen deskribapen sekuentziatuari dagokionez, zuhurtziaz jokatzeko aholku hori egin den arren, diagnostiko-ebaluazioari lotutako proben erreferentziazko tresnatzat jo da. Hori dela-eta, aurkezten den deskripzioa irizpide berberen arabera gauzatu da oinarrizko gaitasun guztietarako.

DIMENTSIOA: AHOZKOAREN ULERMENA

1.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) zentzu orokorra identifikatzea.

Adierazleak:

- *Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.*
- *Testuaren informazio-edukia laburbiltzen du.*
- *Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.*
- *Testuko ideien arteko harremana antzematen du.*
- *Zikloaren berezko lexikoa ezagutzen du.*

2.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) helburua antzematea.

Adierazleak:

- *Testuaren xedea identifikatzen du.*
- *Testuaren igorlea antzematen du.*
- *Igorlearen asmoa identifikatzen du.*
- *Erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.*
- *Testuaren generoa antzematen du.*

3.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzea.

Adierazleak:

- *Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.*
- *Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du.*
- *Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.*

4.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) edukia interpretatzea.

Adierazleak:

- *Testuaren edukia berak dituen ezagutzen argitan interpretatzen ditu.*
- *Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.*
- *Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.*
- *Diskriminaziozko esaerak antzematen ditu.*

5.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) ulermena hobetzeko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Entzute aktiboa egiten du.*
- *Testuaren edukiari aurrea hartzen dio.*
- *Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.*
- *Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu.*

DIMENTSIOA: IDATZIAREN ULERMENA

6.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) zentzu orokorra identifikatzea.

Adierazleak:

- *Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.*
- *Testuaren informazio-edukia laburbiltzen du.*
- *Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.*
- *Testuko ideien arteko harremana antzematen du.*
- *Zikloaren berezko lexikoa ezagutzen du.*

7.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) helburua antzematea.

Adierazleak:

- *Testuaren xedea identifikatzen du.*
- *Testuaren igorlea antzematen du.*
- *Igorlearen asmoa identifikatzen du.*
- *Erabilitako hizkuntza-aldaera antzematen du.*
- *Testuaren generoa antzematen du.*

8.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) proposatutako helburuei erantzuteko garrantzizko informazioa hautatzea.

Adierazleak:

- *Irakurketaren helburua identifikatzen du.*
- *Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.*
- *Berariazko informazioa antzematen eta identifikatzen du.*
- *Jasotako informazioa proposatutako helbururako erabiltzen du.*

9.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) edukia interpretatzea.

Adierazleak:

- *Testuaren edukia berak dituen ezagutzen argitan interpretatzen ditu.*
- *Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.*
- *Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.*
- *Diskriminaziozko esaerak antzematen ditu.*

10.- Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) ulermena hobetzeko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Testuaren edukiari aurrea hartzen dio.*
- *Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.*
- *Ulermenean arazoak antzematen ditu.*
- *Ulermena hobetzeko beste hizkuntza batzuetako ezagutzak erabiltzen ditu.*

DIMENTSIOA: MINTZAMENA

11.- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) ekoizteko.

Adierazleak:

- *Hartzailearen ezaugarriak kontuan izaten ditu.*
- *Testuaren xedea kontuan izaten du.*
- *Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.*
- *Egoerari begira erregistro egokia hautatzen du.*
- *Testu-genero egokia hautatzen du.*

12.- Hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) planifikatzen hastea.

Adierazleak:

- *Informazioa hainbat euskarritan bilatzen du.*
- *Lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du.*
- *Diskurtsoa egituratzen du.*

13.- Hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) erabiliz egoki mintzatzea.

Adierazleak:

- *Argi eta ekarri egokiaz mintzatzen da.*
- *Elementu prosodiko eta keinuzkoak erabiltzen ditu.*
- *Testu-generoaren berezko ezaugarriak errespetatzen ditu.*
- *Diskriminaziozko esaerak saihesten ditu.*

14.- Hizkuntzaren hainbat alorretako ahozko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (albisteak, solasaldiak, argibideak, deskribapenak, esperientzien kontakizunak, narrazioak...) ekoiztean kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Ekoizpena arautzeko estrategiak erabiltzen ditu.*
- *Autoebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu.*
- *Ekoizpen-prozesuan autonomia agertzen du.*

DIMENTSIOA: IDAZMENA

15.- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izatea hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) ekoizteko.

Adierazleak:

- *Bere ekoizpenerako, testuaren xedea kontuan izaten du.*
- *Bere testua hartzailera egokitzen du.*
- *Hizkuntza-aldaera egokia hautatzen du.*
- *Egoerari begira erregistro egokia erabiltzen du.*
- *Testu-genero egokia hautatzen du.*

16.- Gidatuta, hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) ekoizteko prozesua planifikatzea.

Adierazleak:

- *Informazioa hainbat iturritan bilatzen du.*
- *Lortu nahi den helbururako garrantzizko informazioa hautatzen du.*
- *Testuaren edukia eta forma planifikatzen eta egituratzen ditu.*

17.- Hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoen bidez (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) adierazi beharrekoa modu egokian adieraztea.

Adierazleak:

- *Testua egoki eta zuzen aurkezten du.*
- *Askotariko hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu.*
- *Diskriminaziozko esaerak erabiltzea saihesten du.*

18.- Hizkuntzaren hainbat alorretako idatzizko testu soil eta ikasleen interesetatik gertukoak (ikasgelako arauak, gutunak, zuzendariari gutunak, arau orokorrak, ipuinak, narrazio laburrak, eskola-entziklopediak, hezkuntzako web orriak, albisteak, oharrak...) ekoiztean kontroleko eta autoebaluazioko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Ekoizpena arautzeko estrategiak erabiltzen ditu.*
- *Autoebaluazio-estrategiak erabiltzen ditu.*
- *Testua ekoizteko eta berrikusteko prozesuan autonomia agertzen du.*

DIMENTSIOA: AHOZKO ELKARREKINTZA

19.- Ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean eguneroko bizitzan ohikoak diren komunikazio-trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzea.

Adierazleak:

- *Naturaltasunez esku hartzen du eta aktiboki entzuten du.*
- *Komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izaten ditu.*
- *Informazioa eta azalpenak modu ordenatu eta egokian ematen ditu.*

20.- Ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean eguneroko bizitzan ohikoak diren komunikazio-trukeetan arau soziokomunikatiboak errespetatzea.

Adierazleak:

- *Hizkuntza-moldeak errespetatzen ditu.*
- *Besteen esku-hartzeak errespetatzen ditu.*
- *Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.*
- *Adei-legea kontuan izaten du.*
- *Diskriminaziozko esaerak saihesten ditu.*

21.- Ikasgelan, ikastetxean eta ingurunean eguneroko bizitzan ohikoak diren komunikazio-trukeetan komunikazioari eusteko estrategiak erabiltzea.

Adierazleak:

- *Komunikazioari eusteko konpentsazio-estrategiak erabiltzen ditu.*

e) Arloen ekarpenak Hizkuntza-Komunikaziorako Gaitasuna garatzeko

	ARLOAK	EKARPENAK
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA	EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, ATZERRIKO HIZKUNTZA	- Hainbat testu ulertzeko eta sortzeko ahalmena garatu, modu koherente, kohesiodun eta zuzen batean. Testu horiek fase honetakoak propio diren komunikazio egoeretara egokituta daude. - Hizkuntzaren inguruko hausnarketa prozesuak; adibidez hainbat hizkuntzatara hedatu daitezkeen ikasketak.
	MATEMATIKA	- Matematika-hizkuntzaren funtsa ohiko hizkuntzan sartzea eta zehaztasun egokiz erabiltzea. - Arrazoibideen eta prozesuen ahozko deskribapena: Adierazten laguntzea eta besteen azalpenak entzunaraztea da kontua, ulermena, kritikotasuna eta komunikaziorako trebetasunak hobetzen laguntzen baitu.
	ARTE HEZKUNTZA	- Hizkuntza integratzen duten produkzio plastiko edo musikalen analisia eta sorkuntza: publizitatea, bideojokoak, irudiak, abestiak... - Hiztegi espezifikoa. - Ahotsarekin lotutako gaitasunen garapena, arnasketa, ahoskera edo artikulazioa. - Hainbat testu moten erabilera: deskribapenak, argudiozko testuak...
	GORPUTZ HEZKUNTZA	- Hiztegi espezifikoa. - Gorputz-adierazpena sentimenen, ideien eta mezuen komunikazioak egiteko, gorputz-mintzairaren bitartez: soinuak, hitz gabeko mintzaira, sortze-adierazpenak, dramatizazioa.
	NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA	- Hiztegi espezifikoa. - Hainbat testu moten erabilera: deskribatzaileak, azalpenezkoak, aginduzkoak, argudiozkoak, elkarrizketak...
	HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA	- Erabili eztabaida, arrazionala beti ere, eta lankidetza: entzun, azaldu eta argudiatu. - Ahozko zein idatzizko hizkuntza erabili sentimena, ideiak eta iritziak komunikatzeko. - Hainbat iturrietatik datozen mezuen balorazio kritikoa egin, esplizituak eta inplizituak, bereziki publizitatetik eta komunikabideetatik. - Hiztegia aberastea: gai sozialen analisiak berezkoak dituen termino eta kontzeptuak ezagutu eta erabili.

1.2 . MATEMATIKARAKO GAITASUNA

a) Justifikazioa

Aldaketa-unearen garaia da gurea; hau da, garai bateko ezaguera nahiko egonkorretatik jakintza izugarri konplexu, ugari eta etengabe aldatzen ari diren garaira ari gara igarotzen. Egun, ezagutzaren gizarte berri honetan, komenigarria da hiritarrek gutxieneko zientzia- eta matematika-kultura izatea. Horiek barneratzea eta eguneratzea alfabetatzea edo lau erregela ospetsuak jakitea bezain nahitaezkoa bilakatu da. Gogoan izan behar da kultura abstrakzio bat dela, *constructo social* deitutakoa, talde bereko gizakiek oinarri teoriko berbera erabiltzen dutela. Hiritar gehienek, herrialde guztietakoek, gero eta gehiagotan erabili behar izaten dituzte beren eginkizunetan kontzeptu kuantitatiboak, espazioaren ingurukoak, adierazteko kontzeptuak, interpretatzekoak, arrazoitzekoak, probabilitatearen ingurukoak eta matematikaren alorreko beste batzuk. Ez gara erabiltzeko edo aplikatzeko diren matematikaz bakarrik ari, baita matematika hezitzaileaz ere, garapen intelektuala bultzatzen duelako, eta, besteak beste, honako gaitasun hauek sustatzen dituelako: abstrakzioa, orokortasuna, gogoeta egitearekin lotutako pentsamendua eta arrazoibide logikoa. Hortaz, behar bezala lan egiteak gogamen-egiturak eta lan-ohiturak sortzen laguntzen du, eta horiek duten erabilera eta garrantzia ez da matematikaren arlora bakarrik mugatzen. Horrenbestez, ondo informatuta dauden pertsonak, inguruko informazioarekiko kritiko direnak, arrazoitzeko gai direnak, zientzia-ezagutzak aintzat hartzen dituztenak, kodeak interpretatzeko gai diren pertsonak, diru-kontuko tratuetan iruzur egingo ez dioten pertsonak behar ditugu; hau da, matematika balioesten, erabiltzen eta matematikarekin gozatzen dakiten pertsonak behar ditugu.

Aldaketa horiei aurre egiteko eta jarrera aktiboa dutela ezagutzaren gizarte berri honetan parte hartzeko, nahitaezkoa da matematikan behar bezala alfabetatzea; izan ere, horrela lortuko dute ikasleek eremu eta egoera anitzetako matematika-programak osatzen, formulatzen edo ebazten ari direnean, gai izatea aztertzeko, arrazoitzeko eta eraginkortasunez komunikatzeko. Gaitasun horietan maila ona badu ikasleak, matematikarako ere gaitasuna izango du. Azken batean, ikasleak matematika-ideiak dituztela pentsatzera ausartzea nahi dugu eta, halaber, eguneroko bizitzako eremu guztietan erabiltzea matematika.

b) Definizioa

Matematikarako gaitasuna honi esaten zaio: zenbakiak erabiltzeko eta horiek lotzeko, oinarrizko eragiketak egiteko, ikurrak eta horiek adierazteko moduak erabiltzeko eta arrazoinamendu matematikoak erabiltzeko trebetasunari, eta, hartara, hainbat informazio-mota ekoitzi eta hura interpretatu ahal izateko, errealitatearen alderdi kuantitatiboei eta espaziokoei buruz gehiago ikasi ahal izateko, eta eguneroko bizitzarekin eta lan-arloarekin zerikusia duten arazoei aurre egin ahal izateko.

Hona hemen matematikarako gaitasunarekin zerikusia duten alderdiak:

- Informazioa, datuak eta argudioak *garbi eta zehatz interpretatzeko eta adierazteko trebetasuna*, bizitza osoan ikasten jarraitzeko aukera gehiago izateko.

- *Oinarrizko matematika-elementuen ezaguera eta erabilera* (besteak beste, zenbait zenbaki-, neurri- eta ikur-mota, eta geometria-elementuak) eguneroko bizitzako benetako zein fikziozko egoeretan.

- Arazoei aurre egiten edo informazioa lortzen laguntzen duten *arrazoitzeko prozesuak* praktikan jartzea.

- Matematika-elementuak edo oinarrian matematika duten informazioarekiko edo egoerekiko *aldeko jarrera eta pixkanaka-pixkanaka segurtasun eta konfiantza gehiago* izatea, bai eta matematika erabiltzearekiko ere, egoerak hala eskatzen duenean; horretarako, abiapuntu hartzen dela errespetua eta ziurtasunarekiko nahia, eta ziurtasuna lortzeko arrazoinamendua erabiltzen dela.

Lantzen ari garen gaitasunak balioa eta zentzua du, baldin eta matematika-elementuak eta -arrazoinamenduak eguneroko egoerei aurre egiteko erabiltzen badira, hala eskatzen dutenean egoerek. Horrenbestez, derrigorrezko hezkuntzan matematika garatzea lortuko da, matematika-ezaguerak eguneroko bizitzako eta beste ezagutza-eremuetako askotariko egoeretan berez, bat-batean aplikatzen diren heinean.

Matematikarako gaitasuna garatzeak esan nahi du matematika-elementuak eta -arrazoinamenduak erabiltzea —eremu pertsonalean eta sozialean— informazioa interpretatzeko eta sortzeko eta, hala, eguneroko egoeretan sortzen diren arazoei aurre egiteko eta erabakiak hartzeko. Azken batean, matematika-arrazoinamenduak egiten, matematika-argudioak ulertzen eta matematika-hizkuntzan komunikatzen laguntzen duten trebetasunak eta jarrerak aplikatzean datza; eta horretarako, tresna lagungarriak erabilita, eta matematika-ezaguerak beste ezaguera batzuekin lotuta, bizitzako egoera konplexu guztiei aurre egin ahal izateko.

c) Matematikarako gaitasunaren dimentsioak

Matematikarako gaitasuna "**dimentsioak**" deituriko multzo handietan dago egituratua. Dimentsio horietako bakoitzak **azpi-gaitasun** batzuk ditu, eta azpi-gaitasun horietako bakoitzerako **ebaluazio-irizpideak** ezarri dira; azken horiek, hain zuzen, ikasleak egin beharko lituzkeen zeregin zehatzak dira, gaitasuna lortu duela erakusten dutenak. Adierazle horiek garbi ezartzen dute ikasleak zer jakin behar duen eta zer egiten jakin behar duen.

Matematikarako gaitasuna **DIMENTSIO** hauetan egituratu da:

- ***KOPURUA***
- ***ESPAZIOA ETA FORMA***
- ***ALDAKETAK, ERLAZIOAK ETA ZIURGABETASUNA***
- ***PROBLEMEN EBAZPENA***

KOPURUA

Kopuruaren dimentsioak hauei buruzko alderdiak hartzen ditu bere baitan: zenbaki kontzeptua, zenbaki-adierazpena, eragiketen esanahia, zenbakizko magnitudeak, matematika-kalkuluak eta iritzirako kalkuluak. Horiezaz gain, tamaina erlatiboa ulertzeko alderdiak ere hartzen ditu, zenbakizko jarraibideak eta benetako objektuen neurria jakitea, bai eta objektu horiek berek dituzten ezaugarriak kuantifikatzen eta zenbakien bidez adierazten jakitea ere.

ESPAZIOA ETA FORMA

Dimentsio honek geometria-eremuarekin zerikusia duten alderdiak hartzen ditu bere baitan, baina modu integratzailean eta aplikazioa kontuan hartzen dela; hau da: objektuen kokapen erlatiboa ulertzea; espazioaren barrena eta eraikuntzen barrena mugitzen ikastea eta formak ikastea; formen eta irudien edo ikusizko adierazpenen arteko erlazioak ulertzea, etab.

ALDAKETAK, ERLAZIOAK ETA ZIURGABETASUNA

Dimentsio honek elementu hauek hartzen ditu: erlazio errazen bidez deskriba daitezkeenak eta zenbaitetan oinarrizko matematika-funtzioen bidez adieraz daitezkeenak. Ziurgabetasunari buruzko elementuak lotura du datuekin eta ausarekin; bi elementu horiek matematikan ikasten dira, estatistika eta probabilitatea lantzen direnean, hurrenez hurren.

PROBLEMAK PLANTEATU ETA EBATZI

Dimentsio honetan problemen ebazpena izenekoarekin lotura zuzena duten alderdiak sartzen dira; hau da: benetako egoerak matematika-eskemetan edo ereduetan adieraztea; hainbat problema-mota planteatzea, egitea eta definitzea (matematikakoak, aplikatuak, erantzun irekikoak, itxikoak, etab.); estrategia egokiak erabilita hainbat problema-mota ebaztea eta lortutako emaitzak egiaztatzea.

Aldi berean, dimentsio bakoitza **AZPIGAITASUN** batzuetan zertzen da:

DIMENTSIOAK ETA AZPIGAITASUNAK

DIMENTSIOA: KOPURUA

1. Oinarrizko zenbakizko ezaguerak erabiltzea, eguneroko bizitzako hainbat egoeratan sortzen diren mezuak eta informazioa interpretatzeko, ulertzeko, sortzeko eta komunikatzeko, eta, halaber, zenbakizko arrazoinamenduko egoera korapilatsuei aurre egiteko.

2. Zenbaki arruntekin kalkuluak egitea, oinarrizko eragiketen esanahia eta propietateak erabilita eta kalkulu-mota egokiena zein den segurtasun osoz aplikatuta.

3. Neurriaren eta haren magnitudeen ezaguera aplikatzea, neurriarekin zerikusia duten zenbakizko testuak interpretatzeko eta ulertzeko, iritzirako kalkuluak eta benetako neurketak egiteko eta adierazteko, eta eguneroko bizitzako hainbat unetan sortzen diren egoera problematikoei aurre egiteko.

DIMENTSIOA: ESPAZIOA ETA FORMA

4. Oinarrizko geometria-nozioak eta espazioa adierazteko sistemak erabiltzea, espazio fisikoari buruzko informazioa interpretatzeko, ulertzeko, sortzeko eta komunikatzeko, eta orientazioko eta adierazpen espazialeko hainbat problema ebazteko.

5. Forma eta erlazio geometrikoen ezaguera erabiltzea, eguneroko egoerak interpretatzeko, deskribatzeko eta ebazteko.

DIMENTSIOA: ALDAKETAK, ERLAZIOAK ETA ZIURGABETASUNA

6. Datuak interpretatzearekin eta horiek antolatzearekin zerikusia duten problema errazak formulatzea eta ebaztea.

DIMENTSIOA: PROBLEMAK EBAZTEA

7. Hainbat problema proposatzea eta ebaztea, gehienez zenbaki arrunteko bi eragiketa aplikatuta, ebazpenean zenbait estrategia eta prozedura erabilita, kalkulagailua barne; eta egindako prozesua ahoz eta idatziz adieraztea.

8. Problema-egoera irekiak, matematika-ikerketak eta lan-proiektu txikiak ebaztea, horretarako, zenbait estrategia erabilita, eta ikaskideek elkarri lagunduta; eta ebazpenean erabilitako prozesua eta ondorioak ahoz azaltzea.

d) Gaitasunaren deskripzioa LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILARAKO

Eztabaidagai da Oinarrizko Gaitasunen osagaiak etapaka edo mailaka deskribatu behar diren ala ez. EUROPAKO MARKOAren proposamenak berak ohartarazten du, oinarrizko gaitasun gehienei dagokienez, oinarrizko garapen mailaren eta maila aurreratuaren arteko bereizketa egitea, agian, ez dela hain adierazgarria. **Gainera, arriskua dago deskribapen hori curriculum paralelotzat hartzeko.**

Baina Oinarrizko Hezkuntzako etapetan zehar garatu beharreko gaitasunen deskribapen sekuentziatuari dagokionez, zuhurtziaz jokatzeko aholku hori egin den arren, diagnostiko-ebaluazioari lotutako proben erreferentziazko tresnatzat jo da. Hori dela-eta, aurkezten den deskripzioa irizpide berberen arabera gauzatu da oinarrizko gaitasun guztietarako.

DIMENTSIOA: KOPURUA

1. Oinarrizko zenbakizko ezaguerak erabiltzea, eguneroko bizitzako hainbat egoeratan sortzen zenbakizko mezuak eta informazioa interpretatzeko, ulertzeko, sortzeko eta komunikatzeko eta, halaber, zenbakizko arrazoinamenduko egoera korapilatsuei aurre egiteko.

Adierazleak:

- *Zenbakiak irakurtzen eta idazten ditu.*
- *Zenbakiak alderatzen eta ordenatzen ditu.*
- *Zenbakiak konposatzen, deskonposatzen eta biribiltzen ditu.*
- *Adierazpen grafikoak ulertzen ditu, oinarrizko zatikiak irakurri, idatzi, alderatu eta ordenatzen ditu.*
- *Zenbakizko segida errazak identifikatzen, egiten eta osatzen ditu.*
- *Hainbat zenbakizko testuetan adierazten diren zenbaki arrunten eta zatiki errazen balioa interpretatzen du.*
- *Ahoz zein idatziz emandako zenbakizko informazioa eta mezuak ulertu, interpretatu, sortu eta komunikatzen ditu.*
- *Zenbakizko asmakizun eta jolas errazak, eta zenbakizko eta logikako arrazoinamenduko problemak formulatzen eta ebazten ditu.*

2. Zenbaki arruntekin kalkuluak egitea, oinarrizko eragiketen esanahia eta propietateak erabilita eta kalkulu-mota egokiena zein den segurtasun osoz aplikatuta.

Adierazleak:

- *Oinarrizko kalkulu-eragiketen esanahia ulertzen du, bai eta beren arteko propietateak eta erlazioak ere.*
- *Erraz egiten ditu buruz eragiketa automatikoak.*
- *Batuketak eta kenketak buruz egiteko zenbait estrategia erabiltzen ditu.*
- *Biderketak eta zatiketak buruz egiteko zenbait estrategia erabiltzen ditu.*
- *Zenbakiak biribiltzen ditu eta beste zenbakizko propietateak erabiltzen ditu, iritzirako kalkuluak eta kalkuluak egiteko.*
- *Batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak egiteko, algoritmo akademikoak zuzen eta erraz egiten ditu.*
- *Kalkulagailua erabiltzen du kalkuluak egiteko.*
- *Ebazteko metodorik egokiena ausardiaz aukeratzen du eta berak bakarrik (buruz, algoritmoa edo kalkulagailua), eta kalkuluak egiteko erabili duen prozedura garbi azaltzen du.*

– *Zenbakizko asmakizun eta jolas errazak, eta logikako arrazoinamenduko problemak eta eragiketa-problemak formulatzen eta ebazten ditu.*

3. Neurriaren eta haren magnitudeen ezaguera aplikatzea, neurriarekin zerikusia duten zenbakizko testuak interpretatzeko eta ulertzeko, iritzirako kalkuluak eta benetako neurketak egiteko eta adierazteko, eta eguneroko bizitzako hainbat unetan sortzen diren egoera problematikoei aurre egiteko.

Adierazleak:

– *Neurria eta magnitudeak zer diren ulertzen du eta ohiko neurriak eta neurtzeko tresnak ezagutzen ditu.*
– *Neurketak egiten ditu, tresna sinpleak erabilita.*
– *Neurrien iritzirako kalkuluak egiten ditu.*
– *Neurketa-problemak ebazten ditu eguneroko testuinguruetan.*
– *Magnitudeekin eta neurriekin zerikusia duten mezuak eta informazioa interpretatzen eta zentzuz komunikatzen ditu eguneroko testuinguruetan.*

DIMENTSIOA: ESPAZIOA ETA FORMA

4. Oinarrizko geometria-nozioak eta espazioa adierazteko sistemak erabiltzea, espazio fisikoari buruzko informazioa interpretatzeko, ulertzeko, sortzeko eta komunikatzeko, eta orientazioko eta adierazpen espazialeko hainbat problema ebazteko.

Adierazleak:

– *Orientazioarekin eta espazioa adieraztearekin zerikusia duten oinarrizko geometria-nozioak ulertzen ditu.*
– *Kokapenak eta mugimenduak identifikatu, interpretatu eta deskribatzen ditu.*
– *Beste pertsona batek emandako azalpenak abiapuntu hartuta, kokapenak, mugimenduak eta ibilbideak identifikatzen eta adierazten ditu.*
– *Ibilbideak diseinatzen ditu krokis, kale-mapa, plano edo maketa sinpleetan.*
– *Kale-mapa edo plano sinple batean aldez aurretik adierazitako ibilbidea egiten du ezagutzen duen benetako espazio batean.*
– *Espazioaren pertzepzio- eta diskriminazio-ariketak ebazten ditu.*
– *Ezagutzen dituen toki eta eraikinen krokisak, planoak eta maketa sinpleak egiten ditu.*
– *Benetako distantziak neurtzen ditu eta horien iritzirako kalkulua egiten du kale-mapa eta plano sinpleetan eta, horretarako, erreferentzia metrikoak erabiltzen ditu.*
– *Espazioari buruzko arrazoinamendu-problema sinpleak formulatzen eta ebazten ditu, eta erantzuna arrazoitzen du.*

5. Forma eta erlazio geometrikoen ezaguera erabiltzea, eguneroko egoerak interpretatzeko, deskribatzeko eta ebazteko.

Adierazleak:

– *Irudi lauak eta espazioan daudenak, eta horien oinarrizko propietateak eta erlazioak identifikatzen ditu eta ikasi ditu.*
– *Irudiak deskribatu, alderatu eta sailkatzen ditu.*
– *Irudi lauak eta espazioan daudenak adierazi, erreproduzitu eta egiten ditu.*
– *Simetriak identifikatzen ditu.*
– *Formen propietateak kontuan hartzen ditu, eguneroko bizitzako egoerak interpretatzeko eta horiei aurre egiteko.*

DIMENTSIOA: ALDAKETAK, ERLAZIOAK ETA ZIURGABETASUNA

6. Datuak interpretatzearekin eta horiek antolatzearekin zerikusia duten problema errazak formulatzea eta ebaztea.

Adierazleak:

- *Sarrera bikoitzeko koadroetan eta grafiko sinpleetan adierazten diren datuak identifikatzen, interpretatzen eta deskribatzen ditu, eta datuen arteko erlazioak ezartzen ditu.*
- *Problemak formulatzen eta ebazten ditu, sarrera bikoitzeko koadroetan eta grafikoetan adierazitako datuen interpretazioa abiapuntu hartuta.*
- *Sarrera bikoitzeko koadro eta grafiko sinpleak osatzen ditu.*
- *Informazioa biltzearekin, antolatzearekin eta komunikatzearekin zerikusia duten problemak formulatzen eta ebazten ditu.*

DIMENTSIOA: PROBLEMAK EBAZTEA

7. Hainbat problema proposatzea eta ebaztea, gehienez zenbaki arrunteko bi eragiketa aplikatuta, ebazpenean zenbait estrategia eta prozedura erabilita, kalkulagailua barne; eta egindako prozesua ahoz eta idatziz adieraztea.

Adierazleak:

- *Lau eragiketetatik bat edo gehiago egitea beharrezkoa duten eguneroko bizitzako problemak identifikatzen ditu.*
- *Hainbat esanahi, erlazio, arrazoinamendu eta estrategia erabiltzen ditu, problemari dagozkion zenbakizko datuak garbi identifikatu ahal izateko eta problema ebatzi dezaketen eragiketa edo eragiketak hautemateko, eta emaitzak zehatza edo gutxi gorabeherakoa izan behar duen kontuan hartzen du.*
- *Problemari dagozkion eragiketa edo eragiketak aplikatzen ditu, hurbilketaz eta biribiltze bidez kalkulatzen du zein izan daitekeen problemaren emaitza logikoa eta ebazpen-prozesua aukeratzen du (buruz, algoritmoa erabiliz edo kalkulagailuz).*
- *Egindako kalkuluak matematikoki adierazten ditu; emaitza egiaztatzen du, eta ebazpenean erabilitako prozesua argi azaltzen du.*
- *Eragiketa bateko edo biko batuketak egitea eskatzen duten problemak ebazten ditu.*
- *Eragiketa bateko edo biko biderketak egitea eskatzen duten problemak ebazten ditu.*
- *Eragiketa bateko edo biko batuketak egitea eskatzen duten problemak asmatzen ditu.*
- *Eragiketa bateko edo biko biderketak egitea eskatzen duten problemak asmatzen ditu.*
- *Bere ahalmenetan konfiantza duela, saiatua dela eta ekimena duela erakusten du, txukun aurkezten ditu lanak, hobetu nahi duela eta bere kabuz ikasteko gogoa duela eta problemak ebazteko gainerako ikaskideekin lankidetzan aritu nahi duela erakusten du.*

8. Problema-egoera irekiak, matematika-ikerketak eta lan-proiektu txikiak ebaztea, horretarako, zenbait estrategia erabilita, eta ikaskideek elkarri lagunduta; eta ebazpenean erabilitako prozesua eta ondorioak ahoz azaltzea.

Adierazleak:

- *Emaitza irekia duten zenbait ezaugarritako problema ebazten ditu.*
- *Ezaugarri desberdineko galderak, problemak, datuak... asmatzen ditu.*
- *Matematika-ikerketa errazak egiten ditu.*
- *Beste ikaskideekin batera egiten ditu matematika-proiektu txikiak.*
- *Sormena duela eta autonomoa dela erakusten du; gainerako ikaskideekin batera lan egitearen aldeko jarrera erakusten du, prozesuei buruzko azalpenak eman eta ondorioak atera behar direnean gainerakoekin batera aritzen da, eta ikaskideen iritziak errespetatzen ditu.*

e) Arloen ekarpenak Matematikarako Gaitasuna garatzeko

	ARLOAK	EKARPENAK
MATEMATIKARAKO GAITASUNA	EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, ATZERRIKO HIZKUNTZA	- Informazioak, datuak eta argudioak argitasunez interpretatu eta adierazi.
	MATEMATIKA	- Zenbaki mota desberdinak eta bere eragiketak ulertzea. - - Testuinguru desberdinak erabiltzen dira ezagutza matematiko berriak eraikitzeko. - Arrazoibideak garatzea eta kontzeptuen eraikitzea - - Problema baten atzean dauden elementu matematikoak identifikatzea. - Jarduera matematikoan lortutako emaitzen komunikazioa. - Arlokoak diren ezagutza eta trebetasunak hala eskatzen duten egoeretan erabiltzea.
	ARTE HEZKUNTZA	- Problemen ebazpena. Espazioa adierazteko sistemak: forma geometrikoen diseinua, objektuen diseinua, neurri eta posizioen erabilera, pertsona eta objektuen kokapena espazioan, musika-diskurtsoen denbora-adierazpena, musikaren oinarrizko elementuetan, proportzioak, denbora tarteak eta distantziak erabiltzea... - Artea eta musikaren historia pentsamendu matematikarekin izandako topaketa bezala.
	GORPUTZ HEZKUNTZA	- Espazio eta denbora kontzeptuak, eskemak, planoak... - Denboren, distantzien, ibilbideen, pisuen eta abarren kalkulua.
	NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA	- Mapen irakurketa. - Eskalak ulertu eta egin. - Grafikoak irakurri, irudikatu, interpretatu eta komunikatu. - Neurri-unitateen erabilera. -Problema errazen ebazpena.

1.3. ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA- ETA OSASUN- KULTURARAKO GAITASUNAREN EZAUGARRIAK

a) Justifikazioa

Ezaguera zientifikoa eta teknologikoa funtsezko elementu bihurtu da gizarte modernoen funtzionamendurako; hain zuzen, hala esan dute nazioarteko eta nazioko hainbat erakundek, hezkuntza zientifikoaren eta teknologikoaren garapena mende honetako hezkuntza-helburu garrantzitsuenetakotzat hartu baitute. Esaterako, XXI. menderako Zientziari buruzko Mundu Konferentzian, honako hau adierazi zuten: *"Herrialde batek bertako biztanleen funtsezko premiei behar bezala erantzun ahal izateko, zientzien eta teknologiaren irakaskuntzak baldintza estrategikoa izan behar du (...). Gaur, inoiz baino gehiago, beharrezkoa da kultura guztietan eta gizarteko sektore guztietan alfabetatze zientifikoa sustatzea eta zabaltzea (...), ezaguera berrien aplikazioei buruzko erabakiak hartzean herritarren parte-hartzea hobetzeko".* Mezu hori bera beste dokumentu ofizial askotan aurki daiteke.

Gaitasun zientifikoa ezinbestekoa da gazteak egungo gizartean izango duten bizitzarako prestatzeko; hau da, gaitasun horri esker, gizabanakoak erabateko parte-hartzea izan dezake zientziek funtsezko garrantzia duten gizarte honetan. Izan ere, gaitasun horrek inguruan duten mundua ulertzeko ahalmena ematen die, eta, horrela, zentzuz joka dezakete.

Azken batean, gizakiak gutxieneko ezaguera zientifikoa izan behar du bere eguneroko bizitzan topatuko dituen hainbat arazo, egoera eta gai baloratu, ulertu eta horiei aurre egin ahal izateko. Pertsonek ezaugarri zientifiko eta teknologikoak dituzten egoerei egin behar diete aurre, bai norberari dagozkion gaietan, bai komunitateari, nazioari edo munduari dagozkion gaietan; horrenbestez, ikasleak prestatu egin behar dira era horretako egoerei autonomiaz erantzuteko gai izan daitezen, bai eta norberari dagozkion eremuetan erabakiak hartu edota komunitateari eragiten dioten erabaki-hartzeetan parte har dezaten, betiere kontzientziaz eta zentzuz jokatuz eta ondorioetan aurretiaz pentsatuz. Eskolan etorkizuneko herritarrak prestatu behar dira, beren bizitzak aurrera egin ahala etengabe aldatzen ari den gizarte batean moldatu beharko dutenak; izan ere, zientziak eta teknologiak bilakaera dinamikoa izango dute, seguru asko, eta, horrez gain, gero eta eragin handiagoa izango dute gizartean.

Horregatik, ezaguera zientifikoa pertsona guztien oinarrizko kulturaren parte izan behar duen giza jakintzaren barruan dago, gaur egun. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak kultura zientifikoaren, teknologikoaren eta osasun-kulturaren gaitasuna lortzen lagundu behar die ikasleei. Gaitasun horren bidez, ikasleek gai izan behar dute zientziaren izaera eta praktika zientifikoa ulertzeko eta teknologiarekin nahiz gizartearekin dituzten harreman konplexuez jabetzeko; horrez gain, erabaki pertsonalak hartzen eta tokiko eta munduko arazoei buruzko erabaki-hartzeetan kritikoki eta arduraz jokatzen lagundu behar die.

Gaitasun horrek askotan bereizita aztertzen diren hainbat alderdi lotzen ditu, eta, aldi berean, horien ikuspegi orokor bat ematen du. Zientzia, teknologia eta osasunaren baitan, zientziaren oinarrizko printzipioak, eguneroko bizitzan printzipio horiek duten ezarpena, eta pertsonen bizitzan (osasuna, bizitzeko modua, ingurukoekiko harremanak...) nahiz horien inguruan sortzen dituzten aukerak eta ondorioak sartzen dira.

b) Definizioa

Gaitasun zientifikoa kontzeptuarekin honako hau adierazi nahi da: jatorria azaltzean eta bizitzako testuinguruetan parte hartzean, gizakiak ezaguerak eta ikerketa zientifikoa erabiltzeko duen gaitasuna eta nahia.

Kultura zientifikoaren, teknologikoaren eta osasun-kulturaren gaitasunaz ari garenean, berriz, ezaguera zientifikoa eta hainbat helburu lortzeko ezaguera horri ematen zaion erabilera aipatu behar dira; besteak beste, honako helburu hauek lortzeko: arazoak identifikatzea; ezaguera berriak lortzea; naturako sistema eta fenomeno garrantzitsuenak, inguruak gizakiaren jarduera baldintzatzeko duen modua, jarduera horiek ingurumenean dituzten ondorioak, eta zientziaren aplikazio eta garapen teknologikoak azaltzea; norberaren osasuna zaintzean kontzientziaz eta eraginkortasunez jokatzea; eta, azkenik, zientziekin eta horiek eguneroko bizitzako erabaki-hartzeetan duten garrantziarekin lotutako gaiei buruzko probetan oinarritutako ondorioak ateratzea.

Beraz, gaitasun hau ezaguera zientifikoan eta horren erabileran oinarritzen da, ezaguera zientifikoak era ulergarrian eta arduratsuan sortzea, barneratzea edo ezartzea ezinbestekoa den egoeretan modu adierazgarrian jokatzeko aukera ematen baitu; halaber, helburu nagusitzat ditu zientziako eta teknologiako arazoak konpontzea nahiz zientziak eta teknologiak egungo gizartearen bizimoduan duten eragina kritikoki aztertzea.

Gaitasun horri dagokionez, garrantzitsua da “ulermenaren” ideia azpimarratzea, ulertu gabe aplikatzen den ezaguerak zientzien funtsezko irizpidearen aurka egiten baitu, “arrazionaltasunaren” aurka; izan ere, zientzien ezaugarri komuna argitasuna eta koherentzia lortzea da. Ezagutzea eta ulertzea ez dira gauza bera; baina, ezagutzeko ezinbestekoa da irekitasuna, ahalmen bat izatea, aurretiazko ulermen txiki bat. Ezaguera zientifikoa lortzeko behar den ulermen arrazionala (argitasuna eta koherentzia ezinbesteko dituena) aurretiazko ulermen horren desberdina da; hala eta guztiz ere, azken hori hartu behar da oinarri ulermen arrazionala lortzeko eta garatzeko. Zientzia desberdinen artean dauden desberdintasunak direla-eta, ulermen zientifikoak esanahi guztiz desberdinak izan ditzake. Gaitasun zientifikoak, gainera, gertaera zientifikoa ulertzea du xede, eguneroko bizitzan teknologikoki aplikatuz.

“Erantzukizuna" ideiaren ondorioz, ezaguera zientifikoek gizartean duten esanahiari buruzko hausnarketa egin behar da. Dudarik gabe, ezaguerak berezko balioa du, eta, beraz, garrantzitsua da hori garatzea, baita horren aplikagarritasuna aurreikusten ez denean ere; dena den, horren gizarte-dimentsioa ulertzea gero eta garrantzitsuago bihurtzen ari da. Azken hausnarketa horrek kultura zientifikoaren, teknologikoaren eta osasun-kulturaren gaitasunean esku hartzen duen jarrera-multzora gerturatzen gaitu. Zehazki, garrantzi berezia du aurrerapen zientifikoak eragiten dituzten ondorioak baloratzeak, bai eta pertsonen arazoak konpontzeko nahiz osasunean eta ingurumenean ondorioak eragiteko aurrerapen zientifiko horiek ezartzeak ere.

Bestalde, ezaguera zientifikoaren maila desberdinak bereiz daitezke, ezaguera zientifikoaren baitan *zientziaren ezaguera* eta *zientziari buruzko ezaguera* sartzen baitira. Zientziaren ezaguera zientzia-diziplina nagusien bidez egiten den natura-munduaren ezaguera da; horrenbestez, funtsezko kontzeptu eta teoria zientifikoak ulertzea beharrezkoa da. Bestalde, zientziari buruzko ezaguerak zientziako metodoak (ikerkuntza zientifikoa) eta helburuak (azalpen zientifikoak) ezagutzeari egiten dio erreferentzia; hau da, zientziaren ezaugarri bereizgarriak (gizakiaren ezaguera- eta ikerketa-metodo den heinean) eta esperimentaziorako nahiz sormenerako duen joera –

pertsonak zientziarekiko dituen jarrerak eta gai zientifikoetan esku hartzeko duen gogoak zehaztua– ulertzea dakar.

Hain zuzen, gaitasun zientifikoa garatzea jarrera bat eta ikuspegi bat eraikitzea ere bada; hau da, ikerketa sistematikoaren jarrera eta zientziaren ikuspegi berezia barneratzea. Zientziek azaleratzen dituzten eztabaidagaiek, bestalde, natura-ingurunearekin eta gizartearekin harremanetan jartzeko modu desberdinak bultzatzen dituzte; hain zuzen, bi ingurune horietan funtsezkoa da jakiteko nahia eta ulertzeko gogoa izatea. Dena den, zientzia lankidetza eta komunikazioa funtsezko dituen gizarte-jardueratzat hartzen bada, gaitasun zientifikoaren garapena komunikazio-gaitasunaren paraleloa izan beharko da, bai eta balioetan oinarritutako heziketaren paralelo ere; izan ere, gaitasun eta balio horiek talde-lanean aritzeko aukera ematen dute, eta, gainera, aukera hori arrakastatsu bihurtzen dute. Horrek agerian uzten du gaitasun horrek beste batzuekin duen lotura, horiei gainezartzeaz gain osatu egiten baita. Besteak beste, honako hauek dira aipatutako gaitasunarekin lotura estua duten beste gaitasun batzuk: gaitasun digitala eta informazioaren trataerakoa, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, matematika-gaitasuna edo ikasten ikasteko gaitasuna.

Bestalde, lortutako ezaguera zientifikoa errealitatearen irudikapena da, eta irudikapen hori partziala edo osatugabea izan daiteke. Hori dela-eta, ezinbestekoa da gure ezagueraren ziurgabetasuna ulertzea, bai eta egoera problematikoetan erabakiak hartzeko arduraz jokatzea ere.

Ezaguera zientifikoari esker, pertsonek beren osasuna gehiago kontrola dezakete, bai eta hobetu ere; izan ere, kontrol handiago horren bitartez, bizimodu osasungarria izateko ohiturak sustatzen dira, eta, gainera, gaixotasunak eragiten dituzten faktoreak murrizten dira. Halaber, jarduera zientifikoak eta teknologikoak gure ingurumenean dituzten eraginak aztertzen irakasten du. Horri dagokionez, zientziarekin zerikusia duten gaietan parte hartzeko gogoa ere gaitasun zientifikoarekin dago lotuta; hau da, gai zientifikoetarako eta praktika zientifikorako interesa izatearekin eta zientziarekiko, teknologiarekiko, baliabideekiko eta ingurumenarekiko jarrerak agertzearekin. Gaitasun zientifikoaren bidez, gogoeta egiten da gizateriaren arazo handiei buruz eta ikuspuntu pertsonal eta sozialetik erabakiak hartzeko beharrari buruz, garapen iraunkorra lortzeko bidean aurrera egiteko.

c) Zientzia-, teknologia- eta osasun kulturarako gaitasunaren dimentsioak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna bloke handi batzuetan egituratu da, **DIMENTSIO** deituak. Dimentsio horietako bakoitza **AZPIGAITASUN** batzuetan zertzen da, eta azpigaitasun bakoitzerako ikasleak **jakin** eta **egiten jakin** behar duena, bai eta zientzian eta zientziarekiko nolako jarrera duena azaltzen duten **EBALUAZIO-ADIERAZLE** batzuk xedatu dira.

Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna **DIMENTSIO** hauetan egituratuta dago:

- **EZAGUERA ZIENTIFIKOAREN ULERMENA.**
- **NATURAREN ERREALITATEAREN AZALPENA.**
- **IKERKUNTZA ZIENTIFIKOAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIEN AZTERKETA.**
- **EZAGUERA ZIENTIFIKOEN ERABILERA ERABAKI-HARTZEETAN.**

EZAGUERA ZIENTIFIKOAREN ULERMENA dimentsioak zientzietako oinarrizko kontzeptuen ulermena (natura-munduko objektuei eta prozesuei buruzko kontzeptuena) eta horren azpian dauden loturak (hau da, ikus daitekeena kontzeptu abstraktu edo orokorragoekin lotuz, mundu fisikoaren jokaera azaltzen dutenak) multzoa barne hartzen du, halaber, zientzietan garrantzitsuak diren datuen, tresnen eta prozeduren ezaguera aipatu behar da, loturak, alderaketak edota sailkapenak egiteko.

Dimentsio honetan, bestalde, ezaguera zientifikoa eta nozio edo azalpen pseudozientifiko nahiz azientifikoen beste eredu batzuk bereizi dira.

Ikasleek barneratutako oinarrizko kontzeptuak ulertzeak iragazki-lana egiten du naturaren errealitatea azaltzeko

NATURAREN ERREALITATEAREN AZALPENA dimentsioak natura-fenomenoei buruzko oharrak egiteko arrazoiak edo azalpenak eman edo identifikatu behar dira, kasu bakoitzean egokiak diren kontzeptu, lege, teoria edo printzipio zientifikoak erabiliz multzoa barne hartzen du; beraz, ebidentzia eta datuak aztertzea adierazi nahi du. Ebidentzia ikerkuntza zientifikoak edo datu-baseak oinarri hartuta lor daiteke. Dimentsio honetan sartzen dira, halaber, informazioa identifikatzea, interpretatzea, lortzea edo lantzea (testuak, taulak, grafikoak edo zientzia-printzipioen arabera garrantzitsuak diren beste sinbolo batzuk erabiliz); horretarako, kontzeptuak adierazi, informazioa berrikusi, datuak laburtu, hizkuntza egokia erabili, eskemak egin, estatistika-azterketak azaldu, norberaren ideiak argitasunez eta logikaz jakinarazi, eztabaida arrazoitu eta komentario kritikoei behar bezala erantzun beharko zaie.

IKERKUNTZA ZIENTIFIKOAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIEN AZTERKETA dimentsioak ikerkuntza zientifikoaren funtsezko ezaugarriekin lotutako alderdiak multzoa barne hartzen du, hau da: ikerkuntza gidatuko duten galderak proposatzea eta identifikatzea, ikasleek iker ditzaketen hipotesi zientifikoak egitea, aldagaiak kontrolatzea, ikerkuntzak diseinatzea, datuak jaso eta irudikatzea, datuak aztertu eta interpretatzea, ondorioak ateratzea eta egoera berrietan aplikatzea. Halaber, arazo kualitatiboak nahiz kuantitatiboak konpontzearekin lotutako alderdiak hartu dira kontuan, kontzeptuak zuzenean aplikatzea edo estrategikoki erabiltzea eragiten dutenak. Dimentsio honen ezaugarri nagusietako bat teknologia berrien erabilera da, bai informazioa bilatu eta tratatzeko, bai beste tresna batzuk erabiltzeko (kalkulagailuak, sentsoreak...). Datuak biltzeko, tratatzeko eta aztertzeko hardwarea eta softwarea erabiltzea funtsezkoa da ikerkuntza zientifikoan; hala izan behar du, behintzat. Era berean, jarduera zientifikoarekin lotutako zenbait jarrera ezagutzea, baloratzea eta erakustea aipatu behar dira, zehaztasuna eta ordena, esaterako; halaber, aintzat hartu behar da ezaguera zientifikoa une oro aldatu eta berrikusi egiten dela.

EZAGUERA ZIENTIFIKOEN ERABILERA ERABAKI-HARTZEETAN dimentsio honetan, zientziak, teknologiak eta gizarteak erabaki-hartzeetan dituzten loturak eta horiek norbanakoaren testuinguruetan nahiz gizarteko eta munduko testuinguru askotan duten garrantzia aztertu dira, bai eta natura-baliabideen ezaguera eta gizakiaren jarduerek eragindako ingurumen-arazo nagusiak ere; gainera, ezaguera zientifikoa oinarritzat hartuz eta oinarri zientifikoa duten teknologiak aplikatuz erantzun daitezkeen arazo-motak eta era horretan erantzun edo konpondu ezin daitezkeen arazoak bereizi behar dira.

Aldi berean, aipatutako Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasunaren dimentsio bakoitza **AZPIGAITASUN** batzuetan zertzen da, jarraian doan taulan ageri direnak:

DIMENTSIOA: EZAGUERA ZIENTIFIKOAREN ULERMENA

1. Zientzien oinarrizko kontzeptuak natura-munduko sistemekin eta prozesuekin lotzea; hain zuzen, lege, eredu eta teoriak egingo dira, zentzua har dezaten.

2. Zientzietako datuak, gertaerak, tresnak eta prozedurak ezagutzea eta deskribatzea, eta, gero, azalpen zientifikoak emateko nahiz arazoak konpontzeko aplikatzea.

3. Ezaguera zientifikoa eta giza pentsamenduaren beste eredu batzuk bereiztea; gainera, ezaguera zientifikoaren ezaugarritzat hartuko da gerora egiaztapen enpiriko bidez froga daitezkeen iragarpenak egitea.

DIMENTSIOA: NATURAREN ERREALITATEAREN AZALPENA

4. Materia-propietateei eta horren aldaketei eragiten dieten natura-fenomenoak azaltzea, kontzeptu zientifikoak behar bezala erabiliz.

5. Materiaren zikloak eta energiak naturan duen fluxua azaltzea, izaki bizidunek elkarren artean eta ingurunearekin dituzten elkarreraginak kontuan hartuta.

6. Ahozko testuak eta grafikoak, taulak, diagramak eta beste idazkera-sinbolo batzuk dituzten testu idatziak interpretatzea, eta adierazten dituzten loturak identifikatzea.

7. Behatutako objektuak eta fenomenoak deskribatuz, informazioa, azalpenak eta argumentuak ematen dituzten mezuak eta testuak egitea; horrez gain, ezaguera zientifikoak baliatuko dira gertaerak interpretatzeko, edota, bestela, hipotesi, eredu edo teoria bat justifikatuko da.

8. Zientziarekin, teknologiarekin edo osasunarekin lotura duten gizarte-intereseko gaiei buruzko informazio garrantzitsua aurkitzea eta hautatzea, eta, gero, ikuspegi kritikoa erabiliz baloratzea.

DIMENTSIOA: IKERKUNTZA ZIENTIFIKOAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIEN AZTERKETA

9. Jarduera zientifikoarekin lotutako jarrerak –komunitate zientifikoaren lana bideratzen dutenak– ezagutzea, baloratzea eta erakustea.

10. Problema kualitatiboak nahiz kuantitatiboak ebaztea, arrazonamendu zientifikoaren trebetasun bereziak erabiliz.

11. Dokumentazio- eta esperimentu-lan txikiak egitea; horretarako, goi-mailako ezaguera-trebetasunak (esaterako, eskuzkoak) erabiliko dira, eta egoera bakoitzerako egokiak diren segurtasun-arauak errespetatuko dira.

DIMENTSIOA: EZAGUERA ZIENTIFIKOEN ERABILERA ERABAKI HARTZEETAN

12. Dietaren, higienearen eta bizi-estiloaren garrantzia aztertzea, eta osasun ona izatearekin, gaixotasunak prebenitzearekin eta norberaren ongizatearekin lotzea.

13. Gure gizarteko garapen eta aplikazio teknologiko garrantzitsuenak aztertzea, eta zientziak eta teknologiak giza garapenari eta garapen iraunkorrari egiten dioten ekarpena ikuspegi kritikoa erabiliz baloratzea.

14. Gizakiaren jardueren ondorioz ingurumenean sortzen diren arazoak deskribatzea, horren arrazoiak eta/edo ondorioak kontuan hartuta.

d) Gaitasunaren deskripzioa LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILARAKO

Eztabaidagai da Oinarrizko Gaitasunen osagaiak etapaka edo mailaka deskribatu behar diren ala ez. EUROPAKO MARKOAren proposamenak berak ohartarazten du, oinarrizko gaitasun gehienei dagokienez, oinarrizko garapen mailaren eta maila aurreratuaren arteko bereizketa egitea, agian, ez dela hain adierazgarria. **Gainera, arriskua dago deskribapen hori curriculum paralelotzat hartzeko.**

Baina Oinarrizko Hezkuntzako etapetan zehar garatu beharreko gaitasunen deskribapen sekuentziatuari dagokionez, zuhurtziaz jokatzeko aholku hori egin den arren, diagnostiko-ebaluazioari lotutako proben erreferentziazko tresnatzat jo da. Hori dela-eta, aurkezten den deskripzioa irizpide berberen arabera gauzatu da oinarrizko gaitasun guztietarako.

DIMENTSIOA: EZAGUERA ZIENTIFIKOAREN ULERMENA

1. Zientzien oinarrizko kontzeptuak natura-munduko sistemekin eta prozesuekin lotzea; hain zuzen, legeak, ereduak eta teoriak egingo dira, zentzua har dezaten.

Adierazleak:

- *Natura-inguruneko elementu nagusiak identifikatu, eta horien ezaugarri garrantzitsuenak, antolakuntza eta elkarreraginak aztertzen ditu.*
- *Kontzeptu nagusiak adibide espezifikoekin ematen ditu.*
- *Kontzeptu zientifikoak sistema materialen joerekin eta propietateekin lotzen ditu.*
- *Kontzeptuen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatzen eta deskribatzen ditu.*
- *Diagrama eta eskema egokiak erabiltzen ditu, natura-munduko kontzeptuak eta prozesuak azaltzeko.*
- *Informazio garrantzitsua identifikatzen du, zientziaren kontzeptu edo printzipioetan oinarrituta.*
- *Materiaren aniztasuna eta izaten dituen aldaketak sailkatzen eta ordenatzen du, haren ezaugarriak eta propietateak oinarri hartuta.*

2. Zientzietako datuak, gertaerak, tresnak eta prozedurak ezagutzea eta deskribatzea, eta, gero, azalpen zientifikoak emateko nahiz arazoak konpontzeko aplikatzea.

Adierazleak:

- *Animalien bizi-zikloaren faseak kronologikoki ordenatu, fase batzuen izenen sinonimoak aipatu, eta ernalketari, ugalketari eta garapenari buruzko egiazko eta gezurrezko definizioak bereizten ditu.*
- *Gertaera, datu eta prozedura zientifiko garrantzitsuenak identifikatu eta deskribatzen ditu.*
- *Termino zientifikoak, sinboloak, magnitude-unitateak eta eskalak ezagutzen eta erabiltzen ditu.*

3. Ezaguera zientifikoa eta giza pentsamenduaren beste eredu batzuk bereiztea; gainera, ezaguera zientifikoaren ezaugarritzat hartuko da gerora egiaztapen enpiriko bidez froga daitezkeen iragarpenak egitea.

Adierazleak:

- *Iritzi hutsak eta froga jakin batzuetan oinarritutako ebidentziak bereizten ditu.*

DIMENTSIOA: NATURAREN ERREALITATEAREN AZALPENA

4. Materia-propietateei eta horren aldaketei eragiten dieten natura-fenomenoak azaltzea, kontzeptu zientifikoak behar bezala erabiliz.

Adierazleak:

- *Prozesuak azaltzen ditu, eta, horretarako, dagoeneko ezagutzen diren edo erraz ezagutu daitezkeen gertakari batzuk interpretatu eta esparru orokor batean kokatzen ditu; horrez gain, ondorio bat ateratzen du, erraz onar daitezkeen kausa-ondorio loturen arabera.*
- *Sistema baten joera aurreikusten du, sistema horren eredu batean oinarrituta.*
- *Ondorioak modu arrazoituan ateratzen ditu, eredu edo teoria bat oinarri hartuta.*

5. Materiaren zikloak eta energiak naturan duen fluxua azaltzea, izaki bizidunek elkarren artean eta ingurunearekin dituzten elkarreraginak kontuan hartuta.

Adierazleak:

- Ekosistemen arteko berdintasunak eta desberdintasunak zehazten ditu.
- Ekosistema bateko elementuak (bizidunak nahiz bizigabeak) aldatzeak ekosistema horren egonkortasunean dituen ondorioak iragartzen ditu.
- Biodibertsitateak ekosistemen orekarako duen garrantzia onartzen du.

6. Ahozko testuak eta grafikoak, taulak, diagramak eta beste idazkera-sinbolo batzuk dituzten testu idatziak interpretatzea, eta adierazten dituzten loturak identifikatzea.

Adierazleak:

- *Taulak, diagramak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak, eskemak, krokisak eta organigramak irakurtzen ditu, eta horien edukia interpretatzen du.*
- *Egiazko esaldiak aukeratzen ditu, eta, horrez gain, okerrekoak zuzentzen ditu, hainbat mapatako informazioa oinarri hartuta.*
- *Taula bateko datuak aztertu, grafikoak egin eta datuak interpretatzen ditu.*
- *Hainbat egoeratako eta testu ez jarraituetako informazioa bildu, antolatu eta interpretatzen du.*
- *Objektuak espazioan kokatzen ditu, eta irudimenaren bidez batetik bestera mugitzen da, puntu kardinalei erreferentzia eginez.*
- *Plano errazak interpretatzen ditu; horretarako, hain zuzen, grafikoen proportzionaltasuna eta noranzkotasuna hartzen ditu oinarri.*
- *Hainbat binetatan prozesu baten faseak behatu, fase horiek deskribatzen dituzten esaldiak antolatu, beste egoera batzuetan ezartzeko aukerak arrazoitu, eta zenbait objektu edo fenomeno eredu edo teoria horri jarraiki sailkatzen ditu.*
- *Informazioa taulak, fitxak, grafikoak, eskemak eta laburpenak eginez antolatzen du.*

7. Informazioa, azalpenak eta argumentuak ematen dituzten mezuak eta testuak egitea, eta behatutako objektuak eta fenomenoak deskribatzea; horrez gain, ezaguera zientifikoak baliatuko dira gertaerak interpretatzeko, edota, bestela, hipotesi, eredu edo teoria bat justifikatuko da.

Adierazleak:

- Helburu bat lortzeko beharrezko diren pausoak eta zereginak identifikatzen ditu, eta, horrez gain, esperimentu zehatz bat egiteko, tresna erraz bat erabiltzeko, makina bat martxan jartzeko edo prozedura bati jarraitzeko argibide garbiak eta zehatzak idazten ditu; halaber, esperimentu zehatz bat egitean eman diren pausoak deskribatzen ditu.
- Behatutako objektuak eta fenomenoak deskribatzen ditu.
- Azalpen-testuak egiten ditu, eta gertakariak interpretatzeko ezaguera zientifikoak hartzen ditu oinarri.
- Argumentu-testu sinpleak egiten ditu; hain zuzen, hipotesiak, ereduak edo teoriak justifikatzeko ezaguera zientifikoak aplikatzen ditu.

8. Zientziarekin, teknologiarekin edo osasunarekin lotura duten gizarte-intereseko gaiei buruzko informazio garrantzitsua aurkitzea eta hautatzea, eta, gero, ikuspegi kritikoa erabiliz baloratzea.

Adierazleak:

- Teknologiak, zientzian eta osasunean gertatu diren aldaketak identifikatzen ditu.
- Bere informazio-iturriak identifikatzen ditu.
- Informazioa biltzeko tresnen erabilgarritasuna ezagutzen du.
- Irakatsi zaizkion edo ezagutzen dituen hainbat iturritatik informazio garrantzitsua biltzen du.
- Proposatzen zaizkion egoeretatik datuak jasotzen ditu, modu ordenatuan.
- Informazioa alderatu, egiaztatu, antolatu eta sailkatu egiten du.

DIMENTSIOA: IKERKUNTZA ZIENTIFIKOAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIEN AZTERKETA

9. Jarduera zientifikoarekin lotutako jarrerak –komunitate zientifikoaren lana bideratzen dutenak– ezagutzea, baloratzea eta erakustea.

Adierazleak:

- Bere jarduera zientifikoak eta teknologikoak egitean, modu ordenatuan eta proposatutako helburuen arabera jokatzen du.
- Teoriak edo hipotesiak egiaztatzen edo baztertzen dituzten frogak bilatzen ditu.
- Lanean taldean egiten du lan, eta ardurak hartzen ditu.

10. Problema kualitatiboak nahiz kuantitatiboak ebaztea, arrazonamendu zientifikoaren trebetasun bereziak erabiliz.

Adierazleak:

- Aparatuak, ekipoak, tresnak eta gailuak ezagutzen ditu, eta badaki noiz eta nola erabili behar dituen.
- Problemaren aldagaiak eta horien arteko elkarreraginak identifikatzen ditu.
- Aurkitutako soluzioak beste problema batzuk ebazteko baliatzen ditu.

11. Dokumentazio- eta esperimentu-lan txikiak egitea; horretarako, goi-mailako ezaguera-trebetasunak (esaterako, eskuzkoak) erabiliko dira, eta, beharrezkoa denean, laborategietan ohikoak diren segurtasun-arauak errespetatuko dira.

Adierazleak:

- Segurtasun-arauak identifikatzen ditu, aparatuak eta makinak erabiltzean arriskuak saihesteko.
- Makina sinple bat egiteko beharrezko diren materialak behar bezala aukeratzen ditu.
- Helburu zehatz bat duten gailuak edo aparatuak diseinatzen eta egiten ditu.
- Hipotesi sinpleak modu arrazionalean azaltzen ditu, eta, horretarako, behaketak eta datu-bilketak hartzen ditu oinarri.
- Bere lanaren emaitza hasierako helburuarekin edo aurrez zuen hipotesiarekin egiaztatzen du.

DIMENTSIOA: EZAGUERA ZIENTIFIKOEN ERABILERA ERABAKI HARTZEETAN

12. Dietaren, higienearen eta bizi-estiloaren garrantzia aztertzea, eta osasun ona izatearekin, gaixotasunak prebenitzearekin eta norberaren ongizatearekin lotzea.

Adierazleak:

- Elikadura osasungarriaren gizarte-ohiturak eta gaixotasunen aurkako prebentzio-neurriak ezagutzen eta baloratzen ditu.
- Higienearekin, gorputzaren zaintzarekin eta osasunarekin lotutako ohiturak identifikatzen ditu.
- Haztearen eta sexu-bereizkuntzaren ondorioz gorputzean gertatzen diren aldaketak hautematen ditu, eta, horrez gain, pertsonen garapenean gertatzen diren desberdintasunak onartzen ditu.
- Hainbat arrazoi ematen ditu, aldian behin mediku-azterketa egiteak duen garrantzia azaltzeko.

13. Gure gizarteko garapen eta aplikazio teknologiko garrantzitsuenak aztertzea, eta zientziak eta teknologiak giza garapenari eta garapen iraunkorrari egiten dioten ekarpena ikuspegi kritikoa erabiliz baloratzea.

Adierazleak:

- Inguruneko objektu eta baliabide teknologikoak identifikatu, eta pertsonen nahiz gizartearen ongizatea hobetzearekin lotzen ditu.
- Teknologiarekin lotutako alderdietan izan den aldaketa eta bilakaera identifikatzen du.
- Bere eskura dagoen teknologia erabiltzen du eguneroko lanak egiteko.

14. Gizakiaren jardueren ondorioz ingurumenean sortzen diren arazoak deskribatzea, horren arrazoiak eta/edo ondorioak kontuan hartuta.

Adierazleak:

- Gizakiaren jarduerek ingurumenean dituzten ondorioak ikuspegi kritikoari jarraiki baloratu, norberak ingurunean eragiten dituen aldaketei buruz hausnartu, eta gizakiaren jarduerak ingurunearentzat onuragarriak edo kaltegarriak diren esaten du.

- Gizakiak natura-baliabideei ematen dien erabilera adibideen bidez azaltzen du. Horrez gain, badaki baliabideek pertsonen bizitzan garrantzi handia dutela, bai eta gero eta urriago direla ere; beraz, horiek kontserbatzen eta alferrikako kontsumoa saihesten laguntzen du.

- Ingurumenaren degradazio-arazoa ulertzen du, eta, horrenbestez, bere horretan mantentzen eta zaintzen laguntzen du; hau da, ingurumena babesteko eta degradatzea saihesteko konponbideak eta ekintzak proposatzen ditu.

- Ekologiaren oreka babestu eta berreskuratzeko nahiz natura-ondarea zaintzeko aldeko proiektuak eta jarrerak identifikatzen ditu.

e) Arloen ekarpenak Zientzia-, Teknologia- eta Osasun Kulturarako Gaitasuna garatzeko

	ARLOAK	EKARPENAK
ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA- ETA OSASUN- KULTURARAKO GAITASUNA	**EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, ATZERRIKO HIZKUNTZA**	- Mezuen analisia eta bizimodu desberdinen arrazoi eta ondorioak era arrazionalean argudiatzea. - Ezagutzaren eremu desberdinekin lotako hainbat arrazoibideren erabilera ikasgelan.
	MATEMATIKA	- Ingurunearen ulermen eta deskribapen zehatzagoa. - Bistaratzearen garapena (espazioaren kontzeptua bereganatu): eraikuntzak egitea; mentalki formak manipulatzea, planoan eta espazioan; mapak erabiltzea, ibilbideen planifikazioa, planoak diseinatzea, marrazkiak egitea... - Neurria errealitatearen ezagutza hobe bat lortzeko erabiltzen da, errealitate horrekin elkar eragiteko aukerak handitzeko, eta informazio gero eta zehatzagoak bidaltzeko, kuantifikatu daitezkeen inguruneko zenbait aspekturi buruzkoak. - Informazioa interpretatzeko adierazpen grafikoak erabiltzea.
	ARTE HEZKUNTZA	- Ingurunea eta soinu nahiz formadun paisaiak balioestea; espazio naturaletan eta gizakiaren obretan dauden koloreak, lerroak, egiturak, argia edo mugimendua estimatzea. - Metodo zientifikoarekin lotutako prozedurak erabiltzea: behaketa, esperimentazioa, aurkikuntza, analisia, hausnarketa... - Ingurune fisikoaren erabilera sormenerako aitzaki gisa: esplorazioa, manipulazioa, birsortzea... - Teknologiak egiten dituen ekarpenak, informazio eta adierazpenerako tresna gisa. - Sentsibilizazioa kutsadura akustiko zein ikusmenekoaren aurrean
	GORPUTZ HEZKUNTZA	- Norberaren gorputzaren ulermen eta elkarrekintza egokia, mugimenduan edo geldirik, espazio konkretu batean, eta mugimendu aukerak. - Osasuna ulertzea osoko ikuspegi batetik: jarduera fisikoa osasuna zaintzeko ezinbesteko elementu gisa, eta aisialdia betetzeko aukera gisa.
	NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA	- Mundu fisikoa interpretatzea ahalbidetzen duten gaitasunak: ezagutza zientifikoa eraikitzeko erabiltzen den metodoaren zenbait aspektuetara hurbilpena (problemak definitzen jakin, ebazpen posibleak estimatu, estrategiak osatu, ikerketa txikiak prestatu, emaitzak aztertu eta komunikatu) - Gizakiaren elkarrekintza bere ingurunearekin eta bere presentziak lurraldearengan duen eragina, bere jarduerak, burutzen dituen eraldaketak eta horien emaitza bezala agertzen diren paisaiak, garapen iraunkorra: Baliabide naturalen erabilera arduratsua, aniztasun naturala zaintzea, arrazoizko kontsumoa, norbanakoen eta kolektiboen osasuna babestea...
	HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA	- Garapen iraunkorraren kontzeptua tratatu: osasuna, kontsumoa, produkzioa, zientzia, teknologia, gizarte baloreak... - Pentsamolde zientifikoa erabili arazo teknikoen aurrean irtenbide teknikoak proposatzeko.

1.4 GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNAREN EZAUGARRIAK

a. Justifikazioa

Azken aldian, gizarteak bizi izan dituen askotariko aldaketek bultzatuta, eta gizarteak hezkuntza-sistemei egiten dizkien eskakizunen ondorioz, aldatu egin da hezkuntza-eredua. Gero eta prestakuntza osoagoa eman nahi zaie ikasle guztiei, oinarrizko gaitasun batzuk eskuratuko dituztela sustatu eta bermatzeko; izan ere, hezkuntza-sistemak geroko herritarrak izateko prestatu nahi ditu egungo ikasleak.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lotura zuzena du pertsonen prestakuntza osoarekin, norberaren nortasuna eta komunitatearena eraikitzea baitu xede. Ikasleen ezaugarriek berebiziko eragina dute eskolako ikastaldian eta bizitza guztian ikasteko prozesuan. Gaitasun honek gizadiaren partaide izatearen sena garatu nahi du ikasleengan, bi alderdi hauetatik begiratuta: espazioaren ikuspegitik, haren maila guztietan (norberaren herritik hasi eta gizateri osoraino zabalduz); eta giza eskubide unibertsalen babesaren ikuspegitik.

Bizitza osoan zehar ikasteko prozesuaren oinarri-baldintzetako bat da ikasleak behar bezala jabetzea gizarte demokratiko batean bizi direla. Gizartearen ezaugarriak ezagutu behar dituzte ikasleek eta gizartearen dibertsitatearen, erronken eta arazoen berri izan; horrez gain, gogoz parte hartu behar dute gizarte-eremuetan eta eremu politikoetan, printzipio etiko sendoetatik abiatuta. Ikasleek elkartasunezko jokabideak izan behar dituzte, beren osasunaren eta prestakuntzaren ardura hartu behar dute, errespetuz elkarreragin behar dute gainerako pertsonekin eta ingurunearekin, eta jarrera kritikoa izan behar dute injustiziekiko, oinarrizko eskubideen urraketekiko eta sistema sozial eta politikoaren inperfekzioekiko.

b) Definizioa

Gizarteari buruzko jakintzak haren ikuspegi guztietatik erabiltzeko trebetasuna da gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna; betiere, gizarte-gertakariak eta -arazoak aldagarriak diren testuingurutan eta espazio-eskalatan interpretatzeko, horiei dagozkien erantzunak landu eta erabakiak hartzeko, eta beste pertsona eta talde batzuekin elkarreragiteko, indarreko arauak betez.

Gaitasun honen bidez lortu nahi da ikasleek egungo gizarteen eta sistema demokratikoaren antolamenduari, funtzionamenduari eta eboluzioari buruzko jakintza zehatzak izan ditzaten eta, berariaz, sistema demokratikoaren ezaugarriak eta balioak ezagut ditzaten; halaber, trebetasunak lantzea du helburu, inguruneko arazoak identifika ditzaten, beren bizipenak aztertu eta horiei buruzko gogoetak egin ditzaten, garrantzizko informazioa lortu, interpretatu eta balora dezaten, eta, finean, proposamenak lan ditzaten, arduraz eta gero eta autonomia handiagoz bizitzeko. Beste xede batzuk dira gizarte-gertakariei buruzko ikuspegi kritikoa lantzea, gizarte-justizia, dibertsitatearekiko errespetua eta antzeko balio demokratiko eta herritarrak garatzea, eta jarrera gogotsuak izatea ingurukoei entzuteko, elkarrizketatzeko, laguntzeko, parte hartzeko, enpatia izateko, etab. Ikasleak beren nortasunaz jabetzea

eta kontzientzia hori heltzea lortu nahi da, eta horixe bera egitea garaiko gizarteak ageri dituen injustizia, arazo eta desorekekiko.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren eduki-esparrua zehaztean, ikusten da lotura eta elkarreragin handiak dituela beste oinarrizko gaitasun batzuekin. Izan ere, gaitasun horren oinarrizko alderdietako batzuk aztertzean, ikusten da bere baitan biltzen direla ezaugarri hauek: informazioa aztertzea, beste pertsona batzuekin elkarrizketatzea, arazoetarako konponbideak proposatzea, gizarte-gertakarien protagonistak eta interesak identifikatzea eta horien kausak eta ondorioak erlazionatzea. Ildo horretatik, lotura horietako batzuk baino ez ditugu nabarmenduko, aintzat hartuta, orobat, ezaugarri hori bat datorrela oinarrizko gaitasunak sare baten moduan ulertzen dituen ereduarekin. Hala, ikuspegi horren arabera, gaitasun guztiak daude elkarri lotuta eta elkar elikatzen eta laguntzen dira.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren eduki-esparruak bat egiten du zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunaren eduki-esparruaren alderdi hauekin: biek ikertu nahi dituzte zorroztasun zientifikoz gizarte-gertakariak, eta ikuspegi sinplistak gainditzen dituzten planteamenduak egin nahi dituzte. Halaber, ikuspegi ekosistemikoa lantzen dute, gizarteen berezko konplexutasuna ulertzen saiatzeko.

Gaitasun guztiek informazioa erabiltzeko darabilten modua baliatzen du (informazio-iturriak identifikatzea, informazio garrantzitsua hautatzea eta prozesatzea, informazioaren azterketa kritikoa egitea, informazioa berregitea, etab.), baina, batik bat, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunak darabilena.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunarekin lotura estua dute ezaugarri hauek: elkarrizketatzea, entzutea, proposamenak egin eta iritziak ematea, balorazioak egitea, pertsonen arteko trukeak eta harremanak aintzat hartzea, etab.

Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasunarekin partekatzen ditu eduki hauek: ikuspegi kritikoz baloratzea gero eta anitzagoa den gizartearen adierazpen ugariak, nork bere nortasunaren kontzientzia garatzea, gizarteen eboluzioa ulertzea, inguruneko gertakari konplexuei eta gizakien adierazte- eta sortze-modu anitzei buruzko iritzi autonomoak izatea, eta horietan guztietan parte hartzea eta horiez gozatzea.

Ikasten ikasteko gaitasunaren egiturazko printzipioekin lotzen dira, zuzenean, eduki hauek: norberaren autonomia indartzea, nork bere nortasunaren jabetasuna garatzea eta ikaste-prozesuan norberak duen protagonismoa indartzea, eta jarrera intelektualak eta emozionalak erabiltzea.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunarekin lotzen dira gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren funtsezko alderdi batzuk; esaterako, pertsonen balio eta jarrera hauek garatzea: ardura; autonomia; autokritika; ekin-jardunaren jarraikortasuna; norberak dituen aukeren jabetasuna; arriskuak hartzea, alde onak eta zailtasunak aintzat hartuz, etab.

Eta, azkenik, matematika-gaitasunarekin lotzen dira ezaugarri hauek: kantitatezko eta espaziozko informazioa interpretatzea; logika erabiltzea, arazoak aztertzeko; soluzioak bilatzea; pentsamolde abstraktua eratzen joatea; gizarte-gertakarien kantitate-adierazpenei buruzko kalkuluak egitea, etab.

Finean, gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren bidez, ikasleak alfabetatu nahi dira gizarteko eta herritartasuneko jakintza, trebetasun eta balioetan, horiek guztiak eskuratuta, gai izan daitezen informazioa eskuratzeko eta aztertzeko,

arazoak identifikatzeko, informazioa eta proposamenak interpretatu eta baloratzeko, kausen eta ondorioen arteko harremanak egiteko, entzuteko, elkarrizketatzeko, soluzioak jakinarazi eta proposatzeko, eta jarduera-plan koherenteak eta arduratsuak egiteko, bai bere buruarekiko, bai inguruko jendearekiko eta gizateria osoarekiko.

Eskolak inguruneari erreparatzen dio, eta gizartearen eta herritarren bizitzan parte hartzen du, errealitate hori aldatzen laguntzen du, eta ikasle bakoitza aldaketa-prozesu horren protagonista bilakatzen da, bere eguneko bizipen eta jardueren testuinguruan.

c) **Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren dimentsioak**

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna **DIMENTSIOAK** deituriko multzo handietan dago egituratua. Dimentsio horietako bakoitzak **Azpigaitasun** batzuk ditu, eta azpigaitasun horietako bakoitzerako **EBALUAZIO-IRIZPIDEAK** zehaztu dira; azken horiek, hain zuzen, ikasleak egitea espero den zeregin edo eragiketa zehatzak dira, gaitasuna lortu duela erakusten dutenak. Adierazleek argi eta garbi erakusten digute ikasleak zer jakin behar duen eta zer dakien, eta zer-nolako jarrera duen bizitza arduratsua, autonomoa, solidarioa, parte hartzailea eta, besteak beste, ekintzailea izateko, bai bere buruarekiko, bai gainerako pertsonekin dituen harremanekiko. Halaber, horixe bera adierazten dute lanarekiko, osasunarekiko, balio demokratikoekiko, ingurumenarekiko eta beste alderdi batzuekiko.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna hiru **DIMENTSIO** hauetan banatzen da:

- **GIZARTE-ERREALITATEA.**
- **HERRITARTASUNA.**
- **BIZIKIDETZA.**

Dimentsio bakoitzaren ezaugarriak adieraziko ditugu, haien eduki eremua zehaztu eta adibideen bidez bistaratzeko.

GIZARTE-ERREALITATEA

Historiarekin, giza geografiarekin, ekonomiarekin, soziologiarekin eta beste gizarte-zientzia batzuekin zerikusiak dituen oinarrizko kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak bildu dira dimentsio honetan. Egungo gizartea nola sortu den, nola aldatu den eta egun zer funtzionamendu duen azaltzen dituzte horiek guztiek, eta haren arazo nagusiak eta erronka eta zailtasun batzuk ulertzen laguntzen dute. Jakin behar dugu ea ikasleek denboran zehar gertatutako bilakaera baten ondorio moduan ulertzen duten egungo gizartea, eta gai diren ala ez gizarte-esparruetako dibertsitatea hauteman eta azaltzeko. Aztertu behar da ikaslea gai ote den nolabaiteko egokitasunez azaltzeko gizarteko alderdi ekonomikoak, lan-arlokoak, aisialdikoak, kontsumokoak, gizarte-zerbitzuetakoak eta bestelakoak.

HERRITARTASUNA

Gizarte demokratikoetako eskubide eta betebeharrekiko lotutako alderdiak biltzen ditu dimentsio honek; besteak beste, eguneroko bizitza, instantzia publikoak, parte hartze aktiboa eta herritartasunaren egikaritza. Ikaslearen gertuko eremuetatik (familia, lagunartea, eskola) abiatzen da dimentsioaren planteamendua, baina testuinguru zabalagoak ere hartzen ditu, globalizazioaren ondorioak azalarazten dituztenak. Ildo horretatik, bizikidetzaren dimentsio honek bereziki erreparatzen dio giza eskubideen eta haurren eskubideen izaera unibertsalari, eskubide horien erabilera-esparru guztietan, eta, halaber, eskubide horien murrizketak edo urrapenak pairatzen dituzten pertsonen egoerari erreparatzen die.

BIZIKIDETZA

Dimentsio honen ardatza gatazkak aztertzean datza, eta bereziki bultzatzen du haiek ebatzi edo konpontzeko alderdiak. Horrez gain, ikasleek balio-sistema bat eraikitzea eta pertsonen arteko bizikidetza antolatzen duten arauak ezagutarazi nahi ditu.

Balio etikoetan oinarritutako nortasun bat garatzea da dimentsio honen xede-indarretako bat, eta, horrez gain, ikasleek nortasun horretan oinarrituta hartzea beren erabakiak; hala, ikasleek beren gain hartuko dute beren ekintzen erantzukizuna, eta irizpide propioak izan eta autonomiaz jokatuko dute gainerako pertsonekin harremanak izatean.

Dimentsioaren beste alderdi batzuk dira arauak identifikatzea eta haiek sortzeko prozesuak ulertzea, adostea eta bere egitea, gizarte-komunitatearen ongizatea hobetzeko ekarpenak egin ditzaten.

Jarraian, taula batean adieraziko dira dimentsio bakoitzaren **AZPIGAITASUNAK:**

1. DIMENTSIOA: GIZARTE-ERREALITATEA

1.Errealitate historikoaren bilakaera.
2.Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
3.Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
4.Informazioa eta komunikazioa.

2. DIMENTSIOA: HERRITARTASUNA

5.Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
6.Herritartasunaren egikaritza edo erabilera arduratsua.
7.Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.

3. DIMENTSIOA: BIZIKIDETZA

8.Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
9.Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.
10.Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.

d) Gaitasunaren deskripzioa LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILARAKO

Eztabaidagai da Oinarrizko Gaitasunen osagaiak etapaka edo mailaka deskribatu behar diren ala ez. EUROPAKO MARKOaren proposamenak berak ohartarazten du, oinarrizko gaitasun gehienei dagokienez, oinarrizko garapen mailaren eta maila aurreratuaren arteko bereizketa egitea, agian, ez dela hain adierazgarria. **Gainera, arriskua dago deskribapen hori curriculum paralelotzat hartzeko.**

Baina Derrigorrezko Hezkuntzako etapetan zehar garatu beharreko gaitasunen deskribapen sekuentziatuari dagokionez, zuhurtziaz jokatzeko aholku hori egin den arren, diagnostiko-ebaluazioari lotutako proben erreferentziazko tresnatzat jo da. Hori dela-eta, aurkezten den deskripzioa irizpide berberen arabera gauzatu da oinarrizko gaitasun guztietarako.

DIMENTSIOA: GIZARTE-ERREALITATEA

1. Errealitate historikoaren bilakaera

Adierazleak:

- *Gertakari eta prozesu historiko nabarmenenak ezagutzen, interpretatzen eta beren testuinguruarekin lotzen ditu, historiako gizarteak sailkatzen ditu eta aldaketako eta iraupeneko prozesuak identifikatzen ditu.*
- *Gertakari historikoak denbora-lerrotan kokatzen ditu (ardatzak, frisoak, etab.), ohiko denbora-erreferentziak baliatuz (Kristo aurretik eta ondoren, garai historikoak, etab.), eta horien arteko loturak ezartzen ditu (sozialak, ekonomikoak, teknologikoak, politiko-militarrak, artistikoak, etab.).*
- *Arrazoi edo kausa anitzak adierazten ditu historiako gertakariak azaltzeko, horien ondorioetako batzuk deskribatzen ditu eta iraganeko gertakariak baliatzen ditu egungo gizarteko egoerak aztertzeko.*
- *Historia interpretatzeko datu objektiboak balioesten ditu, eta interpretazio mitiko edo deterministetatik bereizten ditu.*
- *Balioetsi egiten du, emakumeek eta gizonek, gertakari historikoen protagonista diren aldetik, gizateriaren aurrerabideari egin dioten ekarpena eta pertsonek, taldeek eta herriek egin duten lana.*

2.Gizartearen funtzionamenduaren eta haren lorpen eta erronken ulermena.

Adierazleak:

- *Egungo gizartearen ezaugarri sozialak eta kulturalak deskribatzen ditu, eta haren dibertsitatea, aniztasuna eta denboran izan duen bilakaera nabarmentzen ditu.*
- *Eguneroko bizitzan eta Euskadiko, Espainiako eta Europako gizarteetan aztertzen ditu gizarte-ezaugarrien, hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, eta balioetsi egiten du haien aberastasuna eta euskal kulturak eta beste kultura batzuek gizateriaren ondareari egiten dioten ekarpena.*
- *Izaera eta helburu anitzak dituzten erakundeak daudela ikusten du (kultura-elkarteak, sindikatuak, gobernuz kanpoko erakundeak, alderdi politikoak, erlijio-taldeak...).*
- *Egungo gizartearen zenbait arazo eta erronka ikusten ditu (populazioa, etxebizitza, indarkeria, lana, xenofobia, gizarte-bazterketa, etab.), horien kausak eta ondorioak lotzen ditu, eta sentikor azaltzen da gizarteko egoera bidegabe edo diskriminatzaileen aurrean.*
- *Gizartearen aldaketen, hobekuntzen eta aurrerabidearen aldeko jarrera irekia du, eta gizarteak izango duen bilakaerari buruzko iragarpenak egiten ditu, bere hipotesiak datuetan oinarrituz.*
- *Ongizatearen gizarteko zenbait elementu identifikatzen ditu eta gizarte-aurrerapenaren adierazpide moduan balioesten.*

3.Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.

Adierazleak:

- *Pertsonen oinarrizko beharrizanak eta horiek asetzeko baliabideak eta bitartekoak ezagutzen ditu, eta eragile eta erakunde ekonomikoen funtzionamendua azaltzen du.*
- *Jarduera ekonomiko nagusien antolamenduaren eta egituraren oinarrizko zenbait eredu aztertzen ditu (tamainaren, sektorearen eta beste erreferentzia batzuen arabera), bere inguruko lanbide ohikoenen ezaugarriak ezagutzen ditu, eta Euskal Herriko eta Espainiako jarduera ekonomiko nagusiak identifikatzen ditu, jarduera tradizionalak eta ekonomia berriarekin lotutako jarduerak bereiziz.*
- *Jakin-mina azaltzen du langile guztiek dituzten oinarrizko eskubide eta betebeharrekiko, laneko segurtasunarekiko eta enpresaburuen ardurarekiko; etengabeko prestakuntzaren, konpromisoaren eta norberaren poztasunaren garrantzia balioesten du; eta laneko esplotazio-, diskriminazio- edo bidegabekeria-mota oro arbuiatzen du.*
- *Kontsumo- eta produkzio-unitate moduan aztertzen du familia, eta ikusten du zer-nolako eragina duten familian bere inguruko gertakari eta arazo ekonomikoek (inflazioa, langabezia, bizitzaren kostua, produktu eta zerbitzuen kalitatea, etab.).*

- *Kontsumoak pertsonei, gizarteari eta ingurumenari sortzen dizkien kalteez eta kontsumoaren esparruan dauden desberdintasun-egoerek dakartzaten galerez jabetzen da, publizitatearen zereginak eta helburuak aztertzen ditu, eta badaki zer onura dakartzaten kontsumo arduratsuak, bidezko merkataritzak eta garapen iraunkor baten bidea jorratzeak.*

4.Informazioa eta komunikazioa.

Adierazleak:

- *Gizarteko gertakariak eta arazoak ezagutzeko eta aztertzeko behar den informazio garrantzitsua hautatzen du askotariko informazio-iturrietatik, bai iturri jarraituetatik (testu idatziak), bai iturri ez-jarraituetatik (mapak, grafikoak, irudiak, etab.).*
- *Gizarte-komunikazioko zenbait komunikabide identifikatzen ditu (prentsa, irratia, telebista, Internet, etab.) eta horien egitekoak deskribatzen.*
- *Informazioa, iritzia eta propaganda (politikoa, publizitatea, etab.) bereizten ditu, eta arbuiatu egiten du informazioaren erabilera engainagarria eta manipulatzailea, eta arbuiatu egiten du hizkuntza eta publizitate-irudi sexistak edo iraingarriak erabiltzea.*
- *Deskribapenezko eta azalpenezko testu jarraitu eta ez-jarraitu errazak idazten ditu, eta horietan gertakari eta prozesu, historiko, sozial, ekonomiko eta bestelakoei buruzko datuak, iritziak, emaitzak, arrazoibideak, ondorioak edo hipotesiak plazaratzen ditu.*

DIMENTSIOA: HERRITARTASUNA

5.Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.

Adierazleak:

- *Erakunde nagusiak ezagutzen ditu, udaletik hasi eta Europar Batasunerainokoak, eta haien egitekoak eta beren lurraldeetan duten antolamendu politikoa eta administratiboa identifikatzen ditu. Bere eguneroko bizitzako jardun-esparru konkretuetan parte hartzen du.*
- *Gizarte demokratikoekiko interesa azaltzen du eta haien ezaugarriak adierazten ditu: askatasuna, berdintasuna, pertsona guztien eskubideekiko errespetua, herritarren betebeharrak, duintasuna, ardura, justizia, elkartasuna eta diskriminaziorik eza.*
- *Ordezkaritza politikoaren eredua aztertzen du, eta, berariaz, eredu horrek biltzen dituen aukera ideologiko anitzak eta alderdi politikoek ordezkatutako interesak.*

6.Herritartasunaren egikaritza edo erabilera arduratsua.

Adierazleak:

- *Herri- eta gizarte-partaidetzako modu zuzenak (batzarrak, bilerak, etab.) eta zeharkakoak (hauteskundeak, etab.) ezagutzen ditu.*
- *Gizarte-partaidetza bideratzen duten elkarteen (kultura-elkarteak, aisialdikoak, boluntarioen elkarteak, sindikatuak, alderdi politikoak, etab.) helburuak, egitura eta ezaugarriak ezagutzen ditu.*
- *Partaidetza politikoa balioesten du, herritarren interesak bideratzeko modu baketsua den aldetik, jarrera kritikoa ageri du parte hartzearekin hotz ageri direnekin, eta indarkeriazko eta demokraziaren aurkako jokabideak arbuiatzen ditu.*
- *Badaki zer garrantzitsua den herritarrek informazio independentea eta anitza eskuratzeko aukera izatea, herritarrei dagozkien gaiei buruzko iritzi propioa osatzeko aukera ematen duten aldetik.*

7.Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.

Adierazleak:

- *Giza eskubide unibertsalak eta haurren eskubideak ezagutzen ditu eta horiek balio eta printzipio demokratikoekin lotzen. Bere inguruko egoerak edo komunikabideetan azaldutakoak aztertzean, arbuiatu egiten du eskubide horiek ez betetzea edo urratzea.*

- *Bera kide den taldeetan gertatzen diren diskriminazioak identifikatzen ditu, diskriminazio horiek pairatzen dituztenekiko interesa azaltzen du eta egoera horiek zuzentzeko bideak erabiltzen eta neurriak proposatzen ditu.*
- *Herritartasuna familian, ikastetxean, kultura- eta aisialdi-esparruetan eta beste esparru batzuetan egikaritzeak dakartzan eskubideak ezagutzen ditu, eta arduraz jokatzen du.*
- *Hainbat balio balioesten ditu (bakezaletasuna eta indarkeriarik eza, giza eskubideak, justizia eta ekitatea, ingurumenaren babesa eta iraunkortasuna, kultura minorizatuen babesa, etab.), eta balio horiekiko konpromisoa adierazten duten elkarte, talde eta organismoak ezagutzen ditu.*
- *Dibertsitatea balioesten du, kultura-aberastasuna dakarren aldetik, mundu-mailako herritartasunarekiko konpromisoa hartzen du eta bere ekintzek mundu osoan duten eraginaz jabetzen da.*

DIMENTSIOA: BIZIKIDETZA

8.Gatazkak ebatzi edo konpontzea.

Adierazleak:

- *Jarrera eraikitzailea azaltzen du gatazken eta horiek konpontzeko prozesuen aurrean, beste pertsonaren lekuan jartzen da eta elkarrizketa eta negoziazioa erabiltzen ditu elkar ulertzeko tresna gisa.*
- *Familia-gatazkak, pertsonenak, tokian tokikoak, nazionalak eta nazioartekoak aztertzen ditu, gatazka horien kausak, ondorioak, interesak, jarrerak eta protagonistak identifikatzen ditu, eta aintzat hartzen ditu pentsamenduen, sentimenduen eta ekintzen dimentsioak.*
- *Konponbideak proposatzen ditu gatazkentzat, horietan parte hartzen duten pertsonen (eragile, biktima eta ikusleen) eskubideen ikuspegitik eta haien beharrizanak asetzeko premiaz ohartuta.*
- *Pertsonen arteko harremanetan gizarte-trebetasunak eta emozioak kontrolatzeko jarrerak identifikatzen eta garatzen ditu.*
- *Desadostasunak eta jarrera kritikoak balioesten ditu, gizarte demokratikoetako bizikidetzaren bidezko oinarriak diren aldetik.*
- *Askotariko gatazkak (etnikoak, sozialak, militarrak, ekonomikoak, ingurumenekoak, etab.) eta arazoak (tokikoak edo mundukoak) konpontzen diharduten erakundeen jarduera aztertzen du.*

9.Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.

Adierazleak:

- *Bere jarrera etikoa eta jokabideak bat datoz bere pentsamenduekin, emozioekin eta denboran zehar eraikitzen joan den balio demokratikoen sistema pertsonalarekin.*
- *Irizpide propioz jarduten du, erabakiak hartzen ditu gizarte-egoeretan eta irizpide kritikoz baloratzen ditu beste erlijio, etnia, sexu, kultura edo ezaugarriko pertsonekiko aurreiritziak eta diskriminazio-jarduerak.*
- *Bere nortasunaren ezaugarriak ezagutzen ditu.*
- *Balioetsi egiten du zer-nolako egitekoa duten diferentzia kulturalek eta pertsonalek bere nortasuna eta balio-sistema eraikitzeko.*

10.Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.

Adierazleak:

- *Elkarbizitza eta bizikidetza-arazoak konpontzeko gizarte-arauak onartzen eta erabiltzen ditu.*
- *Arauak urratzen diren egoerak identifikatzen eta bere gain hartzen ditu, eta urratze horien ondorioak aurreikusten ditu.*
- *Gogoz parte hartzen du bizikidetza-arauak adostasunez sortzeko prozesuetan eta bete egiten ditu guztien artean adostutako konpromisoak.*
- *Ikastetxeko kide sentitzen da, eskola-jardueretan inplikatzen da eta haiekin gozatzen du.*

e) Arloen ekarpenak Gizarterako eta Herritartasunerako Gaitasuna garatzeko

	ARLOAK	EKARPENAK
GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA	**EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, ATZERRIKO HIZKUNTZA**	- Hizkuntza komunikazio-bitartekoa da, eta, sozializazio-prozesuetako funtsezko elementua: pertsonen arteko harremanetan, hainbat helburu lortzeko gizarteko jardueretan, gelan… - Hizkuntza-errepertorioa zabaltzen, hartara arrakastaz molda daitezen gizarteko giro bakoitzean: esanahiak negoziatzeko, ikuspuntuak hurbiltzeko eta, besteak beste, gatazkak konpontzeko. - Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak errespetatzen ikasita eta euskara normaltzearen aldeko jarrera izatea. . Nazioarteko komunikazioak bultzatzea: kanpotik informazioa jasotzea, ideiak trukatzea eta pertsonak elkar ulertzea… . Jarrera ona izatea hizkuntzen aniztasunarekiko. . Munduaren aurreiritzi eta estereotipoak hizkuntzaren bidez nola zabaltzen eta epaitzen diren aztertzea.
	MATEMATIKA	. Gurea ez den beste ikuspegia onartzen ikastea, batik bat, problemak ebazteko estrategia pertsonalak erabiltzerakoan.
	ARTE HEZKUNTZA	- Ikusizko produktuek eta musika-produktuek gizabanakoen eta taldeen nortasuna eratzen laguntzen dute. - Artearen gizarte-erabilerez jabetzea. - Besteen proposamenen errespetua eta oraingo eta iraganeko arte-erantzunen aniztasunaren ulermena. - Musika-jardueretan, jarduera plastikoetan eta ikus-entzunezko jardueretan parte hartzeak sustatzen du: lankidetza sustatzea, ardurak hartzea, arauak eta argibideak betetzea, materialak eta tresnak zaintzea, teknika jakin batzuk ezartzea, eta eremuak behar bezala erabiltzea, talde-lanean akordioa eta adostasuna bilatzea…
	GORPUTZ HEZKUNTZA	Aktibitate fisikoen bidez integrazio eta errespetua lortzeko aukera. - Lankidetza, berdintasuna eta talde-lana: kirol-ekintzen, proiektu komun bezala, antolaketa. - Partehartzaileen ezberdintasun eta beraiezko mugak onartzea. - Erantzunbeharrak hartzea. - Arau eta araudiak betetzea. - Gatazken ebazpena.

	NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERAINGURUMENAR EN EZAGUERA.	- Harreman urbilak (etxekoak, lagunak, ikaskideak, etab.): elkarrizketa, emozio eta sentimenduak, arau-sozialak eta bizitzarako trebeziak... - Urruneko harremanak (auzoa, herria, erkidegoa, estatua, Europar Batasuna, etab.): antolaketa, funtzioak, elkartasuna eta komunitatean parte hartzeko tresnak... - Errealitate soziala: gizonezko eta emakumezkoen elkarlanaren produktua bezalakoa. - Neska eta mutilen arteko berdintasunezko eta kooperatibozko harremanak. - Gizartearen ezaugarriak: aniztasun kulturala, beste kultur batzuen erakarpenak, denboraren zehar gartatu diren aldaketak ... - Abestastasunaren bidezko banaketa. Munduaren elkartasuna.

1.5. GIZA ETA ARTE-KULTURARAKO GAITASUNA

a. Justifikazioa

Giza eta arte-kulturarako gaitasunak, ahalmen fisiko, intelektual eta sortzaileak batzen dituen hezkuntza garatzen laguntzen du, eta hezkuntzaren, kulturaren eta arteen arteko harreman dinamiko eta eraginkorrak sortzea ahalbidetzen du.

Gaitasun horren bitartez, ikasleen eta prozedura artistikoen zein haien kulturako elementuen arteko lotura ahalbidetzen da, eta arteak nahiz kulturak gizakion bizitzan bete duten eta oraindik ere betetzen duten funtzioa ulertzea errazten.

Adierazpen kulturalak kritikoki ezagutu, ulertu, estimatu eta baloratzeko, adierazpen horien eta gizartearen –lanok sortzen diren garaiko pentsamoldearen eta aukera teknikoen– arteko loturak identifikatu behar dira, edota lanaren eta hura sortu duen pertsona edo taldearen artekoak. Bestalde, bizitza kulturalean parte hartzeko eta nork bere gaitasun estetikoak garatzeko interesa agertu beharra dago, eta bakoitzaren zein besteen komunitateetako ondare kultural eta artistikoa kontserbatzen lagundu behar da.

Horrez gain, pentsamoldeen, korronte estetikoen, moden eta gustuen bilakaeraz jabetzea ere ezinbestekoa da adierazpen kulturalak ulertu ahal izateko. Aintzat hartzekoa da, gainera, faktore estetikoek pertsonen eta gizarteen eguneroko bizitzan izan duten garrantzi adierazgarri eta komunikatiboa ere; batez ere, gaur egunean.

Gaitasun horren baitan, pentsaera trebetasun dibergente zein konbergenteak erabili behar dira; izan ere, besteak beste, bakoitzaren zein besteen ideiak eta sentimenduak berregin beharra dago. Bestalde, ulertzeko eta adierazteko iturri, forma eta bideak aurkitu behar dira, baita emaitza jakin batzuk lortzeko beharrezkoak diren prozedurak ebaluatu eta egokitu ere. Azken batean, adieraztea eta komunikatzea zein jasotzea, ulertzea eta aberastea errazten duen gaitasun da, artearen eta kulturaren munduko hainbat errealitate eta ekoizpeni esker.

Halaber, eta jarduera kultural eta artistikoek talde-lana eskatzen dutela kontuan izanda, beharrezkoa da elkarlanerako trebatuta egotea, azken emaitza jakin bat lortu ahal izateko, eta besteen ekimen eta ekarpenak bultzatu eta estimatzearen garrantziaz jakitun egoteko.

Hortaz, gaitasun hori aurrera eramanda, pertsonen garapen integrala susta daiteke, ez baitago etorkizunean artista izango direnak prestatzera berezirik zuzenduta. Sentsibilitatea garatzea eta esperientzia estetikoa zein sormenezko pentsamoldea lantzea proposatzen du, bestelako ezagutza-arloekin lan egiteko estrategiez osatutako proiektuak oinarri hartuta, eta gainerako oinarrizko gaitasunak garatzen lagunduta.

Labur esanda, gaitasun honek esperientzia estetikoa, sormenezko pentsaera eta adierazpen sinbolikoa indartzea eta garatzea helburu duten ezagutzak eta praktikak biltzen ditu; betiere, hainbat eratako adierazpenak ematen dituzten adierazpen materialen zein ez-materialen bitartez, soinuak, irudiak, testuak, gorputzak eta artearekin zein ondarearekin erlazionatzeko ditugun moduak bat eginda. Gainera, adierazpen eta hizkera horiek ekoizpen bereziak sortzeko nahasten dira sarri, eredu akademikoak eta sailkapen artistikoak apurtuta.

b) Definizioa

Giza eta arte-kulturarako gaitasunaz ari garenean, adierazpen kultural eta artistiko ezberdinak ezagutzeaz, ulertzeaz, estimatzeaz eta kritikoki baloratzeaz ari gara, baita hizkera artistikoen oinarrizko teknika, baliabide eta konbentzioak ezagutzea ere esan nahi du, eta haren kodeak erabiltzea, sentimenduak iniziatibaz, irudimenez eta sormenez adierazi ahal izateko.

Hala, gaitasun honek hainbat gaitasun, trebetasun eta jarrera biltzen ditu, ondoko helburu hauek dituztenak:

- Kode artistikoak irudimenez eta sormenez erabilita, sentimenduak adierazi eta komunikatzea.

- Hizkera artistikoen zein ondare kulturaleko lan nagusien teknika, baliabide eta konbentzioak ezagutzea.

- Ondare historiko, artistiko eta kulturala baloratzea, eta hura kontserbatzea zein garrantzitsua den ulertzea.

- Bizitza kultural eta artistikoan parte hartzea, testuinguru guztietan ere.

Hizkera artistikoak irudimenez eta sormenez erabilita sentimenduak adierazi eta komunikatzeko, hizkera horien inguruko oinarrizko ezagutza izan behar da, eta haien funtsa, elementuak, berezitasunak eta kode propioak ulertu behar dira. Hizkera horien oinarriak ezagututa, posible da proiektu eta ekoizpen artistikoak sortzea; izan ere, hezkuntza osatzen duten elementuetako bat dira, eta gure ikasleen garapen pertsonal zein sozialean parte hartzen dute.

Arteak ezagutzeko eta ulertzeko, beharrezkoa da hainbat estilo eta genero artistiko ikastea, eta bakoitzeko artelan espezifikoen bilduma barneratzea. Hain zuzen ere, ulermen artistikoaren muinean, hainbat kontzeptu artistiko aurki ditzakegu: adierazpen artistiko desberdinen ezaugarrien ulermena, edota artistaren, haren lanaren eta haren ingurune kultural, fisiko eta ekonomikoaren arteko harremana.

Ondare kulturala baloratzeko, ondare hori materiala zein ez-materiala izan, obra artistikoetara hurbildu beharra dago, hori osatzen duten elementuetara, eta hainbat garai historikotan sortutako obren eta artista jakin batzuen lanen ezaugarriak ikasi behar dira. Eskola leku egokia da obra horiek ezagutzeko, merezi duten balioa emateko, eta haien berreskuratzea eta kontserbazioa bultzatzeko, baita gizabanakoaren edo taldeko gozamenerako jarduerak antolatzeko ere.
Ondare historiko eta kulturalaren balorazioa lotuta dago nortasun kulturalaren sorrera eta transmisioarekin. Gainera, forma kulturalak ikastearen helburua herrialde edo talde bateko kide izatearen kontzientzia garatzea da.

Gaitasun hau geureganatzeko modu zuzenetako bat eremu akademikoetatik kanpoko bizitza kulturalean parte hartzea da. Hezitzaileek heziketa-prozesuan laguntzeko erabiltzen dituzten baliabideak dira, besteak beste, erakunde kulturalak, museoak, entzunaretoak, zentro kulturalak, arte-galeriak, antzokiak zein industria kulturalek eskaintzen dituzten produktuak (esate baterako, argitaletxeak, musika, zinea, telebista); horiek guztiak bide ezin hobeak dira artearen eta kulturaren esparrura gerturatzeko.

b) Giza eta arte-kulturarako gaitasunaren dimentsioak

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna **DIMENTSIOAK** deituriko multzo handietan dago egituratua. Dimentsio horietako bakoitzak **AZPIGAITASUN** batzuk ditu, eta azpigaitasun horietako bakoitzerako **EBALUAZIO-IRIZPIDEAK** zehaztu dira; azken horiek, hain zuzen, ikasleak egitea espero den zeregin edo eragiketa zehatzak dira, gaitasuna lortu duela erakusten dutenak.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna **DIMENTSIO** hauetan egituratu da:

–**KULTURA ETA ARTEA ULERTZEA**

–**KULTURA ETA ARTEA SORTZEA**

Dimentsio horietako bakoitzak ezaugarri batzuk ditu:

KULTURA ETA ARTEA ULERTZEA

ARTEA ULERTZEKO dimentsioak hainbat oinarrizko ahalmen, ezagutza eta jarrera biltzen ditu, kultura bisualaren produktuak, zein musikarenak, literaturarenak eta eszenikoak behatu, entzun, aztertu, interpretatu eta gozatzeko, produktu horiek arte gisa ezagutzen dugun horren eremukoak izan ala ez.

Bestalde, ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko eta sozialerako beste hainbat alderdi ere aintzat hartu behar dira: balio kulturalen ulermena, interpretazio kritikoa eta estimazioa, hainbat gertaera artistiko edo estetikoren artean harreman konplexuak egiteko gaitasuna, bakoitzaren bizipen estetikoen inguruan eta arteak identitateak finkatzeko duen gaitasunaren inguruan hausnartzeko gaitasuna.

Azken batean, dimentsio honekin esperientzia estetikoak sentitu eta ekoizteko gizakiek duten beharraren inguruan hausnarrarazi nahi da, baita kulturek garatu dituzten askotariko ideia eta tresnen, bete behar izan dituzten funtzio sozialen, eta gure zein besteen bizitzetan duten esanahiaren inguruan ere.

KULTURA ETA ARTEA SORTZEA

ARTEA SORTZEKO dimentsioak ikasleek behar dituzten hainbat oinarrizko gaitasun, ezagutza eta jarrera biltzen ditu, irudien, musikaren, mugimenduen, hitzaren eta beste hainbaten bitartez adierazi, landu, ekoiztu eta komunikatzeko, besteak beste.

Ikasleen eskola-garapenean zein garapen pertsonal eta sozialean parte hartzen dute hainbat alderdik: jasotako produktu artistikoei erantzuteko edo haien inguruko elkarrizketa bat eratzeko diskurtso artistikoak sortu eta ekoizpen pertsonalak lantzeko gaitasuna, jakin-mina eta bilaketa pizten duten zein ideien eta sentimenduen adierazpena ahalbidetzen duten proiektu artistikoak sortzea, bakoitzaren identitatea adieraztea…

Dimentsio honi esker, ikasleek jakin beharko lukete mezu artistiko eguneratuak eta eguneroko bizitzari, gertutasunari lotuta daudenak sortzea denoi dagokigun adierazpen- eta komunikazio-bidea dela, eta ez dela gutxi batzuen ondare izatera mugatzen.

Aldi berean, aipatutako giza eta arte-kulturarako gaitasunaren dimentsio bakoitza **AZPIGAITASUN** batzuetan zertzen da, jarraian doan koadroan ageri direnak:

DIMENTSIOA: KULTURA ETA ARTEA ULERTZEA

1. Adierazpen eta ekoizpen artistikoak identifikatu eta baloratzea, sortu diren garai eta testuinguru kulturalaren barruan.
2. Arteen eta kulturaren produktuei pertsonek eta gizarteek eman dizkieten erabilera eta funtzio sozialak interpretatzea.
3. Herritarren eta kulturen oinarri gisa ondare artistiko eta kulturala osatzen duten elementuak estimatzea, eta haiek kontserbatzen eta berritzen laguntzea.

DIMENTSIOA: KULTURA ETA ARTEA SORTZEA

1. Produktu artistikoak sortzea emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko modu gisa.
2. Hizkera artistikoen inguruko ezagutza nahikoa izatea, adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabili ahal izateko, eta obra artistiko eta kulturaletan identifikatu ahal izateko.
3. Sormen artistikoko prozesuetan beste pertsonekin elkarlanean jardutearen garrantzia baloratzea. .

d. Gaitasunaren deskripzioa LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILAN

Eztabaidagai da Oinarrizko Gaitasunen osagaiak etapaka edo mailaka deskribatu behar diren ala ez. EUROPAKO MARKOAren proposamenak berak ohartarazten du, oinarrizko gaitasun gehienei dagokienez, oinarrizko garapen mailaren eta maila aurreratuaren arteko bereizketa egitea, agian, ez dela hain adierazgarria. **Gainera, arriskua dago deskribapen hori curriculum paralelotzat hartzeko.**

Baina Derrigorrezko Hezkuntzako etapetan zehar garatu beharreko gaitasunen deskribapen sekuentziatuari dagokionez, zuhurtziaz jokatzeko aholku hori egin den arren, diagnostiko-ebaluazioari lotutako proben erreferentziazko tresnatzat jo da. Hori dela eta, aurkezten den deskripzioa irizpide berberen arabera gauzatu da oinarrizko gaitasun guztietarako.

Dimentsioa: KULTURA ETA ARTEA ULERTZEA

1. Adierazpen eta ekoizpen artistikoak identifikatu eta baloratzea, sortu diren garai eta testuinguru kulturalaren barruan.

Adierazpenak:

- *Hainbat adierazpen eta produktu kultural zein artistiko identifikatzen ditu «goi-kultura» gisa ezagutzen dugun horretan zein «herri-kulturaren» esparruan, baita eguneroko bizitzan ikus daitezkeenak ere.*
- *Ekoizpen artistiko eta kulturalen inguruko faktore historiko eta sozialak aztertu eta bereizten ditu, eta berdin lanok sortu diren testuinguruen ezaugarriekin ere.*
- *Euskal Herriko artista batzuk –gizon zein emakume– eta obra eta adierazpen kulturalak ezagutzen ditu, hainbat esparru eta adierazpen formatan; gainera, horietako bakoitza dagokion garai historiko eta testuinguru sozialarekin lotzeko gai da.*
- *Arteen estilo eta joeren ezaugarriak ezagutzen ditu, eta horiek momentu zein ikuspegi estetiko zehatzen osagarri gisa interpretatzeko gai da.*
- *Adierazpen kulturalen inguruko iritziak adierazteko, pertzepzio- eta komunikazio-ahalmenak erabiltzen ditu, eta jarrera egokia du besteen iritziak entzuteko eta barneratzeko.*
- *Aniztasun kulturala eta adierazpen- eta ulermen-era bat baino gehiagoren baterako existentzia baloratzen ditu, eta aberastasun pertsonalari eta bizikidetzari laguntzen dioten motor gisa ulertzen ditu. Bestalde, baztertu egiten ditu genero-, gizarte- eta arraza-diskriminazioarekin lotutako alderdiak.*
- *Errespetatu egiten ditu bere gustuekin bat ez datozen adierazpen kultural eta artistikoak.*
- *Hizkera artistikoen presentzia eta elkarrekintza ezagutzen du (bisuala, musikala, plastikoa, eszenikoa eta literarioa), edozein ekoizpen kulturaletan dela ere (zinema, opera, antzerkia, performanceak…).*
- *Era askotako adierazpen kultural eta artistikoak sortu, bildu, banatu eta ikusterakoan informazioaren eta komunikazioaren teknologiek betetzen duten funtzioa ezagutzen du.*

2. Arteen eta kulturaren produktuei pertsonek eta gizarteek eman dizkieten erabilera eta funtzio sozialak interpretatzea.

- *Hainbat garai historikotako edo kultura desberdinetako obra eta adierazpen artistiko zein kulturaletan ideiak, sentimenduak, emozioak eta abar ulertzeko era bat baino gehiago hautematen ditu.*

- *Denbora eta kultura askotarikoetan, artearen erabilera, funtzio eta esanahiak ulertzen ditu.*
- *Adierazpen kultural eta artistiko zehatz batzuk pentsatzeko erekin, joera estetikoekin eta modekin lotzen ditu, egungo gizartean batez ere.*
- *Obra artistikoak sortu eta irudikatzeko adierazpen-askatasuna baloratzen du; pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatuz, betiere.*

3. Herritarren eta kulturen oinarri gisa ondare artistiko eta kulturala osatzen duten elementuak estimatzea, eta haiek kontserbatzen eta berritzen laguntzea.

- *Ekintza artistikoak eta kultura adierazteko moduak denon ondasunaren eta bere identitate kulturalaren parte gisa identifikatzen ditu.*
- *Euskal kulturaren ondarea osatzen duten adierazpen kulturalak eta obra artistikoak baloratzen ditu, baita euskal gizartean daukagun aniztasun kulturala ere, pertsonentzat aberasgarri delako eta denon arteko elkarbizitzari ekarpena egiten diolako.*
- *Ondare kulturala ikertzen du –hainbat espazio- eta denbora-mailatan–, eta adierazpen artistiko eta kulturalen inguruko informazioa bilatu eta antolatzen du.*
- *Inguruko elkarte, industria eta zerbitzu kulturalek ondarea sustatzeko eskaintzen dituzten jarduerak ezagutzen ditu eta haietan parte hartzen du, hura babestu, baloratu eta berreskuratzeko laguntza emanez.*
- *Era askotako produktu kultural eta artistikoetara jotzeko hautaketa-irizpideak sortu eta aplikatzen ditu, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez banatzen diren produktuen kasuan.*
- *Ikusmenerako eta entzumenerako atsegina eta osasungarria den ingurunea izatearen garrantzia baloratzen du.*
- *Jabetza intelektuala eta produktu artistiko edo kultural baten sortzailearen eskubideak errespetatzen ditu.*

DIMENTSIOA: KULTURA ETA ARTEA SORTZEA

4. Produktu artistikoak sortzea emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko modu gisa.

- *Inguruneko galderei, ardurei, ideiei... erantzuteko lan artistikoak sortzen ditu.*
- *Ideiak birsortzen ditu, besteen ekoizpenak eraldatzen ditu, hainbat produktu artistikoren bitartez soluzio bat baino gehiago proposatzen ditu eta egoeren inguruan galderak egiten ditu.*
- *Proposamen berriak ikertzen ditu, bere sorkuntzetan estereotipo eta konbentzionalismoak gainditzen ditu, eta malgutasunezko, elkartasunezko, interesezko eta errespetuzko jarrera izaten du.*
- *Sorkuntza-prozesuetan IKTek eskaintzen dituzten aukerei arreta berezia jartzen die, bere erantzunak sortzerakoan erregistro-sorta zabaltzeko.*
- *Hizkera artistikoen baliabideek eskaintzen dituzten aukerak ulertu eta bereizten ditu (irudia, testua, soinua, mugimendua…), eta bere sorkuntzetan probatu egiten ditu aukera horiek.*
- *Era arrazoituan planifikatzen du bere lan-prozesua, adierazpen- eta komunikazio-beharren arabera.*
- *Ekoizpen artistikoan jarraitutako ekoizpen-prozesua arrazoituta argumentatzen du.*
- *Bere lan-prozesua baloratzen du, eta emaitza hobea lortzeko egin beharreko aldaketak egiten ditu.*

5. Hizkera artistikoen inguruko ezagutza nahikoa izatea, adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa erabili ahal izateko, eta obra artistiko eta kulturaletan identifikatu ahal izateko.

- *Hizkera artistikoen oinarrizko elementuak ezagutzen ditu, eta ekoizpenetan behar bezala erabiltzen ditu.*
- *Hizkera artistikoek eskaintzen dituzten teknikekin, baliabideekin eta konbentzioekin esperimentatzen du, soluzioak bilatuta eta bere ideiei, sentimenduei, emozioei… erantzuna emango dieten estrategiak aplikatuta.*
- *Ikuspuntu tekniko eta formaletik egokiak diren erantzunak ematen dizkie ekoizpen artistikoei.*
- *Ekoizpen artistikoei zentzua emateko erabili dituen tekniken, tresnen eta materialen hautaketa egoki arrazoitzen du.*
- *Planteatutako arazo artistikoari erantzuna emateko egokiak diren euskarriak, materialak, tresnak eta prozedurak egoki eta sormenez erabiltzen ditu.*
- *Ekoizpen artistiko globaletan (musikaletan, performanceetan, antzerkian, instalazioetan...) agertzen diren adierazpen moduen artean sortzen diren elkarreraginak hautematen ditu, eta komunikazioari egiten dioten ekarpena baloratzen du.*

6. Sormen artistikoko prozesuetan beste pertsonekin elkarlanean jardutearen garrantzia baloratzea.

- *Proposamen artistikoak sortzerakoan talde-lanaren eta taldean egindako proiektuen garrantziaz jabetzen da.*
- *Lan partekatuaren erantzukizuna hartzen du, lankideen ekarpenak errespetatuta.*
- *Taldeko proiektu artistikoan koherentziaz parte hartzen du, hasierako ideiatik hasi eta proiektua bukatu arte.*
- *Taldean obra konplexuak ekoiztu eta planifikatzen ditu, adierazpen eta komunikazio artistikoko hizkera bat baino gehiago erabilita.*
- *Proiektu artistikoak planifikatu eta ekoizteko talde-lanaren dinamika ebaluatzen du.*

e) Irakasgaien ekarpenak giza eta arte-kulturarako gaitasuna garatzeko

	ÁREAS	APORTACIONES
GIZA ETA ARTE-KULTURARAKO GAITASUNA	NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUERA	– Adierazpen kulturalak ezagutzea. – Adierazpen kunturalen aniztasuna balioestea. – Kultura-ondarearen adierazpenak aintzat hartzea eta gozatzea.
	ARTE HEZKUNTZA	– Ulertzen eta ikasten du arte-gertaerek erabilera eta funtzio ugari izan dituztela eta izan ditzaketela hainbat kulturatan. – Hainbat kultura- eta arte-adierazpenetara hurbiltzeko aukera eskeintzea, bai gertuko adierazpenetara, bai beste herri batzuetako adierazpenetara ere. – kultura- eta arte-adierazpenak balioesteko eta ezagueran eta gogoetan oinarritutako iritziak sortzeko tresnak eskuratzea.
	GORPUTZ HEZKUNTZA	– Ideiak eta sentimenduak modu sortzailean adierazteko, gorputzaren eta mugimenduaren aukerak eta baliabideak aztertzea eta erabiltzea. – Kultura-egiteak hautematea eta ulertzea nahiz bertako aniztasuna balioestea, giza mugimenaren kultura-adierazpen espezifikoak, kirolak, tradizioko jolasak, dantza…, ezagutuz eta balioetsiz, eta, horiek herrietako kultura-ondaretzat hartzuz. – Kirola jolasaren eta lehiaren ikuspegitik aztertzea eta jarduera baten eta kultura jakin baten arteko lotura azpimarratzea.
	EUSKARA ETA LITERATURA, GAZTELANIA ETA LITERATURA, ATZERRIKO HIZKUNTZA	– Literatura-obrak irakurtzea, interpretatzea eta balioestea – Literaturaren adierazpenek artearen beste adierazpen batzuekin, hala nola musika, pintura edo zinemarekin duten erlazioa. – Ikus-entzunezko hizkuntzaren osagai esplizituak eta inplizituak kritikoki ulertzea.
	MATEMATIKA	– Harreman eta forma geometrikoak ezagutzeak artelanak eta arte moduak aztertzen eta ulertzen laguntzen du.
	HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZA	– Ikuspegi sozialetik ulertuta, garapen iraunkorra barnean sartzen da, sortze-lan kulturalak eta artistikoak gogoetarako eta ekintzarako objektu bihurtzen direlako. – Balioei eta pertsona arteko komunikaziorako trebetasunei buruzko hezkuntzaren garapena; beste herri batzuen kultura eta adierazpen artistikoen errespetuz.

HAUSNARTZEKO

"Lehengo batean, irakasle gelan norbaitek esan zuen oinarrizko gaitasunen gaia betiko kontua dela, izena baino ez dela aldatu; dena asmatuta dagoela jada eta ez dagoela ezer berririk ".

- **Zer esango zenioke? Zer nolako argudioak erabiliko zenituzke oinarrizko gaitasunek hezkuntza planteamenduetan aldaketa dakartela azaltzeko?**

- **Gaitasun bat hautatu eta beraren dimentsioak aztertu. Zeintzuk lantzen dituzue ikasgelan? Zein dira hainbestetan lantzen ez dituzuenak edo inoiz lantzen ez dituzuenak ? Zergatik? Aipatu hiru arrazoi.**

- **Dimentsio bat aukeratu eta aztertu. Zer garrantzi ematen diozue eskola saioetan berdinen arteko interakzioari? Normalean, astean zehar, eskola saioetako zenbat denbora ematen duzue dimentsio horrek zehazten duena garatzen?**

- **Edozein dimentsioren azpi-gaitasunak aztertu. Zeintzuk lantzen dituzue gelan? Aipatu hiru, normalean lantzen ez dituzuenak. Zer nolako jarduerak proposatuko zenituzkete zuen arloan azpi-gaitasun horiek lantzeko?**

2. ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENENERAKO

a) Orientabide orokorrak

"Esadazu, eta ahaztu egingo dut; erakutsidazu, eta gogoratu egingo dut; baina utzidazu parte hartzen, eta ikasi egingo dut"

(Txinako esaera zaharra)

Oinarrizko gaitasunak Curriculum berrian txertatzeak eragin zuzena du hezkuntzaren praktikan; izan ere, metodologia da gaitasunak garatzeko eragile nagusia.

Gaitasunak arloen irakaskuntza estankotik haratago doaz eta beraien garapena irakasle guztien ardura da. Horrenbestez, denek adostutako eta partekatutako oinarrizko erabaki metodologikoak hartu behar dira. Oro har, **gaitasunen inguruko lanak irakaskuntza transmisiboaren eta ikaskuntza aktiboaren arteko bereizketa nabarmentzen du.**

Ikas-irakas prozesuak lantzeko eta ulertzeko bi modu horiek aspaldi daude hezkuntza munduan. Baina ikaskuntza aktiboari lotutako metodoak aurreko mendearen hasieran garatzen hasi baziren ere (Dewey, Freinet…), **gaur egungo hezkuntzaren praktika, hein handi batean, ezagutzen transmisioan dago oinarrituta.**

Hala ere, gaitasun kontzeptuak berak ematen du berori garatzeko zein den biderik egokiena antzemateko giltza. Gaitasuna garatzea bizitzarako ikaskuntza gauzatzea da, eskolan aurreikusi ezin diren egoerei erantzuteko eta egoera jakin bat ebaztean erabilitako ezagutzak (prozedurazkoak, jarrerazkoak eta kontzeptuzkoak) beste egoera edo arazo desberdin batzuetara transferitzeko. Beraz, badirudi argi dagoela **gaitasunak garatzeko ikaskuntza aktiboa behar dela, ikasleak prestatuko dituen izaten jakin dezaten, egiten jakin dezaten eta ezagutza aplikatzen jakin dezaten.**

Ikaskuntza aktiboa bultzatzeko komenigarria da eta ikasgelan jarduteko modu desberdin eta askotarikoak erabili eta garatzea, baina behar-beharrezkoa da irakasle taldeak oinarrizko gaitasunen garapenari laguntzeko ikasgelako praktiken azpian dauden printzipio pedagogikoen eta metodologikoen gainean hausnarketa sakona egitea

Curriculuma ezartzen duen 175/2007 Dekretuak hezkuntzaren praktika bideratu behar duten printzipio pedagogikoak zehazten ditu[1]

[1] 175/2007 Dekretua,10. artikulua. HAEE, 2007/11/13

(…) hezkuntza proiektuan jasotako printzipioez gain, honako pedagogia- printzipio hauek hartuko dituzte kontuan ikastetxeek:

1**. – Hezkuntza-gaitasun orokorrak jaso behar ditu irakaskuntza eta ikaskuntzako prozesuak, eta kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak biltzen dituzten **oinarrizko gaitasunak lortzea izan behar du prozesu horren xedea.

2. – Lana proiektu osoen bidez eginez gero, erraztu egiten da oinarrizko gaitasunak ikasleei helarazteko bidea eta jakintza-arloen eta irakasgaien arteko diziplinartekotasuna.

***3. –** Ikastetxe-eredua hezkuntza-komunitatera eta, oro har, gizartera irekitzen ari dela, beharrezkoa da ebaluazioaren parte hartzea handitzea.*

4. – (…)

Pedagogia-printzipio horiek **hainbat eratan gauzatu daitezke ikasgelako praktikan, atazen bidez, ikasleen interesguneak kontuan hartuz, proiektuen bidez…** Horrelako edozein eredu didaktikok eragina izango du metodologia aldagaietan, hala nola, denboraren kudeaketan, ikastaldearen antolaketan, material didaktikoetan, ebaluazioan, sortuko diren interakzioetan …

Beraz, ikaskuntza aktiboaren baitan dauden printzipio eta estrategia metodologikoei buruz hitz egin dezakegu. Ondoko Dekalogo honek ikaskuntza aktiboari laguntzeko, eta, horrenbestez, oinarrizko gaitasunen garapena bultzatzeko, irakasleek kontuan hartu behar dituzten zenbait estrategia metodologiko biltzen ditu:

- **Ikasgelan giro egokia sortzea:** entzute-, errespetu- eta lankidetza giora, ikasleen ahalmenak positiboki balioetsiz.
- **Parte-hartzeko estrategiak sorraraztea:** zalantzak adieraztea, jakin-mina bultzatzea, elkarrizketa...
- **Ikaskuntzaren helburua lortzeko motibazioa bultzatzea:** egoera adierazgarriak eta funtzionalak, errealak eta konplexuak planteatzea errealitatetik hurbil daudenak…
- **Ikaskuntza autonomoari laguntzea:** transmisio hutsezko metodoak mugatzea, ikasleei planifikazioan, antolaketan, erabakietan parte-hartzeko aukera ematea…
- **IKTak era esanguratsuan integratzea:** IKTak ikasteko eta ikasitakoa jakinarazteko erabiltzea…
- **Askotariko informazio iturriak erabiltzea era askotako euskarrietan:** informazio iturri askotarikoak erabiltzea; informazio iturritzat testu liburua soilik ez erabiltzea...
- **Ikasitakoa ahoz zein idatziz komunikatzea:** berdinen arteko interakzioa bultzatzea ezagutza eraikitzeko, ikasitakoa azaltzea …
- **Ebaluazio hezitzailea sustatzea:** ikasteko norberak baliatzen dituen estrategiez hausnartzea auto-erregulazio egoerak sortzea, auto-ebaluazioa zein koebaluazioa bultzatzea…

- **Toki eta denbora antolaketa desberdinak faboratzea:** ikasgelako espazioa proiektuaren arabera antolatzea, eskola saioen iraupena malgutzea…
- **Ikasitakoaren funtzionaltasuna eskola esparrutik kanpo bultzatzea:** proposamen globalak egitea oinarrizko gaitasunen garapenari laguntzeko…

Laburbilduz, IKASKUNTZA AKTIBOA BULTZATZEA

Halaber, ikasleek ondokoak behar dituzte:

- Bizitza errealari lotutako ataza esanguratsuetan inplikatu.
- Trebetasunak erabili, egiten ikasteko eta ezagutzak aplikatzeko.
- Aukerak izan deskubritzeko, aurkitzeko, aztertzeko, interpretatzeko, eraikitzeko eta esperimentatzeko.
- Feed-back-a lortu, ikaste-prozesuaren barruan egiten dutena egoera jakinetara eta momentuko beharrizanetara egokitzeko.
- Egiten dutenaz hitz egin eta ikasitakoa jakinarazteko aukera izan.
- Ikasgelan gertatzen denaz eta ikasten dutenaz gogoeta egin
- Ikasitakoa aurretik ikasitakoarekin artikulatu, beren jarduteko eskemak aldatzeko.

Aipatutako zenbait estrategia metodologiko eta oinarrizko gaitasunen garapenari lagun diezaioketen ikasgelako zenbait praktika biltzen ditu ondoko grafiko honek:



b) Berariazko orientabideak, Lehen Hezkuntzan gaitasunak lantzeko

Ikasleen hizkuntza-gaitasunak zenbait testuingurutan lantzen dira, eta horrenbestez, ***Hizkuntza-Komunikaziorako Gaitasuna*** lantzean, kontuan izan behar dira testuinguruak.

Bestalde, **hizkuntza-eremuetan**, ahozko edo idatzizko azken ekoizpena lortzea xede izango duten metodologiak erabiliko dira hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lantzeko. Azken ekoizpenak benetako komunikazio-arazo baten erantzuna izan behar du, eta ekoizpenaren parametroak (zer, nola, zertarako, noiz...) ikasleekin adostu behar dira. Alde horretatik, behar-beharrezkoa da hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan tratamendu bateratua erabiltzea: metodologia koherenteak erabiliz eta irakasleen artean adostuak erabiltzea abiapuntu hartuta, aukera eman behar du askotariko edukiekin lan egiteko, eta hizkuntza baten ikasitakoa besteetara eramaten lagundu behar du.

Gainerako curriculum-arloek eginkizun jakin bat dute hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lantzean; hau, funtsean: ikasteko tresna gisa erabiltzen da hizkuntza. **Arlo batean ikasteak eskatzen du arlo horri lotutako gaien gainean hitz egiten eta idazten jakitea.** Beraz, berariazko lexikoa ezagutzetik haratago, irakasleen ardura da arlo bakoitzeko berezko testuekin eta askotarikoekin lan egitea, bai ahozkoekin, bai idatziekin.

Aurreko ideiaren harira, ahozko elkarrekintzak berebiziko garrantzia du ikasketa sustatzeko eta ezagutza partekatua eraikitzen laguntzeko. «Neska-mutilei ezagutza esanguratsu bihur dezaten laguntzeko, neska-mutilak prestatu behar dira arloko gaiak ezagut ditzaten; eta, horretarako, gai horiek komunikatzen eta eraikitzen dituzten hizkuntza-egiturak ikasi behar dituzte»[2]. Hortaz, guztien artean adostuta, ikasleek beraien artean eta irakasleekin hitz egin, azaldu eta eztabaidatzeko eremuak, uneak, proposamenak eta abar sor daitezen sustatu behar da, ikasleen ezagutza-eskemak aldatzen saiatzeko.

Ikasgelan elkarrekintza eraginkorra lortzeko, funtsezkoa da irakasleek eta ikasleek egin beharreko atazaren antzeko irudia izatea, horrek ikasketan inplikatzeko aukera emango die eta. Horrenbestez, argi eta garbi ezarri behar dira bete nahi diren helburuak eta jarraituko den prozesua. Ikasgelako giroak asko baldintzatzen du: elkarrekintza eta parte-hartzea bultza dezake edo zaildu. Horrenbestez, giro egokia lagungarria ere izan daiteke zenbait jarduera —besteak beste, autoebaluazioa eta koebaluazioa— konfiantzaz eta elkar errespetatuz gauzatzeko.

Ikastetxeari, oro har, dagokionez, hizkuntzen erabilerari buruzko erabaki guztiak eztabaidatu eta adostu behar dira, eta idatziz jasota egon behar dute ikastetxeko dokumentuetan; hala nola, hezkuntza-proiektuan, hizkuntza-proiektuan eta curriculum-proiektuan. Erabaki horiek eragin handia izango dute ikasleen hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna lantzean, gaitasuna asko garatzea edo gutxi garatzea ekarriko baitute.

Hizkuntzak hainbat arlo eta eremutan erabiltzearen gainekoak dira, oro har, ikastetxearen eskumenekoak diren neurri batzuk: ikastetxeko jantokian zein hizkuntza erabiliko den adostea, familiekiko eta inguruarekiko harremanetan zein hizkuntza erabili behar den erabakitzea, ikastetxeko hizkuntza-paisaiak zer-nolakoa izan behar duen pentsatzea eta abar.

---

[2] JORBÁ, GÓMEZ eta PRAT (2000. urtea), *Hablar y escribir para aprender,* Síntesis argitaletxea, 113. or.Madril

Badira Hizkuntza-Komunikaziorako Gaitasuna lantzen laguntzen duten beste neurri batzuk; esaterako ikastetxeko liburutegia ikasteko gune gisa erabiltzea eta hornitzea. Horrek aukera emango du ikasleek irakurzaletasuna gara dezaten eta hainbat motatako informazio-iturriak eskura izan ditzaten sustatzeko. Mota horretako erabakiak zehazteko modu bat irakurmena lantzeko plana egitea da. Planak, ikastetxeko hizkuntzetan, modu bateratuan, irakurmena eta atsegin hartzeko irakurketa lantzera bideratutako helburuak eta jarduerak jasoko ditu. Izan ere, horrek irakurketari lotutako gaitasunak eta trebetasunak Oinarrizko Hezkuntzako osoan garatzeko aukera emango die ikasleei.

Halaber, ikastetxeak teknologia berriak bultzatu behar ditu, teknologiak ikasteko nahiz komunikatzeko eskaintzen dituen aukerak erabil ditzaten ikasleek. Horrez gain, zenbait proiektu abian jarri behar ditu, ikasleei aukera eman diezaien, komunikazio digitalaren bitartez, hizkuntza-gaitasunak hobetzeko eta elkarrekintzan jarduteko, beste herrialde batzuetako ikasleekin, beste mota batzuetako kulturak eta hizkuntzak dituzten ikasleekin.

Horri guztiari lotuta, ikastetxea, gainera, kontu handiz saiatu behar da hizkuntza-aniztasunarekiko eta, bereziki, hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboa sortzen, hizkuntzak ikastean funtsezko eragina baitu horrek. Ikastetxeak planteamendu adostu bat izan behar du, ziurtatuta egon dadin modu integratuan eta osagarrian landuko direla gaur egungo euskal gizartean parte-hartze egokia izateko beharrezko diren hizkuntza guztiak.

Bestalde, ***Zientzia-, Teknologia- eta Osasun-Kulturarako Gaitasuna*** Lantzeko, Lehen Hezkuntzako ikasleek gainditu behar duten oztopo handienetako bat da ezagutza zientifikoa eta teknologikoa ulertzeko zailtasuna, arlo horiek oso abstraktuak baitira. Orobat, zail egiten zaie ezagutza hori egunerokotasunera transmititzea, hau da, eguneroko testuinguru eta egoeretan aplikatzea.

Gaur egun, hainbat ikerketa-ildok egin dituzten ekarpenek aukera eman digute baieztatzeko pedagogiako esku-hartzeak zentzu globalizatzailea buru izan behar duela. Hortaz, ez du testuingurutik atera behar irakaskuntza-ikaskuntza prozesua; hau da, landu beharreko edukiei garrantzia emango dien mintzagai edo muinen baten gainean lan egin behar da. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunak errealitatea interpretatzen laguntzen digu. Horregatik, mintzagaiak ezin dira azaldu testuingurutik at, eta eguneroko bizitzako esperientziekin dituen loturak aipatu gabe. Hori are garrantzitsuago egiten da etapa honetan; izan ere, ingurunea (ingurunetzat ikasleak zuzenean eskura duen eremu fisikoa hartuta) esperientzia-iturri potentziala da, orain.

Alde horretatik, hainbat proposamen nabarmendu behar dira. Alde batetik, proiektuen metodoa: edukiak ikasleentzat egoera interesgarri baten inguruan antolatzea eta, gero, edukiak egoera horretan gauzatzea. Edo, beste aldetik, metodologia ikertzailea: metodo zientifikoa oinarri hartuta, eta edukiak bizitzako problemak aztertu eta ebaztearen inguruan antolatzea. Proposamen horiek problemak ebaztea eta ikerketa ikasketa gisa erabiltzea dute oinarri, eta problema irekien araketa gisa ulertzen dute zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna lantzea.

Problemei irtenbidea bilatzeko planteamendu horrek zientziako jarduerak ulertzeko beste modu edo ikuspegia dakar berekin. Ikasleek beren ezagutza astindu behar dute, aurkitzen dituzten egoerak ebazteko. Gainera, Lehen Hezkuntzan, gaitasun horren lanketa gizarteko eta ingurumeneko problema funtzional eta garrantzitsuen gainean antolatu beharko litzateke, zientziakoak alde batera utzi gabe, jakina. Pixkanaka,

ikertutako gaien gainean duten hasierako ezagutza (egunerokoa) aberastean eta hobetzean datza, eta saiatu behar da ikasleek gero eta formulazio aberatsagoak, erlaziozkoagoak eta konplexuagoak egin ditzaten. Horrek gaitu egingo ditu etorkizunean gizarteko eta ingurumeneko arazoak kudeatzean behar bezala parte hartzeko.

Baina, bestalde, gogoan izan behar dugu aldea dagoela eguneroko («zentzuzko») pentsaeran erabiltzen diren estrategien eta pentsamolde zientifikoko estrategien artean. Pixkanaka, zientziak errealitateari buruz eta hori ezagutzeko moduari buruz dituen ikuskeretan oinarritutako zenbait elementu sartu behar dira. Horrela, ikasleek ezagutza eta lan zientifikoaren berezkoak diren zenbait ikusmolde, prozedura eta jarrera bereganatuko dituzte.

Zientziak zenbait estrategia baliatzen ditu problemak ebazteko. Estrategia horiek, askotarikoak izan arren, modu idealizatuan erantzuten diete metodologia zientifikoa deitzen diogunarekin bat datozen fase batzuei. Honela laburbil dezakegu:

- Problema identifikatu eta planteatzea; ezagutzen ez den zerbait azaltzeko beharrari erantzuteko modua da.
- Hipotesiak egitea.
- Hipotesiak frogatzeko esperientziak diseinatu eta egitea, aldagaiak zehaztasunez kontrolatuta.
- Lortutako emaitzak abiapuntu hartuta, hipotesiak egiaztatzea. Bat ez etortzerik badago, hausnartu egiten dira, azalpenak bilatu, edo hipotesiak bertan behera utzi eta beste bide batzuk bilatzen dira.
- Emaitzak jakinaraztea.

Orain, zientzia-arlotik eskola-arlorako transposizioa egitean datza. Eskolako problemek jakintza zientifikoaren eta eguneroko jakintzaren artean zubiak eraikitzeko balio behar dute. Ikasgelan azalduko diren problemak ikasleen errealitatearen hurbileko testuinguruetakoak izan behar dira, eta etengabe aipatu behar dira beren hurbileko inguruarekiko loturak.

Galderak egin, aldagaiak zehaztu, esperimentuak diseinatu eta antzeko jarduerak Lehen Hezkuntzan ere egin behar dira. Izan ere, halakoak egiteak erraztu egiten du gertakari eta fenomeno fisikoak edo naturalak aztertzea, eta aukera ematen du ulertzeko nolakoa den zientzia, zer metodo erabiltzen dituen zientziak ezagutza eraikitzeko eta zer-nolakoak diren zientziaren eta gizartearen arteko harremanak. Pujolen[3] arabera, *«jarduera zientifikoan bereizgarri diren urrats horiek guztiek laguntzen diete ikasleei zenbait gaitasun intelektual berenganatzen; besteak beste, aztertzeko eta orokortzeko gaitasuna, pentsamendu kritikoa, aplikatzeko eta laburtzeko gaitasuna, sormena eta erabakiak hartzea».*

Behaketa zientifikoa ikastean, behaketa kualitatibotik behaketa kuantitatibora pasatuko da, pixkanaka, eta behatu beharreko aldagai kopurua gero eta handiagoa izango da. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailetan, hasteko, behaketa librea egin daiteke eta, gero, behaketa zuzendua. Behaketa zuzenduak ez du gertakariak egiaztatu soilik egin behar; ikasleei ezagutza berriak eraikitzeko aukerak eman behar dizkiete. Jarduera

---

[3] PUJOL, R.M. (2003). ***Didáctica de las ciencias en la educación primaria***. Síntesis argitaletxea, Madril.

zientifikoan eginkizun garrantzitsua du sailkapenak. Sailkatzeak behaketa-ariketa garrantzitsua eskatzen du, sailkatu behar denaren ezaugarri aipagarriak identifikatu behar baitira.

Galderak egiteko gaitasuna zientziako funtsezko alderdia da, eta aukera ematen du errealitatea interpretatzeko baliatzen ditugun ereduak eraikitzean aurrera egiteko. Lehen Hezkuntzako ikasleek, batez ere lehenengo mailetan, gauza asko izaten dute galdetzeko. Hala ere, ikuspegi zientifikotik esanguratsuak diren galderak egitea prozesu zaila da, eta esanguratsua dena eta esanguratsua ez dena bereiztea eskatzen du. Galderak egiten jakiteko, ikasgelan komunikaziozko elkarrekintza landu behar da. Baina, gainera, galderak aurrez sortutako ezagutza-esparrua abiapuntu hartuta sortzen dira. Adibidez, behatu zaion zerbaitez hitz egitean lortutakoan, edo esperientzia batean lortu diren emaitzetan, irakurri dugun informazio zehatz batean eta abarretan lortutakoan.

Galderak egiteak hipotesiak egiteko bidea ematen du, lan zientifikoan. Hipotesi horiek frogatu egin beharko dira, eta egiaztatu edo ezeztatu, gero. Ikasleei, Lehen Hezkuntzatik irakatsi behar zaie hipotesiak egiten. Hasteko, honelako esaldiak eraikitzen irakats dakieke: «hau gertatzen bada, orduan ikusiko dut...».

Hipotesiak egin eta gero, esperimentu bat diseinatu behar da, hipotesia egiaztatu edo ezeztatzeko. Eta, prozesu horretan esku hartzen duten eta emaitzan eragina izan dezaketen aldagaiak identifikatu behar dira. Lan zaila da prozesu batean esku hartzen duten askotariko aldagaiak identifikatzea, baina hasieratik irakatsi behar zaie, horrek aztertutako fenomenoaren gaineko ikuspegi orokorragoa izaten lagunduko baitie ikasleei.

Ezagutza zientifikoa gainerakoekin elkarrekintzan jardunez eraikitzen da. Horregatik, emaitzak jakinaraztea funtsezkoa da, jarduera zientifikoan. Horrek eskatzen du ikasleek beren pentsamoldea berregituratzea, eta ideiak antolatu, azaldu eta egiaztatzea. Oso garrantzitsua da ikasitakoa berrikustea. Gainera, ikasitakoaren laburpenak eta horma-irudiak egiteak, eta ikasle taldeei ahoz aurkezteak errazago egiten du ikasitakoa finkatzea. Azkenik, prozesu horrek beste galdera batzuk egiteko bidea eman dezake.

Niedak (1998)[4] *«"jarduera-programak" egitea proposatzen»* duten hainbat autoreren proposamena jaso du. *«"Jarduera-programa horiek lan zientifikoan inspiratuta egon behar dute. Lan zientifikoan, testu bat irakurtzea edo irakasleei entzutea ez datza lehendik landuta dagoen ezagutza jasotzean; aitzitik, jarduera-programak beste zerbaitekin lotuta daude, esaterako bilaketa bibliografikoa egitea eskatzen dute, problema bat zehazteko edo hipotesi bat funtsatzeko, bestelako emaitzekin edo ikuspegiekin alderatzeko eta abarretarako*.

Lan esperimentalera joko da problemak eta ikasleek hala eskatzen dutenean. Horretarako, egoera esperimental bat diseinatu, egin eta interpretatu beharko da, eta horrek, agian, beste jarduera batzuk sortuko ditu, batzuetan esperimentalak diren eta beste batzuetan esperimentalak ez diren jarduerak. Beraz, problema bat lantzean datza eta, horretarako, elkarren artean eta proposatutako problemarekin koherenteak diren jarduerak diseinatu behar dira».

[4] NIEDA, J eta MACEDO, B. (1998). ***Un currículo científico para estudiantes de 11 a 14 años***. Mexiko; SEP /OEI_UNESCO / Santiago

Matematikarako Gaitasuna lantzea hainbat elementu erabili eta lotzeko gaitasuna eskuratzean datza; besteak beste, zenbakiak, oinarrizko eragiketak, ikurrak eta adierazpen-moduak eta arrazoiketa matematikoa. Horren helburua izango da ikasleak trebatzea, alde batetik, askotariko informazioa ekoitzi eta interpreta dezaten; bestetik, errealitateko alderdi kuantitatiboen eta espazialen gaineko ezagutza zabal dezaten; eta, azkenik, eguneroko bizitzari eta lan-munduari lotutako problemak ebatz ditzaten. Hortaz, alderdi hauek osatzen dute matematikarako gaitasuna:

- Informazioa, datuak eta argudioak argi eta zehatz interpretatu eta adierazteko gaitasuna; horrek bizitzan zehar ikasten jarraitzeko benetako aukera zabaltzen du.

- Matematikako oinarrizko elementuak ezagutu eta erabiltzea (zenbakiak, neurriak, ikurrak, elementu geometrikoak eta abar), eguneroko bizitzako benetako egoeretan edo egoera simulatuetan.

- Arrazoiketa-prozesuak gauzatzea, problemak ebazteko edo askotariko informazioa lortzeko.

- Aldeko jarrera eta gero eta segurtasun eta konfiantza handiagoa izatea matematikako elementuak edo euskarriak dituzten egoeren edo informazioarekiko, bai eta, egoeraren arabera gomendagarriak direnean, elementu eta euskarri horiek erabiltzearekiko ere. Egoerak oinarri izango ditu errespetua eta ziurtasuna atsegin izatea eta, arrazoiketaren bitartez, hori bilatzea.

Gaitasun benetakoa eta zentzuzkoa bihurtzen da matematikako elementuak eta arrazoiketak eguneroko egoerei aurre egiteko erabiltzen direnean. Horregatik, derrigorrezko hezkuntzan gara daitezen, matematikako ezagutza askotariko egoerei (bestelako ezagutza-arloetatik eta eguneroko bizitzatik datozenei) modu naturalean aplikatu ahal izatea lortu behar da.

Matematikarako Gaitasuna lantzeak eskatzen du matematikako elementuak eta arrazoiketak erabiltzea, norberaren arloan eta gizarte-arloan, hainbat zereginetarako: informazioa interpretatu eta ekoizteko, egunerokotasuneko egoeretako problemak ebazteko eta erabakiak hartzeko. Azken finean, matematikoki arrazoitzeko, matematikako arrazoiketak ulertzeko eta matematikako lengoaian adierazi eta komunikatzeko aukera ematen duten trebetasunak eta jarrerak aplikatzea eskatzen du. Horretarako, laguntza-tresna egokiak erabili beharko dira, eta matematikako ezagutza beste mota batzuetako ezagutzarekin bateratu beharko da, bizitzako egoerak hobeto bideratze aldera, konplexuak izan daitezke eta.

Lehen Hezkuntzan Matematikarako Gaitasuna landu dadin, alderdi hauek kontuan izan behar dira:

- Helburua da matematikarako gaitasuna lantzea, hau da, matematikako kontzeptuak eta prozedurak hobeto ulertzea. Matematika bizitzarako erabilgarria dela eta bizitzari zentzua ematen diola ikusteko eta sinesteko gai izatea lortu nahi da.
- Matematikarako gaitasuna irakasteko ikasleen jakin-mina suspertzen duten esperientziak eskaini behar dira; eta ikerketaren, problemak ebaztearen eta komunikazioaren gaineko konfiantza ere sortu behar diete.

- Ikasleek matematikako ideiak uler ditzaten lortzea askoz garrantzitsuagoa da ahalik eta trebetasun gehien eskuratzea baino.
- Matematika ez da mintzagai isolatuen multzoa; aitzitik, osotasun bateratua da. Matematika ereduen eta erlazioen zientzia da.
- Problemak ebaztea da matematikarako gaitasuna lantzea sustatzen duen curriculumaren muina.
- Ikasleek hizkuntza erabiltzeko aukera asko behar dituzte, matematikako ideiak komunikatzeko. Matematikako ideiak eztabaidatu, idatzi, irakurri eta entzuteak gauzak sakonago ulertzen laguntzen du, matematikan.
- Datuak biltzeko, grafikoak egiteko eta taulak marrazteko —eta horietan aurkitutakoa adierazteko eta arazoak ebazteko— proiektuetan, talde txikietan lan egin dezaten bultzatu behar da. Matematikaren irakaskuntzako alderdi kritiko bat ikasleei besteekin elkarlana eta gogoeta-lana egiteko aukerak ematea da.
- Arrazoitzea funtsezkoa da, matematika ulertzeko eta egiteko. Matematika zentzua badu soilik da matematika; matematika ez da buruz ikasi behar den arau eta prozedura multzoa bakarrik.
- Ikasleengan, gogoetaren eta saiakuntzaren bitartez, abstrakzioa eta orokortzea sustatu behar dira, arian-arian; eta ez da utzi behar azalpenak eta aurkezpenak irakasleek bakarrik egin ditzaten.
- Zenbakia, eragiketa eta kalkulua kontzeptuak benetako munduan definitu, ulertu eta aplikatu behar dira, eta informazio kuantitatiboa lantzeko tresnak direla adierazi behar zaie.
- Geometria eta neurketa kontzeptuak hobeto ikasten dira gai jakinekiko loturak aurkitzea eta haiekin saiakuntzak egitea eskatzen duten esperientzien bitartez.
- Estatistikak, datuak, zoria eta probabilitatea ulertzeko modua benetako munduko aplikazioetan erabiltzea da. Zenbakizko informazioa oinarri izanik erabakiak hartzeko beharra gero eta beharrezkoagoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologien gizarte honetan.
- Ebaluazioa ikasleek zer dakiten hobeto ulertzeko egin behar da, eta irakaskuntzako eta ikaskuntzako jardueren gaineko erabaki garrantzitsuak hartzen laguntzen du. Ikasleak banan-banan ebaluatzeko hainbat metodo erabili behar dira, besteak beste, idatzizko probak, ahozkoak eta erakustaldiak, curriculumera egokituak.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzekoan, gizarte eremua, ardatz bezala kontuan behar dugu.

Oso posizio egokian aurkitzen gara, arazo errealak ikasleei planteatzeko eta konponbide praktikoak bila ditzatela. Horretarako, ez darabilte bakarrik bere ezaguerak eta aurreko trebetasunak, baizik eta irakaskuntza prozesuan zehar lortu dituztenak ere.

Horrela, ikasleen era integral parte-hartzeak Gizarterako eta Herritartasunerako gaitasuna eskuratzea erraztuko du.

Arloa jakitearen eremu desberdinek osatuta dago. Arloak baliabideak eta jakitearen eremu hauetako tresnak aprobetxatu behar ditu. Bestealdetik, arloko baliabide eta tresnek testuinguru ezberdinetan erabil daitezke.

Izan ere, ezinbestekoa da gaitasun honekin, planteamendu interdisziplinarraren bidez lortuko ditugu dauzkagun helburuak.

Proposamen metodologikoaren ideia nagusia, nola diseinatu eta erabili tresna egokiak (ikasleek gizarterako eta herritartasunerako gaitasun lortzeko) da.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren helburuak lortzeko, behar dugun metodologia arazo, proiektu eta atazetan oinarrtuta dago.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna garatzeko, ezinbestekoak dira:

- espazio- eta denbora-nozioak eskuratzea,
- konturatzea, giza eta gizarte-egintzak ulertzeko, aintzat hartu behar dela haien funtsean arrazoi ugari eta askotarikoak daudela, eta
- mota askotako informazioa jaso eta prozesatzea.

Hori guztia, jakina, ezin da denbora gutxian lortu; kontrara, eskolatze-aldi osoan etengabe landu beharreko kontuak dira.

Ikaslearen errealitate hurbila aztertu behar da, eta beti abiapuntutzat hartu, urrunagoko errealitateak –ez, baina, arrotzak– ulertzen joan dadin. Gaurkotasun handiko arazoak tratatu behar dira, unean unekoak, denen ahotan daudenak, gehienbat ikasleen bizimoduari nola edo hala lotuak.

Antoni Santistebanek dioen bezala[5], orain arteko irakasmetodoak aldatzea dakar Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna lantzeak, eta beste hauek ekartzea gelara: gizarte-arazoak proposatzea eta interpretatzea; gizartea ulertzea, haren gainean eragiteko; adimen kritiko eta sortzailea sustatzea; gizartearen errealitatearen konplexutasuna pentsa ditzakegun galderen bidez gainditzea; komunikazio-giroa sustatzea, ikertzeko eta elkarlanean jarduteko estrategietatik abiatuta; espazioa eta denbora erlazionatzea eta interpretatzea; eta etorkizuna ikastea.

Beraz, irakaskuntzan aldaketa esanguratsuak eragiteko, ez da nahikoa gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna testuinguruan ondo kokatutako ezaupide funtzional batzuekin erlazionatzea: aldiz, behar-beharrezkoa da gelan gizarte-arazoak aztertzeko proposatzea eta ezagutza historiko, geografiko eta sozialekin lotzea.

Kasuan kasuko gizarte-arazo horiek ulertzeko ahalmena: horra zer lortu beharko genukeen gaitasuna garatzean, eta, beraz, halaxe interpretatu behar dugu gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Gizarte-arazook gelara sartu behar dira, eta ikergai nagusitzat hartu behar dira gizartea aztertzeko orduan (harreman pertsonalekin, balio sozialekin eta gizon-emakumeen esperientziekin dute zerikusia eguneroko bizitzan aurre egin behar izaten dizkiegun arazo gehienek). Arazook ikasgelara sartzen baditugu, ezinbestean esleitu behar diogu rol berri bat irakasleari, zeregin hauek bete beharko baitu:

- Gizarte-arazoa proposatuko du, edo hura definitzen lagunduko du.
- Informazioa eskainiko du, eta arazook gainditzeko baldintzak sortuko ditu.
- Arrazoibideak eskainiko ditu.
- Gogoeta eta eztabaida sustatuko ditu.
- Norberaren ideiak berraztertzea bultzatuko du.

[5] SANTISTEBAN, A.: “Cómo trabajar en la clase la competencia social y ciudadana”, in *Aula de Innovación Educativa,* 187. zk., Graó, Bartzelona, 2009.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunak gaurko arazoak eta egunero ikasleei eragiten dieten arazo sozialak aztertu eta ikasi behar ditu.

Ikasgelan, beharrezko ezaguerak erakutsi behar dizkiegu ikasleei, zer pasatzen duen bere munduan, galde dezatela.

Galderek pertsona gogoetatsu eta kritikoak egin behar dizkigute.Eta zein da estrategia-metodologikorik onena? Konpetentzia honetan eragiten diete testuinguru formal eta informaletan egindako ikasketei.

Paradigma metodologikoa zentratuta dago ikaslearengan eta ez irakaslearengan. Ikasleak hobeto balioetsitako estrategiak erabiliz.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna besteekin eta gizarte-ingurunearekin komunikatzean taxutzen da. Ikaslearen jardueran oinarritzen direnez, estrategia interaktiboak dira egokienak hori guztia lortzeko, ikasleak berriro landuko baititu ezagutzak ikaskideekin eta irakaslearekin jardutean. Hala, gaitasun honetan, zenbait estrategia lehenesten dira; besteak beste:

- Kasuen analisia
- Simulazioak
- Arazoei aurre egitea
- Arazoak ulertzera bideratutako hezkuntza
- Proiektuak (hipotesiak egiaztatzeko ikerketak)
- Ulertzerako hekuntza

Gizarte-arazoei erantzun egokia emateko, ezinbestekoa da espazio- eta denbora-koordenatuak ulertzea. Espazio geografikoari galdetzen diogunean, denbora historikoa eraikitzen ari gara (Pagés eta Santisteban, 2008). Hala, funtsezko tresna da iturriekin lan egitea gelan.

Azkenik, etorkizuna ikastea ere bada gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren parte. Eskolak, hala, hainbat etorkizun mota esploratzen irakatsi behar du, maila pertsonalean, ingurune hurbilekoan eta bai globalean ere. Frogatuta dago ikasleak gai direla beren etorkizunari eta komunitatearen etorkizunari buruz hitz egiteko.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunarekin lan egitean, lortu behar dugu ikasleek ulertzea eta eragitea, arazoei irtenbideak emateko gai izatea, etorkizuna irudikatzea… Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, azken batean, herritartasuna kontzienteki praktikatzea da, konpromisoarekin eta erantzukizunarekin, baita ikasgelan ere. Gaitasun hau gauzatzean ikasten da herritarra izaten.

Bukatzeko, ba al dago metodologia bakar bat proposatutako helburuak lortzeko? Guk, ezezt uste dugu, ez dagoleko errezeta magikorik. Dena den, didaktika ikerketatik oinarrizko orientabide batzuk aipa daitezke:

1. Atazak, erantzuna eman behar du egoera-arazotsu irekietara. Inplikazio sozial eta teknikoekin eta ikasleen ingurunean izan daitezela. Testuinguru desberdinetan eman daitezkeen ezaguera funtzional-garapena.

2. Ikasleei, beraien errealitate hurbilatik hartuta, era askotako jarduerak, proposatzea. Zailtasun desberdineko jarduerak eta ikasle-taldekatze desberdinak antolatzea.

3. Ikasketa aldeko-egoerak proposatzea. Aspektu afektibo eta kognitiboa aintzat artesa.

4. Sintesi-jarduerak proposatzea (eskemak, kontzeptu-mapak, laburpenak, e.a.), eta ikasitakoa ezaguera berriekin erlazionatzea.

5. Beste errealitate batzuetara eta era askotako testuinguruetara ikasitakoa aplikatzeko jarduerak proposatzea. Ezagupen berriak erabiltzeko egoera praktikoak planteatzea.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna lehen hezkuntzan lantzean, kultura- eta arte-adierazpen mota guztiak ideien, sentimenduen, sinesmenen eta pertsonen jarreren adierazpenak direla jabetu behar dute, eta, horrez gainera, pertsonen edo taldeen nortasunaren adierazgarri ez ezik, nortasunaren eratzaile ere badirela ohartu behar dute.

Etapa honetan lan egin behar diren edukiak definitzeko, kontuan hartu behar dugu, kultura-ondare tradizionalaren eta garaikidearen eta kultura-ekoizpena eta musika-ekoizpena, ez bakarrik ekoizpen artistikoa (ikusizko erreferente estetikoak, musika… komunikabideen eta informazio bitartekoen,moda, herri artea eta musika…), gure kulturan artearen eta gizakien bizitzaren artean jarrita dagoen distantzia handia alde batera uzteko modua baita.

Ikasgelan, lan egiteko momentuan, eztabaida eta gogoeta-eremu sortu behar dira. Azken hauetan, ikasleak, ulertzen eta ikasten du arte-gertaerek erabilera eta funtzio ugari izan dituztela eta izan ditzaketela hainbat kulturatan. Arte-gertaerak ezin dira ulertu jatorrizko kultura alde batera utzita, ekoizpen-testuinguruak baztertuta: balioak, ekonomia, ideologia, teknika, erlijioa, zientzia... horrez gainera, inoiz ez dira bakartu behar alderdi erreflexiboa eta ekoizpena, eta ez da bat bestearen ordezko aukeratzat hartu behar, batez ere etapa honetan; izan ere, haurrek oso prozesu aldakorrak eta delikatuak izaten dituzte ekoizle-zereginetan. Prozesu horiek ardura handiz zaindu behar dira, eta urte horietan ekoizlelana ez uzteko, beharrezko laguntza eta bitartekotzaprozesuak eman behar zaizkie.

Lantzen ari garenaren tankerako gaitasuna baterako hausnarketa-prozesuetan zentratuago dauden proposamen metodologikoei erreferentzia egitea proposatzen dugu. Adibidez:

- planteaturiko proiektuen bitartez honako hau bultzatzea: ikasleek ideiak azaltzea, loturak ezartzea, lortutako ezagutzak egoera berrietara transferitzea, eta abar.
- ikasleek lan-prozesurako materialak jasotzeko erremintak (paper-zorroa, karpeta, eta abar) erabiltzea: zirriborroak, erreferentzia, ekoizpen musikala, hausnarketak; edo,
- hausnarketa eta eztabaida bultzatuko duten eta edukiekin loturik egongo diren irudi, soinu, partitura, testu, dokumentu, musika… sorta zabala eta aberatsa erabiltzea.

Lan egiteko moduak oso anitzak izango dira diseinaturiko curriculum-proiektuen eta gelako programazioen arabera, baina, dena den, honako lan egiteko modu horiek esperimentaziorako eta praktikarako espazioak sortzera bideratuko dira, lengoaia artistikoen berezko baliabide teknikoak eta adierazpenekoak erabilita, baina horretaz gain, atzean dituzten hausnarketa-prozesuak garatzeko bidea ere emango dute. Horrek zera esan nahi du:

- Artea eta kulturako produktuetan ikusten duguna baino gehiago dagoela aintzat hartzea. Beharrezko dela, horrek adierazpen guztiak gordetzen dituzten esanahiak aztertzea.
- Artea eta kulturako produktuak munduari buruzko eta guri buruzko ikuspegiak nola eskeintzen dituzten aztertzea. Eta, horretaz gain, artea eta kulturako produktuak errealitatera hurbiltzeko eta, hura begiratzeko, entzuteko eta ulertzeko beste modu bat dira.
- Norberaren nortasunarekin eta gizarte eta kultura arazoekin loturiko arte adierazpenak eraikitzea eta horrela errealitatearen aurreko jarrera kritikoak eraikitzen laguntzea.

Ikusten denez, helburua balio estetikoa eta soilik espresiboa duten objektuen sormenean bakarrik oinarrituriko ikuskerak gainditzea da, kulturari eta errealitateari buruz hausnartzeko gune bilakatzeko. Gure kulturako arteari zein irudiari buruzko gogoeta, elkarrizketa, bilaketa eta jakin-mina sortzea ekoizpena bezain garrantzitsua da.

Bukatzeko, galdera bat dago airean: ba al da urrats zehatzak dituen eta nahi den ikaskuntza lortzeko egokientzat jo den erabateko estrategia metodologikorik? Bistan denez, ez dago errezeta magikorik. Baina, ikerketa didaktikoak zehaztutako askotariko orientabideak aztertu ondoren, hauek jo daitezke oinarrizko orientabidetzat:

1. Ezaugarri hauek izango dituzten problemei erantzuna emateko helburuarekin planteatzea lana: irekiak, inplikazio sozialak eta teknikoak izango dituztenak, ikasleen ingurukoak eta hainbat ikuspegitatik aztertzeko aukera emango dutenak. Lan egitean, beti bultzatu behar da askotariko testuinguruetan aplika daitekeen ezagutza funtzionala garatzea.

2. Era askotako jarduerak proposatzea. Jarduera horiek ikasleen hurbileko testuinguruetakoak izan beharko dute, zailtasun mailakatua izan beharko dute, buru-lan desberdina eskatzen dutenak, multzotan antolatuta egongo dira, inguruko baliabideak erabiltzea eskatu beharko dute eta gaitasunak lantzeko aukera eman behar dute.

3. Giro onean ikasteko egoerak sustzea; adostutako arauak egongo dira, eta irakats daitekeenaren eta ikasleek ikas dezaketenaren gainean eskumen eta aukera positiboagoak sortzeko aukera izan beharko da. Gogoan izan behar da beti kontu afektiboek eragin handia dutela arlo kognitiboan.

4. Ikasitakoa laburtzeko ariketak proposatzea (eskemak, mapa kontzeptualak, laburpenak eta abar). Lan horretan, azalpen berriak galderekin lotu beharko dira eta, era berean, hasierako azalpenetatik aurrera ikusitako aurrerapenak nabarmenduko dira.

5. Ikasitakoa bestelako errealitate batzuetan eta askotariko testuinguruetan aplikatzeko jarduerak proposatzea. Ikasketa berriak indartzean datza, ikasketa horiek erabiltzeko beharra duten egoerak proposatzearen bitartez.

HAUSNARTZEKO

"Lehengo batean irakasle gelan norbaitek esan zuen ikasleek gero eta maila kaskarragoa dutela eta ikasturte honetan, esaterako, ezin izango dituela gai guztiak eman"

- **Iritzi horrek irakaskuntzaren zein ikuspegi islatzen du? Irakaskuntzaren ikuskera hori bat dator gaitasunen garapenean oinarrituta egon behar duen irakaskuntzarekin?**

- **Zein neurritaraino zaudete ados ikaskuntza aktiboaren planteamenduarekin? Ikaskuntza transmititu egiten da ala eraiki egiten da? Irakaslearen eginkizuna, informazio iturri bakar gisa, baliagarria da XXI. mendean?**

- **Atal honetako grafikoari erreparatu. Bertan ageri diren estrategia eta jardunbideen artean zein dira ohikoak zuen ikastetxean? Hauta itzazue horietako hiru, zuen ustez adierazgarrienak, eta esan nola gauzatu daitezkeen zuen ikastetxean.**

- **Dekalogoan aipatutako estrategia metodologikoetatik zein dira, zuen ustez, inportanteenak? Hautatu hiru eta ikasgelara eramateko modu zehatzak planteatu.**

- **Zuen eskola saioetan banakako lana ala taldeko lana da nagusi? Ikasleen arteko eztabaidak eta debateak bultzatzen dituzue? Denbora galtze hutsa dela uste duzue?**

- **Oinarrizko gaitasunen garapenari laguntzeko, pentsatu zeintzuk izan litezkeen denbora eta tokia antolatzeko hiru era desberdin.**

3. OINARRIZKO GAITASUNEN EBALUAZIORAKO ORIENTABIDEAK

a) Orientabide orokorrak

Ebaluazioak ikaskuntzaren motorra izan behar du eta ikas-irakaskuntza prozesuekin bat egin; izan ere, ikasteak berekin ditu arazoak antzematea, zailtasunak eta oztopoak gainditzea, akatsez eta huts egiteez konturatzea eta zuzentzea. Ebaluazioaz hausnartzen denean, badira erantzun behar ditugun oinarrizko galderak. Baina, egun, galdera horiek gaitasunen inguruko marko berrian, beste ikuspegi eta zentzu bat hartzen dute. Ohiko galderak, beraz, paradigma berri baten baitan ageri dira:

- *Zertarako ebaluatu?*
- *Noiz ebaluatu?*
- *Nork ebaluatu?*
- *Zer ebaluatu?*
- *Nola ebaluatu?*

Zertarako ebaluatu?

Galdera honek lerro jarrai bereko muturretan dauden bi erantzunen aurrean jartzen gaitu, ebaluazioa ulertzeko bi ikuspegi desberdin islatzen dituzten bi erantzunen aurrean, alegia:

- Ebaluatu egingo da ezagutza jakin batzuk eskuratu direla egiaztatzeko. Ebaluazioaren ikuspegi honek **ebaluazio sumatiboa**ren esparruan kokatzen gaitu.
- Ebaluatu egingo da ikasleen ikaskuntza prozesuaren zailtasunak eta aurrerapenak antzemateko eta prozesua ikasleen beharrizan errealetara egokitzeko. Ebaluazioaren ikuspegi honek **ebaluazio hezitzailea**ren esparruan kokatzen gaitu.

Oraintsura arte ebaluazio sumatiboak izan du indarra hezkuntza jardunetan, duen hautatze-funtzioak eraginda. Ebaluazioa, tradizioz, unitate didaktikoak bukatu ondorengo azterketei, probei, loturik joan ohi da. Horien bidez, gehienetan, ikasleen ezagutzen lorpen maila, eta bereziki, kontzeptuzko ezagutzen lorpena, baino ez da adierazten.

Baina eskola integratzailearen, inklusiboaren ikuspuntutik, ikasleen ahalmenak eta oinarrizko gaitasunen garapena bultzatu nahi dituen eskolaren ikuspuntutik, ebaluaziorako praktika hori osotu eta bete egin behar da heziketa prozesuan zehar ikasleen beharrizanetara egokituz joango den prozesuaren ebaluazio hezitzaile eta globalaren bidez. Argi dago **ebaluazio mota hau askoz ere konplexuagoa dela; izan ere, jarduera puntualtzat barik ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak aztertzen dituen prozesutzat hartzen du ebaluazioa.**

Noiz ebaluatu?

Lehenago aipatu den bezala, ebaluazioaren erabilerarik zabalenak ikaste eta irakaste prozesuen bukaeran (unitate didaktikoa, gaia) egin ohi den eta ikasleen lorpen maila egiaztatzen duen jarduera puntualaren aurrean jartzen gaitu. Ebaluazio mota honek

kalifikatzeko, informatzeko, maila ezartzeko balio du, baina ez du eraginik ikasketa prozesuaren hobekuntzan.

Neus Sanmarti-k[6] dioen bezala *"ikasleen ahaleginaren eta ebaluazio kalifikatzailearen arteko lotura nabarmentzen denean, ikasleei leporatzen diegu porrotaren errua: horrela, gainditu ezean, ahalegin faltagatik izaten da eta ez sistema soziala diskriminatzailea izateagatik edota ikastetxeetako baliabideek eta antolakuntzak irakasleen lanaren eraginkortasunari ez laguntzegatik edo irakasteko erabilitako metodoak egokiak ez izateagatik (…) ez litzateke ahaztu beharko ebaluazioaren emaitza ona ikaste prozesu onaren ondorio dela, ez, ordea, zergatia."*

Horrenbestez, gaitasunen garapenari begira planteatzen den ebaluazioa ezin da prozesuaren bukaeran soilik gauzatu, prozesuaren aldi guztietan agertu behar baita. Horrela, hasierako ebaluaziorako jarduerak planteatu behar dira aurretiazko ezagutzak azaleratzeko (egiten jakiteari, izaten jakiteari eta jakiteari lotuak), ikasleen hasierako egoera ezartzeko eta planifikazioa egoera horietara egokitzeko.

Halaber, ikasleek prozesuan zehar izan dituzten zailtasunak eta egin duten aurrerapena identifikatzeko jarduerak planteatu behar dira, hau da, ebaluazio hezitzailea, erregulatzailea, prozesuaren ebaluazioa, ikaskuntzaren emaitzei zuzen-zuzen eragingo diena; izan ere, ikasi ahal izateko ikasleak bere zailtasunak identifikatzeko gai izan behar du. Horretara, behaketa eta berrikusketa txantiloiak erabiltzea proposatzen da ikasleei ikasi dutenaz gogoeta egiten laguntzeko eta horrenbestez, ikasten ikasteko gaitasuna, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna… garatzen laguntzeko. **Ebaluazioa prozesuaren baitan dagoenean baino ez dira hobetuko azken emaitzak.**

Nork ebaluatu?

Gaitasunen inguruko ebaluazioaren planteamenduan azpimarratu egin behar da helburu desberdinetatik abiatuta, egile desberdinak direla ebaluatu ahal dutenak eta, era berean, ebaluatu behar dutenak.

Oro har, ebaluazioa irakaslearen esku egon ohi da, honek ikas prozesuaren amaieran, ebaluazio sumatiboa egiten du ikasleek ikasitakoaren egiaztatzaile bakar gisa. Irakaslea da, halaber, hasierako eta prozesuaren ebaluaziorako jarduerak planteatzeko ardura duena… Baina, **gaitasunak garatzeko, bizitza osoan zehar luzatuko den ikaskuntza helburua izanik, ikasleak bihurtuko dira ebaluazioaren egile garrantzitsu.**

Ebaluazio hezitzailearen ikuspuntutik, honek ikaslearen ikaste-prozesua erregulatzeko balio behar du, hau da, ikasleek nolako zailtasunak dituzten antzemateko eta zailtasun horiek zertan dautzan jakiteko. Horrenbestez, ikasleek auto-erregulatzen ikasi behar dute, hau da, honakoak kontrolatzen: zein helburu lortzeko ari diren ikasten, zer egin behar duten ikasteko eta zeintzuk diren erabili behar dituzten irizpideak modu eraginkorrean ikasten ari diren ala ez jakiteko.

Horrek guztiak esan nahi du jarduera planifikatzeko,.ikasleek ikaskuntzaren xedea jakin behar dutela. Horregatik, sekuentzia didaktikoetan zehar irakasleak argitu, adostu eta negoziatu egin behar ditu ikasleekin zer nolako atazak burutuko dituzten sekuentzia didaktikoan, zertarako diren, nolako prozesua burutuko duten eta lana ebaluatzeko zer hartuko den kontuan. Bestalde, ikasleak dira autoebaluazio eta

[6] SANMARTÍ, NEUS**.** ***Evaluar para aprender***. Graó Argitaletxea, 92. orrialdea

koebaluazio jardueren bidez irakaste-prozesua nahiz beren eta ikaskideen ikaste-prozesuak ebaluatuko dituztenak.

Zer ebaluatu?

Gaitasunaren bi definizio hauek kontuan hartzen badira: *"Gaitasuna testuingurura egokitutako ezagutzen, trebetasunen eta jarreren multzoa da"* [7] eta *"Gaitasuna testuinguru jakin batean ataza bat ongi burutzeko trebetasuna da"*[8], gaitasunak garatu ahal izateko, beraiekin erlazionatutako zenbait jakite mota eskuratu eta menperatu behar dira eta aldi berean baliatu testuinguru jakin baten baitan. Hortara, **gaitasunak ebaluatzeak arazo-egoerak ebazteko prozesuak ebaluatzea dakar.**

Horregatik, atazak dira ebaluazioaren abiapuntua, ataza errealak, gutxi edo asko, errealitatean gertatzen denaren berri ematen dutenak. **Atazak proposatu behar dira** eta beraien bidez landu oinarrizko gaitasunen garapenari laguntzeko egokienak izan daitezkeen prozedurazko, jarrerazko eta kontzeptuzko edukiak eta zehaztu haien lorpena adierazten duten ebaluazio-adierazleak.

Hala ere, oinarrizko gaitasunek ez dute bere ebaluaziorako erreferentzia argia ematen. Baina oso garbi ikus daiteke curriculumeko beste zenbait elementurekin gurutzatzen direla, hala nola, helburuekin, edukiekin eta bereziki, ebaluazio-irizpideekin[9]. Horrela, oinarrizko gaitasunak irakasgaien edo arloen helburu orokorretan islatzen dira; non biltzen diren gaitasunen garapenerako jakite mota desberdinak. Horien lorpen maila eta, horrenbestez, erreferentzia diren gaitasunen garapen maila, ebaluazio-irizpideen bidez adierazten da. Azkenik, ebaluazio-irizpideak behatu daitezkeen adierazpen bihurtzen dira ebaluazio-adierazleen bidez; hauek, beraz, ebaluazioaren azken erreferentetzat har daitezke.



[7] Europako Parlamentuaren ebazpena, 2006ko iraila
[8] Euridyce, 5. ikerketa, 2002. urtea
[9] Hacia un enfoque de la educación en competencias
http://www.educastur.es/media/publicaciones/enfoquemail.pdf

Ebaluazio-adierazleak publikoak dira eta Ikastetxearen Curriculum Proiektuan eta ikasgelara eramango diren programazio didaktikoetan agertu behar dira. Oinarrizko Hezkuntza ezartzen duen 175/2007 Dekretuaren arabera, Ikastetxearen Curriculum Proiektuak, besteak beste, ondokoak jasoko ditu: "*Ziklo edo ikasturte bakoitzeko ebaluazio-irizpideen zehaztapena, etapa bakoitza amaitzean eskuratu beharreko gutxieneko gaitasun-mailak, eta ikasleen ebaluazio- eta promozio-prozesuari buruzko erabakiak*"[10].

Nola ebaluatu?

Ebaluazio jarduerek jakite mota desberdinak aldi berean eta era koherentean mugiarazteko ahalmena erakutsi behar dute. Gaitasunen inguruko hezkuntzaz dihardugunean bizitza osoan zehar luzatuko den ikaste-prozesuaz hitz egiten ari gara. Argi dago, dena den, gerta litezkeen egoera guztiak ezin izango direla hezkuntza praktiketan islatu.

Gaitasunen inguruko ebaluazioa ikasleek gutxi edo asko errealak diren egoerei erantzuna emateko duten gaitasuna ebaluatzean datza. Honek jarduera konplexu baten baitan sartzen gaitu: ikas-irakas prozesuetan une desberdinetan gauzatuko dena eta egile desberdinak izango dituena. Ezaugarri horien guztien kausaz ebaluazio-tresnak dibertsifikatu egin beharko dira.

b) Ebaluazio-tresnak

Ebaluazio prozesuak, aurreko atalean azaldu den bezala, oso konplexuak dira, horrenbestez, ebaluazioa gauzatzeko erabiliko diren tresnak askotarikoak eta desberdinak izan beharko dira.

Ebaluazio-tresnak bai irakasleak bai ikasleek ikaste-prozesuari buruzko datuak jasotzeko erabiliko dituzten baliabideak dira. Tresna bat edo bestea hautatzea helburuen araberakoa da.



[10] 175/2007 Dekretua urriaren 16koa

Goiko irudiak ebaluazio-tresna multzo bat biltzen du. Horietako zenbait tresna helburu desberdinetarako erabil daitezke eta egile desberdinek erabili ditzakete. Orientazio-oinarria (edo kontrol-zerrenda, hau da, testuak antolatzeko zein ekoizteko txantiloia), esaterako, koebaluazio txantiloia izan daiteke, irakaslearen ebaluazio txantiloia, edo burututako ikaskuntzaren auto-ebaluazio txantiloia.

Aurreko atalean adierazi den moduan, gaitasunen inguruko ebaluazioa gauzatzeko orientabideei dagokienez, ebaluazioa prozesuari lotutako ebaluazio hezitzailearekin erlazionatzen da, hau da, ikaste-prozesua hobetzeko aukera ematen duen ebaluazioaren kontzeptuarekin. Ebaluazio sumatiboa oso erabilia da ikastetxeetan, hori dela-eta atal honetan gaitasunen garapenari laguntzeko egokiagoak diren beste orientabide batzuei eman zaie lehentasuna.

Beraz, ondoren azalduko diren ereduen hautaketan prozesuaren ebaluazio hezitzaileari lotutako adibideak baino ez dira ageri. Tresna horiek hainbat arlotakoak dira eta beraietan zenbait gaitasun antzeman daitezke.

c) Ebaluazio-tresnen ereduak

Kontratu didaktikoa

Ikaskuntza kontratuaren edo kontratu didaktikoaren bidez ikasleek eta irakasleek, modu esplizituan, iritziak partekatu eta elkarrekin erabakitzen dituzte ikaste-irakaste prozesuak gauzatzeko moduak, eta horiek idatziz edo ahoz adierazten dituzte.

Kontratu didaktikoa, besteak beste, ikasten ikasteko gaitasunari, norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasunari, eta hiritartasunerako eta gizarterako gaitasunari loturik dago.

- Data:
- Ikaslea: ……..Irakaslea:…..……
- Lan-hitzarmenaren iraupena:……
- Lan egiteko nik ditudan oztopoak:.....

.....

.....

- Oztopoak gainditzeko hartuko ditudan neurriak: .....

.....

.....

.....

- Nork lagunduko dit?: .....

.....

- Nola berrikusiko dut lan-hitzarmena betetzen ari dela?

.....

.....

Lan hitzarmen hau beteko dudala adierazten dut

Ikaslea	Irakaslea

Orientazio-oinarria

Orientazio-oinarriak taldeka egindako txantiloiak dira. Bertan, jarduerak gauzatzeko, prozedurak garatzeko, txostenak idazteko… kontuan hartu behar diren aholkuak eta iradokizunak jasotzen dira.

Orientazio-oinarria edo kontrol-zerrenda ebaluazio txantiloi gisa erabil daiteke, ebaluaziorako adierazleak bertan zehaztu ondoren. Kontratu didaktikoa bezala, loturik dago ikasten ikasteko gaitasunarekin, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunarekin eta gizarterako eta hiritartasunerako gaitasunarekin.

Instrukzioak idazterakoan kontutan edukitzeko	Egina
• Testu instruktiboan _____ zati desberdintzen ditugu.	
• Lehengo zatian, _____ buruzko informazioa ematen da.	
• Bigarrenean, egiteko behar diren _____ idatzi behar dira.	
• Nola funtzionatzen duen urratsak ordenatzeko_____idatziko ditugu. Adibidez: hasieran, gero…	
• Denborazko antolatzaileak idatzi eta gero_____ jarriko dugu.	
• Ekintza nola egin behar den zehazteko_____ egokiak erabiliko ditugu. Adibidez: poliki-poliki, gogor…	
• Aditzen ondoan EZAZU ala ITZAZU idatziko dugu.	
• Aproposa den _____ gaineratuko dugu.	
• Zirriborroan ere, letra txukuna, ertzak… zainduko dugu.	
• Taldean lan egiteko: ideiak emango ditugu, besteenak entzungo ditugu, ados jarriko gara, lanak banatuko ditugu.	

Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako txantiloiak

Ebaluazio-tresna hauek oso interesgarriak dira ikasleak baitira ebaluazio egileak, bai beren ikaste prozesua ebaluatuz, bai beste kideen prozesua ebaluatuz. Hala ere, tresna hauek ez dira hain sarri erabiltzen ikastetxeetan. Modu egokian erabiltzeko irakasleak irizpide zehatzak eta argiak eman behar ditu eta ikasleek entrenamendua behar dute.

Txantiloietan islatu behar diren edukiek aurretiaz ezarritako lanaren helburuei lotuta egon behar dute eta ezagutzak adierazleen bidez zehaztuta. Tresna hauek ikasleen autonomian eragiten dute, ikaste prozesuaren gaineko hausnarketa bultzatzen dute eta ikasten eta talde lanean aritzen laguntzen dute, denak oinarrizko gaitasunetan jasotako dimentsioak.

Zirriborroak zuzentzeko txantiloia

ZER ZUZENDU	TALDE BATEK	IRAKASLEAK
Hiru zati desberdintzen dira?		
Lehenengo zatian, makinari buruzko informazio egokia ematen da?		
Bigarrenean, egiteko behar diren materialak idatzita daude?		
Hirugarren zatian pausuak ondo ordenatuta daude?		
Denborazko antolatzaileak erabili dira? Koma jarrita dago?		
Ekintza nola egin behar den azaltzeko aditzondo egokiak erabili dira?		
Ba al dago irudi aproposik?		

Hobetzeko iradokizunak

_____

	Nik		Beste batek	
	bai	ez	bai	ez
Tesiak argi adierazten du iritzia?				
Tesia esanahi osoa duen esaldia da?				
Argudioak baliokoak dira?				
Glosategian ikasitakoa gogoan izan dut?				
Argudioak ordenatuta daude garrantziaren arabera?				
Badakit ze esamolde eta hitz erabiliko ditudan tesiari eusteko?				
Aurkariari erantzuteko argudioak baliogarriak dira?				
Badakit zein esamolde eta hitz erabiliko ditudan aurkariari erantzuteko?				

Ikaste-prozesuaren autoebaluazioa

¿Cómo te has sentido?
¿Qué has aprendido?
¿Te ha quedado alguna duda? ¿Cuál?
¿Cómo ha ido el trabajo en grupo?
¿Has participado en las decisiones?
¿Han sido adecuadas las decisiones?
¿Qué cambiarías para mejorar?

HAUSNARTZEKO

- **Zein da, zuen ustez, ebaluazioaren helburua oinarrizko gaitasunen garapenaren ikuspegi koherentetik abiatuta?**

- **Zer-nolako ebaluazio jarduerak egiten dituzue ikasleekin oinarrizko gaitasunen garapena sustatzeko?**

- **Ados zaudete ebaluazioak ikasleei nota jartzeko baino ez duela balio baieztapenarekin? Zein puntutaraino uste duzue hori horrela dela?**

- **Ikastetxean, ebaluazio-irizpideak irakasle bakoitzak erabakitzen ditu ala modu bateratuan erabakitzen dira?**

- **Zuen ikastetxean jakinarazten dituzue aldez aurretik ebaluazio-irizpideak? Ikastetxeko zein agiritan jaso dira? Ikasleek eta familiek badute horien berri?**

- **Ikastetxean planteatzen da irakasleen lana ebaluatzeko jarduerarik? Zuen ustez, irakasleen lanaren zein alderdi ebalua lezakete ikasleek?**

4. MATERIAL DIDAKTIKOA

a) Sekuentzia didaktikoaren ezaugarriak

> *"Ikastea helburu duen edozein esperientziaren eduki erabat garrantzitsua ikaskuntza gauzatzea ahalbidetzen duen metodoa edo prozesua da (…) Garrantzitsuena ez da zer kontatzen duzun, zer eginarazten duzun baino"*[11]

Aurreko ataletan ikaskuntza aktiboaz eta ikasleek ikaskuntza hori gauzatzeko behar dutenaz esandakoa abiapuntutzat harturik, ezinbestekoa da **eredu didaktiko** bat bilatzea ikasgelako jarduera didaktikoa planifikatu eta antolatzeko; eta, horrela, aipatutako planteamendu metodologikoei erantzun eta oinarrizko gaitasunen garapenari lagundu ahal izateko.

Proposatzen den eredua **sekuentzia didaktikoa** da. **Honek elkarri loturiko jarduerak biltzen ditu azken ekoizpen bat lortzeko.**

Sekuentzia didaktikoak, besteak bete, ondoko ezaugarriak ditu:

- Ikasgelan lantzeko **unitatea** eratzen du eta **hala identifikatu** behar da.
- Bizitza errealari lotutako **egoerak edo arazoak planteatzen** ditu.
- Ikasleen bizitzari lotutako **testuinguruak islatzen** ditu.
- Ikaskuntza **helburu zehatza** du
- **Ebaluazioa barruan dauka**; izan ere, prozesuaren atal garrantzitsua da.
- Ikasitakoa **beste egoera batzuetan baliatzeko** aukera ematen du.,

Didaktika-jarduerak planteatzeko modu honek ikaskuntza-eduki desberdinak era koherentean biltzen ditu, ikaskuntza globalaren eta aktiboaren mesedetan, material askok erakusten duten edukien arteko zatiketatik ihesi. Horrenbestez, edukiei zentzua eta funtzionaltasuna ematen zaizkie ikasleek **eginez ikasiko baitute egiten.**

Ondoren dauden eskemek ezaugarri horiek biltzen dituzte. Alde batetik, jarduerak antolatzeko irakaslearentzako lan-eskema dago; eta, bestetik, ikasleei begira planteatzen den gelako jardueren sekuentziaren eskema. Honek hiru atal ditu: **planifikatzea, gauzatzea eta erabiltzea.**

---

[11] BREEN, MICHAEL P. (1990. urtea). ***Paradigmas actuales en el diseño de programas de lenguas.*** Comunicación, Lenguaje y Educación aldizkaria 7-8 zkia.

b) Sekuentzia didaktikoaren planifikazioa

LAN-ESKEMA

Arloak:

Gaia:

Maila: **Saio kopurua:**

Proposamenaren testuingurua:

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:

Helburu didaktikoak:

Edukiak:

Jardueren sekuentzia *

a) Planifikatzea

b) Gauzatzea

c) Erabiltzea

Ebaluazioa:
Adierazleak:

Tresnak:
Sekuentzian agertuko direnak
Irakasleak erabiliko dituen bete batzuk

JARDUEREN SEKUENTZIA*

PLANIFIKATZEA	***Gaiaren testuingurua***	⇔	HASIERAKO EBALUAZIOA Ikasleek ebaluazio irizpideak bere egingo dituzte
	Zereginaren adierazpena /irudikapena: Galderak egitea; zalantzak eta arazoak planteatzea; gaiarekiko interesa sortzea; ebatzi, eta erantzun behar diren galerak egitea…		
	Proiektuaren formulazioa: Nola azaldu edo erantzun daitezke galdera horiek? Nola ebatziko da problema? Nola konpondu daiteke arazoa? ***Helburuen formulazioa:*** Zer egingo dugu, zer ikasiko dugu egiten? ***Ataza hautatzea:*** Nola jardungo dugu? ***Ebaluazioaren berri izatea:*** Zer ebaluatuko da? Nola ebaluatuko da?		
GAUZATZEA	***Lan sistematikoa:*** Sekuentzia didaktikoaren jarduerak. ***Azken ataza***	⇔	PROZESUAREN EBALUAZIOA IKASKUNTZAREN EBALUAZIOA
ERABILTZEA	Egindako ataza **aplikatzea eta komunikatzea.**	⇔	AZKEN EBALUAZIOA Prozesuarena Ikaskuntzarena EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

⇓

OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENA

IKASITAKOA BESTE EGOERA BATZUETAN BALIATZEA

c) Gaitasunen inguruko lana gauzatzeko material egokiak

Ondorengo materialek ikuspegi metodologiko egokia dute oinarrizko gaitasunen garapenari laguntzeko. Denetan metodologia aktiboa proposatzen da, ikas-prozesuan ikaslearen inplikazioa bilatzen duena.

- ***Hizkuntzen Arloa***

Hizkuntzen Trataera Bateratua programarako unitate didaktikoak.

- Lehen hezkuntzarako proposamenak: http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/htb-3.php

1.zikloa:

- Konponbide bila. Desberdinak izatea gustatzen zaigu: http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/descargas/3htb/3111Iragarkia.pdf

- Aprendemos con las fábulas: http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/descargas/3htb/3112Fabula.pdf

2.zikloa:

- ¿Qué voy a ser de mayor?: http://www.berrikuntza.net/programas/materiales/materiales_arch/adj527.pdfI

- Ikertzaileak gara. Makinak. Zertarako balio dute?: http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/descargas/3htb/3132Informe.pdf

3.zikloa:

- Conocer es crecer: http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/descargas/3htb/3142Articulodeopinion.pdf

- Iparra eta hegoa. Mundu bi: http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/descargas/3htb/3141MahaiInguru.pdf

Didactic Units:

- A content based approach for learning English in Primary: http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/inebi-1-1.php

- CLIL teaching units Generalitat de Catalunya: http://phobos.xtec.cat/cirel/cirel/index.php?option=com_content&view=article&id=180&Itemid=1

- Maths in English: http://www.numbernut.com/basic/index.shtml

Web-questak

- Webquesten ataria: http://www.phpwebquest.org/euskera/

- Webquest para trabajar los cuentos de siempre: http://webquest.xtec.cat/httpdocs/contescas/INDEX2.HTM

- Webquest para trabajar con la lectura de un capítulo de El Quijote: http://www.saretik.net/quijoteberri/portal_index/castellano/primaria/webquest_index.htm

- Webquest para trabajar costumbres, usos de diferentes países a través de las leyendas: http://www.juntadeandalucia.es/averroes/sanwalabonso/wqyct/wq_leyendas/portada.html

Web-quests:

- Nellie's English projects: http://www.nelliemuller.com/ESL_WebQuests.htm

Lankidetza proiektuak

- Hamaika Haizetara: https://sites.google.com/site/hamaikahaizetara/hizkuntzak

- Callejeros Literarios: https://sites.google.com/site/callejerosliterarios/

- Nuestros pueblos: https://sites.google.com/site/proyectonuestrospueblos/

Collaboration projects:

- Hamaika Haizetara: https://sites.google.com/site/hamaikahaizetara/hizkuntzak

- Project work: http://www.mes-english.com/vkeypals.php

Baliabideen webgunea

- Eskola2.0rako baliabide didaktikoak: https://sites.google.com/site/eskola20baliabideak/

- Ikasten ikaten bidez: https://sites.google.com/site/irakastenetaikasteniktenbidez/

- IKTak eta Hizkuntzak. HHrako eta LHrako baliabideen gunea: http://www.ikasguay.com/

Websites for Primary

- Angles 365: lots of resources for Infant and Primary Education: http://www.angles365.com

- Mes-English: Free resources for teachers: http://www.mes-english.com/

- Learn English Kids (British Council): online resources for children: http://learnenglishkids.britishcouncil.org/en/

- TLS Books: free printable worksheets for teachers, parents, and early childhood educators: http://www.tlsbooks.com/

- Children's storybooks online: http://www.magickeys.com/books/index.html

- Storybird (writing on line): http://storybird.com/

- Leo lo que veo: visual/thematic dictionary: www.leoloqueveo.org/indexi.htm

- Woodlands Junior School: http://resources.woodlands-junior.kent.sch.uk/

- ***Natura, Gizarte eta Kultura ingurunearen ezaguera arloa***

- Ingurugela-Ceidak egindako unitate didaktikoak: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-803x/es/?resultsSource=fullText&catalogStruct=r01e00000fe4e6676dda470b8deed65c9bfe02f4c&catalogLabel=r01e00000fe4e66771ba470b8e35584d9d7da8391&fullText=unidades+didacticas

- APQUA proiektuko unitate didaktikoak: http://www.apqua.org/index.php?option=com_content&view=article&id=11&Itemid=13&lang=es

- Lehen Hezkuntza 2. zikloko unitate diadktikoak. Ingurunearen Ezaguera. Costa 21 Taldea. Motril (Granada): http://www.juntadeandalucia.es/averroes/html/adjuntos/2007/09/17/0010/index.html
- Makina sinpleak: http://www.solarizate.org/pdf/vasco/fichasalumnos/FICHA10.pdf

Sekuentzia didaktikoak

- Historiaurreko artea eta monumentuak: http://agrega.hezkuntza.net/visualizador-1/Visualizar/Visualizar.do?identificador=es-eu_2011040733_1230117&secuencia=false&idioma=eu

- Life in Imperial Rome: http://agrega.hezkuntza.net/visualizador-1/Visualizar/Visualizar.do?identificador=es-eu_2011022013_1230818&secuencia=false&idioma=es

- Proiektua. Kantauritik Mediterraneora: https://sites.google.com/site/ebronbarrena/

- Aldaketak denboran zehar **(**EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/eu/es-eu_2011022133_1230114/false

- Animalien erreinua (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/eu/es-eu_2011022133_1230103/false

- Bioaniztasuna (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/eu/es-eu_2011022133_1230107/false

- Materiaren aldaketak. Gure ingurunea ezagutzen (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/es/es-eu_2011022013_1230807/false
- Euskal Herriko ekosistemen kontserbazioa (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/es/es-eu_2011040713_1230106/false
- Uraren kontsumo arduratsua (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/es/es-eu_2011040713_1230111/false

- Ekosistemak: lehorrekoak eta uretakoak (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/es/es-eu_2011040713_1230105/false
- Klima-aldaketa (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/es/es-eu_2011022013_1230813/false

- Ilargiari buruzko wikia (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/es/es-eu_2011022013_1230801/false

- Munduko soinu guztiak entzun ditzakegu? (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/eu/es-eu_2011101033_2230106/false

- Zuhaitzak, zergatik al dira berdeak? (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/eu/es-eu_2011101033_2230105/false

- ¿Cuál es la energía que menos contamina? (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/es/es-eu_2011101013_2230101/false

- Euskal Herriko ekosistemen kontserbazioa (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/eu/es-eu_2011040733_1230106/false

- Zenbat modutan pitz dezaket bonbilla bat? (EU-ES-IN): http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/es/es-eu_2011101013_2230103/false

Webquest-ak

- Animalien albuma: http://www.proarabatic.org/webquest/seminario/seminario03_04/animaliak_2/orrialdeak/index.htm
- Elikaduraz. Hau gosea!: http://www.proarabatic.org/webquest/seminario/seminario03_04/elikatu%201/_private/index.htm -

- La alimentación en el ser humano (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak): http://www.batiburrillo.net/webquest/webquest04.php

- El ciclo del agua: http://www.eduteka.org/WQ_cie0001.php3

- El agua y la vida: http://web.educastur.princast.es/cpr/noroccidente/webquest/excretor.htm

- Explorando el país de binta: http://web.educastur.princast.es/cursos/cursowqp/aplic/09174/Explorando%20el%20pais%20de%20binta.html

- Las etapas de la historia: http://web.educastur.princast.es/cursos/cursowqp/aplic//09114/WEBQUEST.htm

- Vía de la Plata: http://web.educastur.princast.es/cursos/cursowqp/aplic/Jos%C3%A9%20E.%20Barbolla/index.htm

Simulazioak

– La vuelta al mundo con Tintín: http://www.tintin.com/googleearth/WebFR.php

Animazioak

– Una catedral gótica: https://www.youtube.com/watch?v=PIKqqiusrk0

Bibliografia

"Primeras investigaciones cientificas" de Norman G. Furnell . (1992) Ediciones AKAL. ISBN 84-460-0153-5.

"Problemas de Ciencias. Cosas a Investigar", Autor: Aa.vv. (1992). Ediciones AKAL ISBN: *84-7600-926-7*

"Enseñar Ciencias A Los Niños", Alfred Friedl. (2000). Editorial. Gedisa ISBN: 8474327237.

"Aprender Ciencias en la Educación Primaria" Jordí Martí (2012) Editorial. Graó. ISBN: 978-84-9980-443-9.

"La maleta de la Ciencia" Enric Ramiro Roca (2010). Editorial. Graó. ISBN: 978-84-7827-956-2

"*La Prehistoria explicada a los jóvenes*", Jean Clottes. (2008). Paidos. ISBN: 9788449321337.

"*Investigar con los Talleres de Ciencias Sociales",* Tomás García Abadía. (1999).Mira Editores. ISBN: 9788489839328

- ***Arte Hezkuntza Arloa***

– Koloreen sinbolismoa eta komunikazioa lantzeko erabilgarria den aplikazioa: http://www.mariaclaudiacortes.com/colores/Colors.html

– Konposizioa lantzeko, konkretuki paisaien bidez, aplikazioa: http://www.nga.gov/kids/zone/jungle.htm

– Aurpegiaren formak lantzeko zuzenduta dagoen baliabidea. Fisonomia, itxurak eta haien errepresentazio platikoa: http://www.joystiq.com/media/2006/10/mii-v3.swf

– Letrak erabiliz, elementu grafikoak izango balira bezala, marrazteko, eta irudiak sortzeko baliabidea: http://robotype.net/herramienta.php

– Konposizioa, adierazpen artistikoak eta, teknika eta material plastikoak lantzeko baliabidea: http://recursostic.educacion.es/primaria/primartis/web/

– "*HIRU.com*" formaziorako atarian agertzen den hiztegi artistiko eta musikala: http://www.hiru.com/arte

– *GELAPDI*-Agurtze Goitiak egindako bloga.Baliabide eta artikuak oso interesgarriak ditu: http://gelapdi.blogspot.com.es/

- "*Musikasare*" Musika lantzeko blog oso interesgarria, Irantzu Gallastegik egindakoa: http://musikasare.wordpress.com/

- *"Musika eta natura"*. Webquest. (Gazteleraz) "Carmen Miró"k egindakoa: http://www.webdemusica.org/musicainatura/castella/soc.htm

- *"Musika klasiko kontzertu batera joatea: portaera eta hezibide onekoa. Zer egin"*. (Gazteleraz) Andrea Giráldez: http://leer.es/detalle-buscador/?id=1712&bid=10

- "Kontaidazu opera bat" (Gazteleraz) . Moldatutako argumentuekon eta jokoekin operak lantzeko webgunea (ingelesez eta gaztelaniaz): http://www.cuentameunaopera.com/

- "Birziklatu eta jo. Hondakin materialak baliatuz tresna musikalak egin". Andrea Giráldez eta Ana Gredillak egindakoa: http://recursostic.educacion.es/apls/informacion_didactica/135

- *"Munduko musikak" A*grega proiektuaren aktibitatea: http://contenidos.proyectoagrega.es/visualizador-1/Visualizar/Visualizar.do?idioma=eu&identificador=es_2009063033_7220170&secuencia=false#

- " *Haur-kanta herrikoiak" A*grega proiektuaren aktibitatea: http://contenidos.proyectoagrega.es/visualizador-1/Visualizar/Visualizar.do?idioma=eu&identificador=es_2009063033_7220160&secuencia=false

- *"Ahotsa, gorputza eta musika-tresnak zaintzea" A*grega proiektuaren aktibitatea: http://contenidos.proyectoagrega.es/visualizador-1/Visualizar/Visualizar.do?idioma=eu&identificador=es_2009063033_7220010&secuencia=false#

- "Musika ikasten". Musika lantzeko Joko interaktiboak (Gazteleraz eta ingelesez): http://www.aprendomusica.com/#

–***Matematika Arloa***

- Cifras proiektua (gaztelaniaz): http://ares.cnice.mec.es/matematicasep/

- Eragiketak bigarren zikloan (gaztelaniaz). http://ares.cnice.mec.es/matematicasep/b/2/guiones/g_cb02vf.pdf

- Informazioaren adierazpena (gaztelaniaz): http://ares.cnice.mec.es/matematicasep/b/5/guiones/g_cb05vf.pdf

- Mundua zure neurrira (gaztelaniaz): http://ares.cnice.mec.es/matematicasep/b/3/guiones/g_cb03vf.pdf

- Zenbakiak atletismo pista batean(gaztelaniaz): http://ares.cnice.mec.es/matematicasep/b/1/guiones/g_cb01vf.pdf

- Unitate didaktikoa. Unibertsoa eta bere formak (gaztelaniaz): https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CDE

QFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.educa.jccm.es%2Feduca-jccm%2Fcm%2Fimages%3FidMmedia%3D29715&ei=GW0nUeXKMMKn0QXQxIHYDw&usg=AFQjCNH3L-PgypS6Xgx05f7EFzh1u2XEOQ&sig2=3o6OAH3cbLbHdkYjr5kXNQ&bvm=bv.42768644,d.d2k&cad=rja

- Zatiketa motak eta konparaketak: https://repositorio.educa.jccm.es/portal/odes/matematicas/comparacion_tipos_fracciones/index.html

- Rekenweb (hiru dimentsioak lantzeko baliabideak) (gaztelaniaz): http://www.fi.uu.nl/rekenweb/en/

- Matematikak zenbakirik gabe(gaztelaniaz): http://sepiensa.org.mx/librero/matematicas.html

- Clic: matematika. Lehen hezkuntza: http://clic.xtec.net/db/listact_es.jsp?lang=es&ordre=0&desc=1&from=1&area=mat&idioma=*&nivell=PRI&text_titol=&text_aut=&text_desc=&num=25

HAUSNARTZEKO

"Aurreko batean irakasleen bileran norbaitek esan zuen "X" eguna zenez, arloen arteko proiektu orokorra egin litekeela. Proposamenak ez zuen erantzunik izan"

- **Zergatik da hain zaila, zuen ustez, arloen antolaketak ezartzen dituen mugak haustea? Ez dago kontraesana oinarrizko gaitasunek aldarrikatzen dutenarekin?**

- **Ados zaudete arlo bakoitza mundu bat dela eta besteekin erlaziorik ez duela baieztapenarekin?**

- **Erabili ohi duzuen testu liburuko unitate didaktikoen antolaketari egokiena irizten diozue?**

- **Ikasgelan proposatzen dituzuen jarduerak eta ariketak noraino daude ikasliburuaren menpean? Menpekotasun osoa dute? Ala planteamenduak aldatu eta moldatu egiten dituzue? Osatu egiten dituzue planteamendu horiek?**

- **Proposatzen dituzuen jarduerak elkarrekin lotuta daude azken helburu bat lortzeko? Helburu argia dute ala ariketa solteak dira?**

- **IKTak ikasgelako jardueretan txertatuta daude? Zein neurritaraino? IKTek eskaintzen dituzten aukera didaktikoak baliatzen dituzue?**

5. BIBLIOGRAFIA

BRINGAS, F. eta beste egile batzuk (2008), ***Las competencias básicas en el área de Lengua Castellana y Literatura,*** Cuadernos de Educación 3**,** Consejería de Educación de Cantabria.
http://213.0.8.18/portal/Educantabria/Descargas/Publicaciones/2008/Cuadernos_Educacion_3.pdf

CAÑAS, A, MARTÍN-DÍAZ, M. J., y NIEDA, J. (2007), ***Competencia en el conocimiento y la interacción con el mundo físico.*** Alianza Editorial argitaletxea, Madril.

Egile anitz (2006)***, Primeros Pasos en Competencias Clave. Lengua Castellana,*** Consejería de Educación y Ciencia de Asturias.
http://www.educastur.es/media/institucional/calidad/competencias_03_lengua.pdf

Egile anitz (2007*),* ***Las competencias básicas y el currículo: orientaciones generales,*** Cuadernos de Educación 2, Consejería de Educación de Cantabria.
http://213.0.8.18/portal/Educantabria/Descargas/Publicaciones/2007/Cuadernos_Educacion_2.PDF

Egile anitz (2007) "***Las competencias lectoras***", Aula de Innovación Educativa, 162. alea. Monografikoa.

Egile anitz (2008) ***"Aprender a escribir, escribir para aprender***", Aula de Innovación Educativa, 175. alea.Monografikoa.

Egile anitz (2008)***, Hacia un enfoque de la educación en competencias,*** Consejería de Educación y Ciencia de Asturias.
http://www.educastur.es/media/publicaciones/enfoquemail.pdf

Europako Parlamentuaren ebazpen legegilea, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruz egindako Gomendio-proposamenari buruzkoa (2006) ***.***
http://www.europarl.europa.eu/meetdocs/2004_2009/documents/pr/609/609848/609848es.pdf

Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko dekretua (2007), HAEE, azaroaren 13koa.
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/es/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/es_5495/adjuntos/v_eranskina_01_hizkuntzak.pdf

ALSINA, P., GIRÁLDEZ, A. (koor.) (2012) ***7 Ideas Clave. La competencia cultural y artística.*** Colección Ideas Clave*.* Grao argitletxea. Bartzelona.

JIMENO P. (2004), ***Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan,*** Nafarroako Gobernua
http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/publikazioak2/pdfak/pdfak/escrituraeusk.pdf

JORBA, J. (2000), ***Hablar y escribir para comprender***, Síntesis argitaletxea, Madril.

PEREZ ESTEVE, P.; ZAYAS, F. (2007), ***Competencia en comunicación lingüística***, Alianza Editorial argitaletxea, Madril.
PÉREZ GÓMEZ, A. (2007), ***La naturaleza de las competencias básicas y sus aplicaciones pedagógicas,*** Cuadernos de Educación 1, Consejería de Educación de

Cantabria.
http://213.0.8.18/portal/Educantabria/Descargas/Publicaciones/2007/Cuadernos_Educacion_1.PDF

PERRENOUD, P. (2004), ***Diez nuevas competencias para enseñar,*** *Graó*, Bartzelona.

RICO ROMERO, L; LUPIAÑEZ GÓMEZ, J.L. (2008), ***Competencias matemáticas desde una perspctiva curricular,*** Alianza Editorial argitaletxea, Madril.

SANMARTÍ, N. (2007), ***Evaluar para aprender***, Ideas Claves bilduma, Graó, Bartzelona.

ZABALA, A. eta ARNAU, L. (2007), ***Cómo aprender y enseñar competencias,*** Ideas Claves bilduma, Graó, Bartzelona.